

**ANDOAINGO HIRIGINTZA
ARDATZ DUEN ETXEBIZITZA
AUZIAREKIKO HURBILKETA**

Xabat Petrikorena Uranga

Etxebizitza guztion eskura egon beharko luken erabilera-ondasuna bada, zergatik hau ez da horrela suertatzen? Bada, jabetza pribatua oinarri duen etxebizitza ereduaren garapena frankismo garaian txertatzen da eta helburu zehatz batzuen inguruan antolatu zen diziplina mekanismoa izan da: horietako bat, espainiar Estatuan berregituratzen ari zen XX. mendeko sistema kapitalistaren erreproduktzioarako funtsezko baldintza izatea. Zentzu honetan, hirigintza sekulako garrantzia izan duen praktika izan da azken mende erdian, eta Andoainen argi eta garbi antzeman daiteke honek izan duen talka udalerrriaren errealtate sozioekologikoarekiko. Izan ere, ongizate sozialaren diskurtsupean babesten den neoliberalismoak, hirigintza praktiketan topatu du klase kapitalista mesedetzen duen kapital zirkulazioa bere horretan mantentzeko erreminta eraginkorra. Horregatik, ezinbestekoa da diskurtso hegemonikotik kanpo aurkitzen diren bizitza antolatzeko praxiak bistaratzea eta hauen inguruko gogoeta sustatzea.

Jabetza pribatua, frankismoa, hirigintza parasitarioa, kontrol-gizarteak, kontra-hegemonia, komunitatea eta komuna.

Si la vivienda es un bien de uso que debería estar al alcance de todos, ¿por qué esto no es así? Y es que el modelo de vivienda fundamentado en torno a la propiedad privada tiene sus orígenes en época franquista, y ha sido un mecanismo de disciplina que se organizó alrededor de unos precisos objetivos: uno de ellos el de ser una condición fundamental para la reproducción del sistema capitalista del Estado español que se estaba reestructurando. En este sentido, el urbanismo ha sido una práctica esencial en este último medio siglo, y en Andoain se puede contemplar claramente el impacto que este ha tenido sobre la realidad socioecológica del municipio. De hecho, el neoliberalismo que se refugia tras el discurso del bienestar social ha encontrado en las prácticas urbanistas una herramienta eficaz para mantener en curso la circulación de capital que beneficia a la clase capitalista. Por ello, es imprescindible visibilizar y reflexionar sobre las prácticas que proyectan una vida fuera del discurso hegemónico.

Propiedad privada, franquismo, urbanismo parasitario, sociedades del control, contra-hegemonía, comunidad y comuna.

If housing is a good of use which should be accessible to the public, why isn't so? Private property based housing model has its development origins in the Francoism, and it was structured as a discipline mechanism around some concrete goals: one of those was to be a fundamental condition for the reproduction of the 20th century restructuring Spanish State capitalism. In this sense, urbanism has been an essential practice in the last half century, and in Andoain it can be clearly seen the impact it has had over the towns socioecological reality. In fact, the neoliberalism which hides behind the speech of common welfare has found in this urbanism an effective tool to keep on track the capital circulation that benefits the capitalist class. Because of this, it is necessary to make visible and think about the practices that project a life outside the hegemonic discourse.

Private property, Francoism, parasitic urbanism, societies of control, counter-hegemony, community and commune.

ESKEMA

SARRERA

1. METODOLOGIA DIALEKTIKOA

- 1.1. Hegemoniaren eta boterearen inguruan
- 1.2. Boterearen eraginpeko espazioak
- 1.3. Hiriak: botere-harremanen erreproduktzioarako espazioak
- 1.4. Botere praktika kontra-hegemonikoak

2. KONTROL GIZARTEAK ETA SUBJEKTIBOTASUNA

- 2.1. Iraganeko irakaspena: haussmannizazioa
- 2.2. Hirigintza eta arkitektura indarkeriaren adierazle
- 2.3. (Neo)haussmannizazioaren osteko parasito-hiriak
- 2.4. Indarkeria subjektiboa eta objektiboa
 - 2.4.1. Beldurraren diskurtsoa, austeritatea eta militarizaturiko hiriak

3. JABETZAKO ETXEBIZITZAREN KULTURA ESPAINIAR ESTATUAN

- 3.1. Foucaulten gertakaria ardatz
- 3.2. Botere hegemoniko berria
 - 3.2.1. Komunitate nazionalaren mitoa
 - 3.2.2. Etxebizitzarako sarrera «soziala»
- 3.3. Erregimenaren botere mekanismoak
 - 3.3.1. Katolizismoa ideologia aparatu gisa
- 3.4. Subjektuak ekoizten
- 3.5. Hiri-espazioetako bizilekua antolatzen
 - 3.5.1. Desjabetuekiko diziplina
- 3.6. Sindikalismoa falangista
- 3.7. Elizaren instituzioa
- 3.8. Jabetzako etxebizitzaren kultura instituitua

4. JABETZAKO ETXEBIZITZAREN KULTURATIK URBANIZAZIO EREDU INTENTSIBOETARA: ANDOINGO URBANIZAZIOA ARDATZ

- 4.1. Urbanizazio prozesuaren hastapenak Andoingo udalerrian
- 4.2. Hirigintza praktika intentsiboen bidetik: plan orokorraren berrikuspina (1966)

- 4.3. Etorkizuneko Andoaingo habitata materializatzen
 - 4.3.1. 25 poligonoa
 - 4.3.2. 17 poligonoa
- 4.4. Aurreikuspen defasatuaren aurrean, arau subsidiarioen agerpena
- 4.5. Hirigintza lehenesteak sortzen dituen baldintza sozialen inguruan
- 4.6. Arau subsidiarioetatik hiri antolamendurako plan orokorrera (2011): hirigintzarekiko paradigma ziklikoa
 - 4.6.1. Lo-hiria izatera baldintzatutako udalerrian
 - 4.6.2. Garatzear dauden hirigintza proiektuak: lurraren gaineko ustiapen neurrigabeak ez du etenik
- 4.7. Andoaingo etxebizitza ikerketak: enpirismoa eta positibismoa agerian
 - 4.7.1. Urbiker (1991-1993)
 - 4.7.2. Ikertalde (2002)
 - 4.7.3. Ikertalde (2017)
- 4.8. Etxebizitza ereduarekiko konformismo jarraitua

5. HABITAT ARTIFIZIALETATIK, HABITATZE ESPAZIOETARA

- 5.1. Amankomunaren inguruan
- 5.2. Praxi komunalak
 - 5.2.1. Udalgintza eraldatzailea euskal herrian
 - 5.2.2. Abaraska, jabetza eta alokairuaz gain etxebizitza izateko eredu bat
- 5.3. Ez dago komunarik komunitaterik gabe
 - 5.3.1. Komunitatearen sorrera erabilera-lagapenerako etxebizitza proiektuetan

6. ONDORIOAK

- 6.1. Jabetza pribatuan oinarritzen den etxebizitza eredu
- 6.2. Jabetzako etxebizitza ardatz duen hirigintzak materializatutako hiri-eredu artifiziala

7. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

- 7.1. Andoaingo Udal Artxiboa
- 7.2. Bibliografia
- 7.3. Interneteko baliabideak

SARRERA

Pertsonen eguneroko bizitza garatzeko, etxebizitza duin baten erabilera eta gozamina funtsezko beharrezkoa da. Izan ere, etxeko espazioa bizitzaren erreproduktzioarako lekua da, harreman-sare baten inguruan egituratzen dena; baina harreman hauek, etxebizitza jabetza pribatuaren bitartez ulertzeko logikak baldintzatzen du; etxebizitzaren gozamina, esaterako, berau gozatzen dutenen zorpetze praktikan oinarritu baita. Hau hipoteka edo hilabeteko alokairua ordaintzeko lan-indarraren salmenta behartuan itzultzen da, baina halaber, diru sarrera bat eskuratzeko zailtasunak dituzten eguneroko ezegonkortasun eta etsipen sentimenduan. Jabetza pribatuaren bitartez, etxebizitzak duen berezko erabilera-balioa —funtzionalitatearen arabera— deuseztatzen da eta merkaturatzen den ondasun gisa aurkeztu; oro har, etxebizitzaren paradigma sistema kapitalistan, etxea-lantokia dikotomia barruan txertatzen da: lehendabizikoa eskuratzeko beharrezkoa delarik bigarrena segurtatzea.

Era berean, eredu hau sustatzen duten hirigintza praktikek beste arazo handi bat irudikatzen dute etxebizitza paradigmaren baitan. Bada, urbanismoaren bitartez gauzatzen den lurraren gaineko ustiapen pribatuak, sekulako desorekak sortzen dituelako inguruarekiko, orainaldian zein etorkizunera begira; lurraren gaineko prezioa neurrigabe igotzea kasu. Gainera, neoliberalismoaren erritmo eta beharrek espazio hiritarra eta denbora birmoldatzen duten heinean, bizitzaren erreproduktzioa gero eta indibidualistagoa bilakatu da etxeetako espazioetan. Zeren eta hirigintzak proposatzen dituen etxebizitza ereduetan, bizilagunen isolamendua sustatzeaz gain, auzokideen arteko harremanak konplexutzen dira: neoliberalismoaren iruditerian, adibidez, bizitzako garaikur sinbolikotzat hartzen da norbanakoaren etxebizitza, autonomia ekonomikoaren eta lehiaren isla dena; zentzu batean, komunitatearen eta elkar laguntzaren deuseztatzea dakarrena.

Zentzu honetan, espainiar Estatuan joera orokorra den jabetzako etxebizitzaren aldeko hautua gailentzen da Euskal Herrian bezala, Andoainen ere. Baina

honetarako sarrera, udalerriko pertsonen errealitate sozioekonomikotik gero eta urrunago kokatu bada ere, ez du instituzioen asaldatura eragin. Izan ere, nahiz eta udalerriko etxebizitza ikerketek aldentze hau gradualki islatu, merkatu-logika barruan kokatzen diren konponbideak proposatu besterik ez dira egin; hau da, epe laburrean egoera itxuraldatu dezaketen irtenbide instituzionalak, Bizigune programa kasu, baina epe luzera, arazoa berriro ere azaleratzea ahalbidetzen dutenak. Egun, adibidez, 20-34 urteko hamar gaztetik sei, gurasoen etxean bizi da Hego Euskal Herrian, baina aldi berean, 35.000 ingurukoa da hutsik dauden etxebizitzaren kopurua «Stop Deshaucios Euskadiren» arabera; halaber, pertsona bakar batek habitatatutako etxebizitzak % 28,8 dira EAEn, eta % 58,6 pertsona bat edo bi bizi direnak. Bada, etxebizitzarekiko problematika ezin da aldizkako gauza moduan ulertu, krisialdi testuingurutan gehiago gaineratzen bada ere, baizik eta beti presente dagoen arazo estruktural gisa. Orduan, egoitza erabileraz harago, zein da etxebizitza institutuak duen beste eginkizuna horrelako baldintza-harremanetan egituratzeko?

Bada, hemen aurkezten den ikerketaren lehen helburua, etxebizitza jabetzan «izateko» praktika kulturalaren jatorria analizatzea izango da; hain zuzen ere, etxebizitzarekiko problematikara hurbiltzeko ezinbestekoa delako hautu kultural honen atzean dagoena azaleratzea. Modu honetan, ikusiko da praktika kultural honen hedapena lehen frankismo batean (1939-1959) txertatzen dela, eta erregimenaren interes zehatz batzuei erantzungo diola, alegia. Etxebizitzaren beharra zegoen testuinguru zehatz honetan, azkar batean orokortu zen jabetzaren aldeko aukera Estatu osoan; ez litzatekeena posible izango erregimenaren diskurtso interesatuegatik ez balitz. Era berean, hirigintza praktikak gauzatzen zituzten higiezin enpresak, kapital metaketa esanguratsuak eskuratzeko trebezia erakutsi zuten; eta ez hori bakarrik, gaur egunera arte funtsezkotzat hartu diren praktikak dira hauek, kapital-zirkulazio jarraitu bat ahalbidetzen dutenak eta tokian-tokiko udal-instituzioen diru-iturri bilakatu direnak maiz.

Hirigintza praktikak, beraz, gero eta intentsitate handiagokoak bilakatu ziren XX. mende erdialdetik aurrera, erregimen frankistaren inguruko eliteek, hauekin kapital esanguratsua metatzen zuten bitartean; eta guzti hau, Estatu osoan jabetzako etxebizitzaren aldeko diskurtso bakarra inposatzen zen artean. Zentzu honetan, neurrigabekoa izango den etxebizitza eskaintzak biltzen dituen prozesu urbanistiko (des)eraikitzaileen analisia egin nahi da bigarrenik, Andoain erreferentziat hartuta. Horrela, «deseraikitzaile» terminoak praktika hauek sustatzen duen logika neoliberal artifizialari egin nahi dio erreferentzia, zeinetan porlanak espazio habitatu itxuraldatzen duen kapitalaren aldeko hautuan; fisikoki eraikitzen bada ere, pertsonak mentalki deseraiki nahi dituen ideologia-hegemonikoaren esku-hartze zuzena delako. Izan ere, Andoaingo udalerrian garatzen den urbanizazioa, Estatuko praktiken eragin zuzena duelarik, ez da inolako etxebizitza duinaren bermea izango. Hots, urbanizazioak komunitatearen harreman-espazioak kontutan ez hartzearekin batera, ez duelako udalerrian haren inguru sozioekologikoarekiko orekan antolatzen; deseraikitzea, hain zuzen, harreman-sareen eta komunitatearen desitxuratzean islatzen da, lurraren gaineko ustiapen pribatuan bezala.

Beraz, espainiar Estatuan in situ den etxebizitza ereduaz gozatzeko, lanarekiko loturazko etorkizuna da gehiengo sozial batek pairatu behar duen egunerokoa; eta lurraren gaineko ustiapenak, higiezin enpresen espekulazioak eta hiri-espazioetako gentrifikazioak, lur urbanizatuen prezioa neurrigabe handitzen jarraitzen duenez, gehiengo sozialaren zaugarritasuna eta ezegonkortasuna areagotuz, nabarmena da ereduaren eraginkortasun sozial eza, etxebizitza duina aldarrikatzen duen diskurtsoaren mantupean. Horregatik, Estatuaren testuinguru hegemonikotik at kokatzen diren alternatibekiko gerturatzea aldarrikatuko da azken atalean. Hauen baitan, komunitatea eraikitzearen aldeko hautua nabarmentzen da, auzo boterea sortzearekin batera; bai bizitzeko eredu moduan, zein etxebizitzaren problematikari aurre egiteko mekanismo kolektibo bezala. Neoliberalismoaren eredu (des)eraikitzailearen aurrean, komunean zaintzeko eta antolatzeko erabakia funtsezkoa dela irudikatzen duten hainbat adibide praktikoko ere aztertuko dira; erakusten dutenak aukera egon badagoela bizitzaren egunerokoa logika osasuntsuagoen arabera egituratzeko.

Hau guztia, munduko baliabideak gero eta esku gutxiagotan geratzen ari diren momentuan, eta Mendebaldeko gizarte konplexuen ongizate estatua, ilusio bat besterik ez denean. Azken urtean Lurra astindu duen krisialdiak, eredu neoliberalaren eraginkortasun sozial eza islatu du beste behin ere, zeinak bereganatzen dituen etekinen pribatizazioaz eta eragiten dituen galeren sozializazioaz irauten duen edozein testuingururen aurrean. Horregatik, bizitzako arlo guztiak barneratzen dituen eta apurka hedatzen ari den «desazkunde» ideia ildotik ere, ezinbestekoa da agortzen ez den etxebizitza ereduaz hausnartzea; bai lurraren gaineko ustiapen pribatuagatik, zein hirigintza intentsiboak inguruko ekologiarekiko duen talka bortitzagatik ere.

Bada, hau planteatzeko diskurtso kontra-hegemoniko bat jarraitu nahi izan da idatzian zehar, eta horretarako, lehen atal batean hiri-espazioak perspektiba honetatik ikertzeko hurbilketa dialektikoa egin da. Horrela, espazioa produzitzeko orain arteko eredu suntsitzaileetara gerturatuko da lehen kapitulua, zeintzuen barruan kokatu behar den etxebizitzari ezarri zaion logika, edo, nahitasuna. Izan ere, funtsezkoa da etxebizitzaren paradigma espazioaren produkzio praktika hauen barruan ulertzea, zeren eta ikusiko den moduan, etxebizitzarena ez da problematika isolatu bat, sistemaren dominazio-mekanismoen barruan txertatzen den bitartekari bat baizik; denbora luzez baliatu dena gehiengo sozial bat zorpetzearen bitartez itozteko eta alienatzeko.

1. METODOLOGIA DIALEKTIKOA¹

Hurrengo lerroetan aurkezten den ikerketa, bi doktoretza tesiren inguruan eratu da, eta hauen gaineko lanketa erabakigarria izan da sortu nahi zen

¹ Kapitulu honetan aipatzen diren lanen datak jatorrizko kaleratze datari egiten diote erreferentzia, eta ez, badagoelako kasu pare bat, ikerketa hau egiteko kontsultatu diren edizio berriagoei.

diskurtsoak biltzen duen dialektika kontzeptualera hurbiltzeko. Horrela, espainiar Estatuko etxebizitza auziaren inguruan orain arte ikertu gabeko problematika nabarmena aztertzen du José Candelak (2017): jabetzako etxebizitza kulturaren jatorria, alegia. Horrenbeste buruhauste ematen dituen praktika orokortuak, Candelak deritzon lehen frankismoan (1939-1959) izango luke jatorria, erregimen frankistaren asmoz. Bestalde, Miguel Mesa del Castilloren (2012) lanak, jabetzako etxebizitzak sortzen dituen subjektuak, eta hauek pairatzera determinatuta dauden indarkeria antzemateko hurbilketa kontzeptuala eskaintzen du. Lan honek, jabetzako etxebizitza ereduaren jatorrian aurkitzen diren botere-harremanen interesak adierazgarri egiteko mekanismo kontzeptualak eskaintzearekin batera, idatzi hone-tan osatu nahi den diskurtso kontra-hegemonikoa eratzeko baliabideak eskaini ditu.

Bi ikerketetan, nonahi dagoen botere baten presentziaz hitz egiten da, bizitzako arlo guztietara iristen dena; pertsonen gehiengoaren desjabetza baldintzatu eta gutxiengo sozial baten oparotasun gordina bermatzen duena. Lehenik eta behin, botere hegemoniko hau azaleratu behar da, antzemangarria egin, gerora ikerketa osoan zehar beratu igartzeko. Honen eragin esparrua bi eremutan banatu da, nahiz eta finean, sustantzia bera izan: lehenak, bizitzako espazioa egituratzen duen botereari egiten dio erreferentzia, espazioak arautu eta itxuraldatzen dituenak. Bigarrenak, espazioa betetzen duten subjektuei eragiten die; hauen gorputzak diziplinatzen dira jasango duten baldintzazko bizitza asimilatzeke, eta hortaz, artifizialki eraikitako espazioaren subjektu izango liriateke. Bada, hauxe da lehen pre-misa: bizitzen diren eguneroko espazioak botere hegemoniko batek arautzen ditu, eta aldi berean, botere berberak espazio hori osatzen duten pertsonak zeharkatzen ditu, subjektuetan transformatuz.

1.1. Hegemonia eta boterearen inguruan

Bada, idatzian zehar erabiliko den «hegemonia» kontzeptuak Gramsci-n² du jatorria, eta dominazioaren bitarteko pedagogia prozesu batean datza, zeinak antolaketa sozial zehatz baten iraute egonkorra ahalbidetzen duen. Bizitzako esparru guztiekiko menderatze antolatu hau, egunerokoan funtsezkoak diren instituzioen bereganatze ideologikoaren bitartez gauzatzen da: hezkuntza, erlijioa, hedabideak, etab.; eta honen bitartez, klase-sozialen arteko desparekotasuna normalizatzeko gaitasuna du, azken hau formakuntza sozial ororen ezaugarria balitz bezala irudikatuz. Horrela, azpijoko kultural eta moralen bitarteko dominazio ideologikoa gauzatu bitartean, sistemaren ekoizpen indarrekin eta pertsonen arteko harreman sozialekin bateratzean sortzen da bloke-hegemonikoa deritzona. Hau da, pertsonen bizitzako arlo guztietan inposatuko den botere baldintza.

² Kontzeptuan sakontzeko, <http://www.gramsci.org.ar/GRAMSCIOLOGIAS/gruppi-heg-gramsci.htm> (2021/05/12).

Izan ere, bloke-hegemonikoak espazioaren gaineko kontrol absolutua bereganatzen du, eta biltzen duen zilegitasun hegemonikoa dela medio, honen gaineko esku-hartze interesatua burutu. Horrela, prozesu hegemonikoak mugatu eta antolatu den espazio —herrialde bat— baten barruan, klase ezberdinetako jendeak klase dominatzailearen onurarako diseinatutako baloreetan bat egitea lortzen du. Zentzu batean, hegemoniaren paradigma herrialde bateko «status quo-a» mantentzearekin alderatu daiteke, zeinetan indarkeriaren erabilera legitimoa, herrialdea gidatzen duen klase dominatzaileak duen. Botere praktika hauek eragin zuzena dute espazio hori betetzen duten pertsonengan, eta hauen gorputzen gaineko kontrolean itzultzen da.

Zentzu honetan, Michel Foucault-ek (1975-1994) botere-harremanen ikuspegi erabakigarria eskaintzen du bere idatzietan zehar. Bere aburuz, harreman hau jakintzaren eta boterearen arteko erlazio konplexuan oinarritzen da, zeren eta botere ariketek jakintza sortzen duten bitartean, jakintza bera izango litzateke boterearen ondorioa. Orduan, denbora luzez defendatu den jakintzaren eta boterearen arteko banaketa inora ez daramala salatzen du Foucaultek; soilik botere-harremanen erreproduktzioa. Beraz, ideia honetatik abiatuz, ezingo litzateke boterea jakintzarik gabe erabili, eta ezinezkoa litzateke, halaber, jakintzak boterea ez sortzea. Konplexutasun dialektiko honen aurrean eta boterearen gaineko kontzeptualizazio monolitikoa eraldatzea ezinbesteko haututzat hartuta, boterearen erabilerara hurbiltzeko mekanismo analitikoak garatu zituen Foucaultek.

Beraz, gizartea kartzela metaforiko batean irudikatzen da Foucaulten dialektikan, botere-harremanetan oinarritutako botere praktika espazialen ondoriozko pertsonen gaineko bortxa jarraituan. Hau irudikatzeko panoptikoaren ideia garatu zuen, zeina diziplinazko mekanismoen erabileraz baliatzen den kartzela sistema litzateke. Bada, «panoptiko» terminoak kartzela erdian kokatzen den zaintza egiturari egiten dio erreferentzia, aukera eskaintzen diona zaindariari ziegak ikuskatzeko, bere burua momentu oro ikusezin mantenduz³. Beranduago, eskema hau hiriko-espazioetara leku aldatzean eta pertsonen gorputzen gaineko dominazioa azaleratu nahian, «dispositibo» kontzeptuari heldu zion Foucaultek. Honek, gorputzen diziplinara zein botere-harremanak mantentzera bideratutako mekanismo instituitu orori egiten dio erreferentzia, izan materiala ala immateriala; arkitektura edo hezkuntza kasu⁴. Horrela, diziplinan oinarritutako gizartea irudikatuko da idatzian, zeintzuetan jakintza —eta honen barruan «erabilera»— errepresiozko boterearen erabileraren bitartez gutxi batzuen eskuetan mantentzen den.

3 Panoptikoaren diseinuak oin-forma zirkularra edo poligonalak du, eta honen erdian kokatzen den gardien zaintza egituraren inguruan, zentrorantz irekita dauden presoek ziegak aurkitzen dira.

4 Eragin handia izan duen kontzeptua bada ere, Foucaultek ez du orokorrean esplizituki definitu; 1977ko elkarrizketara arte, zeinetan terminoaren malgutasuna zehazten saiatu zen. Elkarrizketa "*El Juego de Michel Foucault*" deitzen da, 1977an kaleratu zen *Ornicar?* aldizkarian, eta 1978an gaztelaniara itzuli zuen Javier Rubiok *Divan* aldizkarirako. <https://filadd.com/doc/20-foucault-caps-el-juego-de-michel-foucault-pdf> (2021/04/06).

Baina bortxazko botereari erreferentzia egiten zaionean, honen sustrai juridikora mugatzen da maiz kontzeptua, legezkoa eta ilegala denaren arteko dikotomiara. Kontuan izan behar da, botereak bere erabilera edo praktikari egiten diola erreferentzia, eta ez hau edukitzeari. Baina honen kontzeptualizazio orokortuak, subiranotasun botere bati egin ohi dio erreferentzia, boterea erabiltzeko hegemonia duten egiturei: estatuak, monarkiak, udaletxeak, etab. Propietate pribatuaren bitartez, adibidez, boterea erabiltzeko eskumena heredagarria bihurtzen da, eta horrela, botere nahia azpiratzen da jabetzako subiranotasun eskubidea ezartzean. Alabaina, boterea suntsizaitzailea den heinean, eraikitzailea ere bada, eta zentzu honetan, boterearen inguruan sortu den kontzeptualizazio mugatu eta monolitikoa desitxuratzen du Foucaultek. *“Si el poder fuera siempre represivo, si nunca hiciera otra cosa que decir no, ¿creen ustedes de verdad que se le obedecería? Lo que hace que el poder persista, que se lo apetece, es que no pesa solo como fuerza que dice no, sino que, de hecho, atraviesa, produce cosas, induce placer, forma saber, produce discurso. Hay que considerarlo como una red productiva que atraviesa todo el cuerpo social, mucho más que como una instancia negativa cuya función es reprimir”*⁵.

1.2. Boterearen eraginpeko espazioak

Lehenik eta behin, gizarte bakoitzak bere espazioa ekoizten duela argitu behar da, pertsonen arteko harreman eta esperientzia praktikoen bitartez orokorrean, eta horrela, espazioa, praktika hauen euskarri eta emaitza da aldi berean. Baina espazioari, izaera gardena —neutroa—, aldagaitza eta behin betikoa atxiki zaiola salatzen du Henri Lefebvrek (1974). Bada, baieztapen honek irudikatzen duen ilusioaren atzean, gizartearen eta espazioaren gaineko errealitate ikuspuntu zehatz baten inposaketa ezkututzen dela adierazi zuen; espazioa produktu sozial gisa ukatzen duen ilusioa, alegia. Horrela, espazio publikoak hirigintzaren bitartez jasaten duen ustiapena aztertzean, Lefebvrek ikusi zuen espazio hauek desagerrarazi nahi direla, igarotze bide simple batera gutxitu, eguneroko «de paso» leku arruntera; horretarako, espazio publikoak biltzen duen izaera kolektibo eta komunitarioa desanexionatuz. Gainera, mehatxua estaltzen duen diskurtsoak, erretorika sozialaren bitartez estaltzen ditu botere praktika espazialak, etorkizuneko hiri-espazio desitxuratua biztanleriarentzat onuragarri izango dela aldarrikatuz. Zeren eta urbanismoaren eraikitze eta suntsitze ziklikoak, kapital zirkulazioa «beharrezko» mailan mantentzen du, ezinbestekoa dena kapitalismoaren mantenturako. Eta testuinguru honetan, kontrol politiko ezaren edo aldeko legeek lagunduriko higiezin enpresak, kapital metatze eredu erabakigarria izatea lortu dute; espazioaren merkatubalioa instituzionalizatzean, azken batez, salgai hutsera gutxitu dutelako espazioa.

Antolaketa horren barruan, biztanleak espazio hori kontsumitzera bideratutako subjektuak izango liriateke; espazioaren gaineko erabilerak alde zuzenetik zehaztuak izanik, hau betetzen duten gorputzek, «egokitu» besterik ez dutelako

5 FOUCAULT, Michel: *Microfísica del Poder*, Siglo XXI, Buenos Aires, 2019, 29-30 orr.

bizitzeko. Espazio horren barruan, Lefebvrek deritzon *consensus* bat dago, bertako gorputz guztiek onartzen dituztelarik hirigintza ereduak; horregatik egunerokoa, mekanismo eta aparatu ideologiko manipulatuak irudikapena izango litzateke, pertsonen alienazio orokortu bat eragingo lukeena. Finean, arrazionaltasun mantu azpian, dominazio espaziala egunerokotasun programatu batean bihurtzen da, eta ondorioz, urbanoa ezin da eszenatoki harmoniatu finitu baten moduan ulertu; baizik eta gatazka espazio moduan, desorekak bereizgarri diren normalizatutako espazio gisa. Honen aurrean, Lefebvrek hiriaren birjabetza aldarrikatzen du: erabilera-balioaren arabera hau ulertzea, biztanleen sorkuntza obra kolektibo moduan eta hortaz, hiriaren gaineko erabakia eta esku-hartzea haien esku behar duela defendatuz. Norbanakoen baitan dagoen indar eraikitzaile eta subertsiboa defendatzen du Lefebvrek, habitatzearen praktikan irudikatu daitekeena eta burujabetza kolektiboa helburu duena.

Baina pertsonak, praktika neutro desideologizatu moduan barneratzen duten habitat programatuaren atzean, ideologia-hegemonikoaren araberrako subjektibotasun mekanismoak detektatu zituen Louis Althusserrek (1970), zeintzuen bitartez materializatzen den boterearekiko pertsonen baldintza harremana. Zentzu honetan, botere egiturek pertsona gutxi batzuek gehiengo sozial baten gaineko menderatze posizioak erreproduzitzen dituztela zehaztu zuen, eta gizarte garai-kideetan ekoizpen-harremanekiko lotura, ez dela jada ikusgarriak diren indarkeria prozeduren bitartez gauzatzen. Hau baina, ideologiaren bitartez gauzatuko da, Althusserrek «Estatuaren aparatu ideologikoak» bezala zehaztu zituen mekanismoen bitartez⁶. Hortaz, habitat programatuaren inguruan egituratzen den espazioa, botere-harremanak egonkortzera bideratutako ideologiaren eraginez sortzen da, eta intenzionalitate ideologiko horren emaitza, mendekotasun subjektuak —biztanleak— dira. Bada, ordena soziala osatzen duen habitat programatuaren monotonía eta linealtasunaren aurrean, habitatzearen aberastasun semantiko, irudimentsu eta poetikoak aldarrikatzen dira Lefebvren idatzian; eguneroko habitatzearen praktikaren bitartez, ekoizpen espazial kontzeptua espazioaren ekoizpen sozialean bihurtzea.

1.3. Hiriak: botere-harremanen erreprodukzioarako espazioak

Batetik, kapitalaren botere praktikak daude, lurraren gaineko ustiapenean eta desjabetuen deslokalizazioan itzultzen direnak, eta bestetik, bortxa-botere honekiko subjektuek garatzen duten eguneroko harremana. Lehenak, hirietan kapitalak duen botere absolutuari egiten dio erreferentzia, Manuel Castells (1972) zein David Harvey-ren (1973) idatzietan adierazten den moduan. Bientzat, hiria botere-harremanen erreprodukzio unitate espaziala da. Lan-indarren erreprodukzioaz,

6 Althusserren testua berebiziko ekarpena izan zen 70. hamarkadako mugimendu kontra-hegemonikoen tzat, argi geratu baizen, kultura instituzionalak biltzen zituen adarretako askok, guztiak ez esateagatik, Estatuaren aparatu ideologikoen parte direla: artea, zinema, literatura, arkitektura, etab. Kultura arlo hauek guztiek subjektu-ideologikoen ekoizle izango lirateke.

etxebizitza sozialaz eta zerbitzu publikoez mintzo den bitartean Castells bere erreproduktio dinamiken arrazoitzean, Harveyk lurraren salgai izaera azpimarratzen du, hiria errentak eskuratzeko tokia bezala seinalatu eta merkatu-balioaren araberako espazioa izanik, hau ustiatzeko prest dagoen ondasun gisa aurkeztuz.

Era berean, Castellsek bi esku-hartze mota ulertzen zituen hiriaren prozesu erreproduktibo honen baitan: lehena Estatukoa, non zerbitzu publikoen inbertsioarekin batera, lan-harremanak mantentzera bideratutako politikak jorratzen diren; bigarrena, Estatuko esku-hartzea gaitzesten duen mugimendu sozialarena, politikoki Estatuarekin elkar eragin eta espazioaren kontsumo kolektiboaren antolaketa egiten duena. Baina Harveyrentzat ordea, hau ezinezkoa zen eta diskurtso gogorago bat proposatu zuen. Horrela, jabetza pribatuaren bitartez, Estatuak errenten metaketa bermatzen du hainbat amarruren bidez, eta orduan, intentzio onekoak diren politika sozialak, eraginik gabe utziko ditu; finean, errentadunak kostatzen ahala kostatzen lortuko baitu bere nahia, botere egituraren nahia ere izango litzatekeena. Bi ikuspegi hauek barneratzen dituen Andy Merryfield-en (2014) idatzia erabili da, batik bat, egungo hiriaren kontzeptualizazioa osatzeko.

1.4. Botere praktika kontra-hegemonikoak

Botereak biltzen duen sorkuntzan eta ahalduntzean sakontzeko, urbanismo feministatik eta komunaren proposamenetik eratzten den diskurtsoa proposatzen da etxebizitza ereduaren eraginkortasun eza azpimarratzeko, eta aldi berean, diskurtso kontra-hegemonikoa osatzeko. Lefebvren bidea jarraitzen duen habitatzeko amankomun eta osasuntsu baten aldeko diskurtsoa da, ahalduntze amankomun baten ortzi-muga marrazten duena.

Habitatzen diren hiri-espazio eta landa eremuak, ekoizpena ardatz izanik osatu eta antolatu diren guneak dira; ondasun orenen arpillatzea errazteko egituratu diren espazioak. Honen aurrean, hiriaren gaineko irakurketa feministak (2019) balioen funtsezko eraldaketa irudikatzen du: hirietako prozesuak, etekinetatik at kokatzen diren perspektibatik ikuskatu eta ulertzen ditu, hauen ebazpena kapital metaketa gainditzen duten lehentasunetatik gauzatu. Horretarako, espazio bat habitatzen duten pertsona eta errealitateen aniztasuna onartu behar delarik lehenbizi, gerora pertsonen bizitza orenen erdian kokatzeko.

Etenik gabeko hazkundearen ideia patriarkalaren aurrean, feminismitik errealitate desigual horrek gauzatzen dituen bortxak eta desorekak seinalatzen dira. Aniztasuna antzeman eta onartzean, berdintasun erreala gorpuztu daitekeelako: sistema ekologiko konplexu batean kokatzen diren pertsonen arteko zaintza-sarea aldarrikatu daitekeelako; elkartasunaren eta enpatia bitartez eratzten delako; eta denbora eta espazio errealearen —habitatu— defentsa egiten duelako, guztiaren aurrean bizitzaren zaintza bermatzeko. Horrela, hirigintza feministaren intersektionalitate irakurketak ikuskera zabal bat eskaintzen du gizonen, emakumeen eta subjektu ez bitarrak, espazioekiko duten habitatzeko esperientzia desberdinak aditzeko, espazio horietan ezarri diren artifizialki diseinatutako genero rolen ondorioz.

Horregatik, espazio artifizialak sortzen dituen, eta hazkunde infinituaren adierazpen fisikoa den egungo garapen urbanistikoa, geldiarazi behar dela defendatzen da. Feminismotik aldarrikatzen den planetaren eta pertsonen zaintza ez merkantilizatuak, etenik gabeko handitasun desira den mantra kapitalista zalantzan jartzen du. Zentzu honetan, kapitalismo neoliberalak aldarrikatzen duen pertsonen autonomia eredu, handitasun nahikeriara mugatua, beste gezur handi bat litzateke. Zeren eta gizarte kapitalista patriarkaletan, zaintzen praktikak gutxiesten dira autonomia horren aurka egiten dutelako, eta prisma neoliberaletik subjektu ahulak identifikatzen direlako.

Honen aurrean, interdependentziak izakiak bizitzeko besteekiko dependentzia beharraren inguruan antolatzen den espezie gisa irudikatzen ditu pertsonak; ez soilik jaioberriko lehen urteetako zaintzara mugatuta, baizik eta haien bizitza osoan zehar beharrezkotzat jotzen den zaintza kolektibo batean. Ongizatea kontsumoari lotu eta instituzio zein merkatuek aldarrikapen sozialak xurgatzen dituen bizitza eredu neoliberallean, beharrezkoa da kolektibo-sozialaren lehentasuna berrestea, hirigintza prozesuen aurrean pertsonen eguneroko bizitza erdigunean ezartzeko. Finean, sistema kapitalista patriarkal eta kolonialistak sortzen duen berdintasun eza transformatzeko.

Jabetza pribatuaren gainditzea ere beharrezkotzat ikusten da, bereziki guztiontzat asegarrria ez den etxebizitza ereduaren aurrean. Ildo honetatik, eguneroko erreprodukzio lanetan —arropak garbitzean, janaria prestatzean, atsegin ematean— komunak nola eraiki aztertu du Silvia Federicci-k (2018). Ekoizpen eredu kapitalistaren ustezko izaera progresiboa salatzearekin batera, ezagutzaren eta teknologiaren unibertsalizazioa ondare kolonial gisa irudikatzen ditu. Komunaren kontzeptua ulertzeko, harreman eta balio kapitalistak burutik kendu behar direla defendatzen du; komunaren eraikuntzak, jabetzarekin dugun harremana ez ezik, gure buruarekin eta besteekin ditugun harremanak ere adierazi ditzan. Zentzu honetan, borrokaren ondoriozko produktua da komuna, muinean, pribilegioarekiko mespretxua biltzen duena.

Era berean, «lan-balioaren» teoria giltzarriztat du Federicik kapitalismoa ulertzeko, zentzu batean, soldatapeko lana jendea banatzeko erabili duelako klase kapitalistak. Baina soldatapeko enpleguak beharrianak daudelako onartzen dira: pertsonen erreprodukzioa —hezkuntza, osasun zaintza, pentsioak— finantzaturik dago eta hau bermatzeko, soldatapeko lanari lotzen dira pertsonak. Baina era berean, erreprodukzio hau ahalbidetzen duten eta maiz etxeko espaziora mugatzen diren etxeko lanak, baliorik ez duten praktikak dira kapitalismoarentzat. Azken hauek, emakumearen botere gabetze espazio eta metatze-kapitalistaren prozesurako gakoa direla seinalatu du Federicci. Beraz, jabetza pribatua eta norbanakoaren goraiipamen neoliberalak gaitzetsiz, ondasun komun berreskuratze kolektiboaren eta sozialki zatikatze erabilitako baliabideen aurkako borroka kolektiboan txertatzen da komunaren aldarria; etxebizitzaren aldeko borroka azken arlo honetan txertatuko litzatekeelarik: «ez dago komunarik komunitaterik gabe, eta ez dago komunitaterik emakumerik gabe».

2. KONTROL GIZARTEAK ETA SUBJEKTIBOTASUNA

*"(...) tenemos, pues, dos grandes clases, los seres vivientes (o las sustancias) y los dispositivos. Y, entre los dos, en tercer lugar, los sujetos. Llamo sujeto a lo que resulta de las relaciones y, por así decir, del cuerpo a cuerpo entre los vivientes y los dispositivos"*⁷.

Bada dispositiboak, jakintza eta botere-harremanen arteko gurutzaketan sortzen dira hain justu. Horrela, jakintza-harremanetan aurkitzen den gozamina edo erabilera, botere-harremanetan jatorria duen dispositiboaren bitartekaritzaren bitartez eskuratzen da. *"El término dispositivo nombra aquello en lo cual y a través de lo cual se realiza una actividad pura de gobierno sin ningún fundamento en el ser. Por esta razón, los dispositivos siempre deben implicar un proceso de subjetivación, es decir, deben producir su sujeto"*⁸. Etxebizitza eredia kasu, zeina hainbat dispositibo osatuta dagoen bederen, haren gozamenaren bitartez subjektuak produzitzeko. Alegia, jabetza pribatua oinarri duen eredu honek, adibidez, lan-indarra saltzera behartutako subjektuak ekoitziko ditu etxebizitzaren erabilera ziurtatzeko; bizirauteko, beharizan ororen kontsumora bideratutako subjektuak produzitzen dituen bezala.

Zentzu honetan, kontrol gizarteak Mendebaldeko gizarte konplexuei erreferentzia egiten die, non dispositibo kantitate andana aurkitzen den eta pertsonen egunerokoa momentu oro dagoen errepresio mekanismoen bitartez baldintzatua. *"Fórmase entonces una política de las coerciones que constituyen un trabajo sobre el cuerpo, una manipulación calculada de sus elementos, de sus gestos, de sus comportamientos. El cuerpo humano entra en un mecanismo de poder que lo explora, lo desarticula y lo recompone"*⁹. XX. mendeko eraldaketa politiko, ekonomiko eta sozialei egokitzeko behararekin egituratu dira kontrol gizarteak, eta ikusiko den moduan, urbanizazioaren bitartez kontzienteki transformatu dira hiri-espazioak subjektibotasun hau errazteko.

Era berean, formakuntza sozial konkretu honen helburua, boterea praktikatzeko eskumena duten pertsona gutxi batzuek, beste guztiekiko duten mendekotasun-harremana mantentzea izanik, ez da harritzekoa, azken hamarkadetan militarismoan oinarritu diren aurrerapen zientifiko-teknologikoen gehiengoak merkatu kapitalistan amaitu izana; kontsumitzeko eskuragarri. *"Al enorme crecimiento de dispositivos en nuestra época, le corresponde así una también enorme proliferación de procesos de subjetivación"*¹⁰. Azken urteetako teknologia berri hauen

7 AGAMBEN, Giorgio: *Qué es un dispositivo. Seguido de El amigo y La Iglesia y el Reino*, Adriana Hidalgo, Buenos Aires, 2014, 18 or. Orrialde berdinean: *"(...) llamaré dispositivo literalmente a cualquier cosa que de algún modo tenga la capacidad de capturar, orientar, determinar, interceptar, modelar, controlar y asegurar los gestos, las conductas, las opiniones y los discursos de los seres vivientes"*.

8 *IBÍDEM*, 16 or.

9 FOUCAULT, Michel: *Vigilar y Castigar. Nacimiento de la prisión*, Siglo XXI, Buenos Aires, 2002, 126 or.

10 AGAMBEN, Giorgio: *op. cit.*, 19 or.

gaineko jakintza-harremanak, gainera, ez dira inoiz izan komunak, edo sozialak; hizkuntza, musika, lana, edo taberna izan zitezkeen bezala. Aurrerago ikusiko den moduan, teknologia hauen sorrera Mendebaldeko Estatuaren indarkeria mekanismoetan du jatorria; bada, egun kontsumitzeko merkaturarazten diren ordenagailu, kamera eta mugikorren gaineko jakintza-harremana botere-harremanean sortu delako¹¹.

2.1. Iraganeko irakaspena: haussmannizazioa

1871ko Parisko Komunak, botere-harremantatik kanpo zeuden espazioak sortu zituen, eta espazio kontra-hegemoniko horiek berriz sortu ez zitezkeen, «Hausmann Plana» deritzona aplikatu zuen Hausmann baroiak. Honen bitartez, «hiri zaharreko» kale estuak suntsitu ziren, etorbide handiengatik aldatuz; oro har, hiria fisikoki moldatu zen boterearen indar-armatuak mugikortasun eta eraginkortasun egokia izateko. *“Hausmann era un puñado de contradicciones: pensaba en lo público (sus alcantarillas subterráneas y sus bulevares pavimentados sustituyeron a los desagües de mierda y a las calles pantanosas), pero despreciaba a la gente real, (...) Hausmann lo veía todo como un deber divino, como un derecho natural a «expropiar por el bien de la utilidad pública»”*¹². Hausmannen obra arkitektonikoen atzean, hiria gerra-zibil batetik babesteko desira zegoen, klase-gatazkarekiko beldurrean islatzen dena. Horrela, Walter Benjaminek ondo jasotzen duen moduan, 1864an Hausmannek aporofobiaren aldarria egin zuen Parisko Ganberan, argi utziz bere klase apalarekiko gorrotoa. Beraz, garaiko praktika urbanistikoeak, pertsona masa honen zentrotik aldirietaranzko lekualdaketa behartua eragin zuen; Benjaminek trebeziak *bellissemment stratégique* —dotoretze estrategikoa— kontzeptuarekin irudikatu zuena¹³.

2.2. Hirigintza eta arkitektura indarkeriaren adierazle

Hausmannek, botere hegemonikoaren interesen arabera esku-hartzea irudikatzen du, zentzu mental eta materialean alegia. Bai pobreen aurkako diskurtsoak zein eraikitzen dituen bulebarrek, subejtubizazioa eragingo duten dispositiboak dira. *“La influencia de Hausmann en el urbanismo del S. XX ha sido enorme y sus propuestas pueden considerarse como una primera experiencia de «gentrificación» metropolitana, y un claro ejemplo de las lógicas propias de la estrategia de*

11 Hausnarketa honetatik abiatuta, jabetzako etxebizitzaren paradigma argitzera ekingo zaio aurrerago. Momentuz, beste dispositibo baten adibidea: *“(…) la cartografía se ha entendido como un dispositivo técnico que contribuye a fabricar espacio, la ciudad y la arquitectura como construcciones que se presentan en forma de artefactos, ensamblajes, máquinas y discursos que producen subjetivación”*. MESA DEL CASTILLO, Miguel: *Victimas de un Mapa, Arquitectura y Resistencia en el tiempo de la Cultura Flexible*, Tesis Doctoral Universidad de Alicante, 2012, 152 or.

12 MERRIFIELD, Andy: *La Nueva Cuestión Urbana*, Katakarak, Iruña, 2019, 79 or.

13 BENJAMIN, Walter: *Iluminaciones II. Boudelaire: un poeta en el esplendor del capitalismo*, Taurus, Barcelona, 1998, 187-88 orr.

clase según Lefebvre"¹⁴. Hiri-espazioa, etekin ekonomikorako espazio praktikoan bilakatzen da horrela: estetikoki zein militarri eraikitzeko berme kulturala bereganatuz. Eta espazio hau osatzen duten subjektuak, botere-harreman menderatzailen erreproduzioaren emaitza diren heinean, hiriko ehun-soziala osatzen duten arrazakeria, indarkeria edo aporofobia bezalako jokabideen erreproduzio norma-tiboa dakar.

Ildo ideologiko beretik, neoliberalismoarekiko arkitekturaren subordinazioa aztertu du Manfredo Tafuri-k (2007), alegia, materializatzen den klase nagusiaren abangoardia ideologiko gisa irudikatzen duena. Bada, alde batetik arkitektura praktikan justifikatzen direlako botere egituren diskurtsoak, eta bestetik, babeska eskaintzen direlako bitartekaritza demokratikorik gabeko botere praktika espazialei. Zentzu honetan, arkitektura «Estatuaren aparatu ideologikoetan» kokatu daiteke: ideologiaren bidez lotzeko duen trebeziarekin batera, indarkeriaren bitartekaritza bidezko dominazioa gauzatzen duelako. Honenbestez, pertsonak inguratzen dituen espazio fisikoa eraldatzean, boteretik igortzen den diskurtsoak bat egiten du jendeak hiri-espazioan antzematen duen errealtatearekin.

2.3. (Neo)hausmannizazioak sortutako parasito-hiriak

“Los parásitos del gobierno y los parásitos de los negocios se fortalecen entre sí como una infección y se alimentan del organismo «anfitrión», comiéndose a bocados la riqueza de todo el mundo, minando el cuerpo social, malgastando la capacidad regeneradora con actividades improductivas”¹⁵.

Parasito-hiriaren kontzeptualizazioak, egungo hiri-espazioei egiten die erreferentzia, zeintzuetan merkatu-balioak, erabilera-balioa aspaldi ordezkatu zuen. Bada, hirietako inbertsio soziala espekulazio urbanistikoan bihurtu, eta hiri-espazioak biltzen dituen baliabide oro, ondasun espekulatibo pribatuan transformatzen ari dira. Horrela, bloke-hegemonikoak berdin biltzen du botere finantzarioa, korporatiboa eta Estatu boterea, apenas nabaritu daitekeelarik haien arteko desberdintasuna. Hau adibidez, espainiar Estatuko politikariek hainbatetan egin duten politikatik enpresa energetikoetarako jautsian irudikatu daiteke, edo hiria transformatzen duten higiezin enpresetako partaidetza-loturan¹⁶. Zentzu honetan, parasito-hiria kapitalaren abstrakzioaren bitartez menderatzen den espazio-habitatua

14 MESA DEL CASTILLO, Miguel: *op. cit.*, 155 or.

15 MERRIFIELD, Andy: *op. cit.*, 14 or.

16 BAUTISTA, José: Las puertas giratorias de Iberdrola, *La Marea*, 2018/05/17 (azken eguneratzea 2020/10/01). Iberdrola enpresa energetikoa ardatz, bertatik pasa diren eta dauden politikarien eta bestelako elite kapitalistako pertsoniak identifikatzen ditu artikuluak. Era berean, enpresaren jatorrian frankismoak jokatu zuen honen aldeko papera azpimarratzen da, zentzu batean, higiezin merkatua hedatzeko esku-hartzea sustatu zuen bezala; biek baitute jatorrian frankismoarekiko laguntasun harreman estu bat.

Online: <https://www.yoibextigo.lamarea.com/informe/iberdrola/quienes-son/puertas-giratorias-iberdrola/> (2021/07/20).

da; Mendebaldeko klase kapitalistaren bizileku idealizatua eta ez edukien eguneroko biziraupenerako gatazka-espazioa. *“El crecimiento (especialmente el crecimiento urbano) nunca había dependido tanto de la creación de nuevos mecanismos para gestionar el capital financiero y los créditos, de nuevos dispositivos desregulados, suscritos por el Estado, para saquear y absorber el excedente de capital a través de la especulación inmobiliaria. Hoy en día, la acumulación de capital no depende tanto de la producción como de la desposesión, de la expropiación (...)”*¹⁷.

Gizartearen gaineko kontrol mekanismo modernoago hauek, Haussmann baroiak garatu zituen aldaketa urbanistikoetan nabaritu zituen jada Walter Benjaminek, zeinek aipatzen duen espekulazio loraldi batean barneratu zela Parisko hiria Haussmanen esku-hartzearen ondorioz¹⁸. Bada, hiriarekiko esku-hartze artifizialak, espazio publikoen eskasia areagotzeaz gain, lurraren gaineko prezioa handitzen du. Baina «guztientzat egokiena» denaren diskurtsupean, berrurbanizazio prozesuak sustatzen dira behin eta berriz; arlo politiko-judizialek, esku-hartze hauek arautu eta hurrengo proiektuetarako jarraibideak sortzen diren bitartean. Atzera begira, XIX. mendeko hiriekiko prozesu espekulatiboa, globalki hedatu zen Mendebaldeko kolonialismo inperialistaren bitartez inposatu zen. Alabaina, ustiapen eredu honek, botere-harremanak erreproduzitzeaz haratago, klase apala —ez-emankorra— hiriko erdigunetik periferiarantz deslokalizatzen du gerora, berezkoak diren bizi-baldintzen gogortzea eta zerbitzu publikoen eskasiara baldintzatuz.

2.4. Indarkeria subjektiboa eta objektiboa

Ilatzian zehar, indarkeriaren erabilerari egingo zaio maiz erreferentzia, hala-ber, indarkeria hori pairatzen duen gehiengo sozialari bezala; horregatik, funtsezkoa da hau zehaztea. Bada, gizarte garaikidetako indarkeriaren inguruan, Slavož Žižek-ek (2009) bi ereduren arteko bereizketa proposatu zuen: indarkeria subjektiboa eta objektiboa. Indarkeria subjektiboa, agerizko itxuran aurkeztu eta ordena publikoan asaldura eragiten duen indarkeria eredia da; baina indarkeria objektiboak gauzatzen duen biolentzia, ordea, ez da zuzenean antzematen, ez baita pertsonala, soilik indarkeria eredu subjektiboari bidea prestatzen dion, eta biktima kantitate handien duen eredia dela¹⁹. Horrela, biolentzia objektiboa indarkeria sinbolikoan eta sistematikoan bereizten da: sinbolikoa lengoaiaren bitartez gauzatzen

17 MERRIFIELD, Andy: *op. cit.*, 132 or.

18 BENJAMIN, Walter: *op. cit.*, 187 or.

19 Žižeken iritziz, indarkeria objektiboa sistema kapitalista beraren baldintza da eta hortaz, indarkeria subjektiboaren erantzule nagusia: *“Es ahí donde reside la violencia sistémica fundamental del capitalismo, (...) esta violencia ya no es atribuible a los individuos concretos y a sus «malvadas» intenciones, sino que es puramente «objetiva», sistémica, anónima. Aquí se halla la diferencia lacaniana entre la «realidad» y lo «real»: la «realidad» es la realidad social de las personas concretas implicadas en la interacción y en los procesos productivos, mientras que lo «real» es la lógica espectral, inexorable y «abstracta» del capital que determina lo que ocurre en la realidad social”*. ŽIŽEK, Slavož: *Sobre la Violencia. Seis reflexiones marginales*, Paidós, Buenos Aires, 2009, 23-24 orr.

da eta sistemikoak, sistemaren indarkeriari egiten dio erreferentzia. Bereziki interesgarria da azken indarkeria ikuspegi hau; normalitate sistematikoa eta estrukturalaz hornituta antzemanezin bilakatzen den eredu globala baita.

Žižeken ustetan, arreta gehiago eskaini beharko litzaioke azken honi, hau aztertu eta azaleratzeko; soilik, pertsonak adi daudela boteretik ekoizten diren biolentzia eredu subjektiboei, bideo eta argazkien bitartez hedatzen direnak, pertsonen momentuko asaldura eragiteko. *“En primer lugar, anatemizar la violencia, condenarla como «mala» es una operación ideológica por excelencia, una mistificación que colabora con la invisibilización de las formas fundamentales de la violencia social”*²⁰ Bien bitartean, munduan zehar hedatzen diren korporazio multinazionalak, adibidez, pertsonen egunerokoaren gainean inplizituki indarkeria objektiboa gauzatzen dute. Monopolio erraldoi hauek lan-prekarioaz eta soldaten beherakadaz baliatzen dira merkatu kapitalista lehiakorrean egonkortzeko, pertsonen egunerokoa biziraupen erronka batean bihurtuz. Berdin gertatzen da ere etxe kaleratze arriskuan aurkitzen diren pertsonekin, adibidez, zeintzuk sekulako ziurgabetasunez —eta beldurrez— garatu behar duten eguneroko bizitza. *“A mayor intolerancia hacia formas de violencia subjetivas, mayor opacidad y mayor desarrollo de las acciones violentas objetivas”*²¹.

2.4.1. Beldurraren diskurtsoa, austeritatea eta militarizaturiko hiriak

*“En la sociedad capitalista global, el control se ejerce por medios menos visibles pero igualmente eficaces como la construcción del miedo, la obsesión por la seguridad, la vigilancia permanente y la pérdida del espacio público”*²².

Beldurraren diskurtsoa bloke-hegemonikoan sortzen da, eta oro har, klase berekoen arteko gatazka sustatzea du helburu. Horrela, Mendebaldeko kontrol gizarte konplexuen etsaiak migratzaileak dira, normalizatutako harreman-soziale-tatik at geratzen diren baztertuak, okupak, «terroristak», etab. Hau da, sistemak erreproduzitzen dituen harreman-sozial desorekatuen emaitza diren pertsonak, eta era berean, subjektibotasun mekanismoen menpe dagoen klase bereko subjektu alienatuen etsaiak. Zentzu berean, beldurraren diskurtsoaz baliatzen den beste indarkeria sistemikoa austeritatea da. *“La austeridad es la ideología de la clase dominante, el consentimiento fabricado, música para los oídos del Banco Central Europeo y las burguesías compradoras de varios países europeos”*²³. Etorkizun ezezagun baten aurrean, austeritateak beldurra eta erruduntasuna eragin nahi ditu klase apalengan, nahiz eta diskurtso hegemonikoak irudikatu ohi dituen austeri-

20 ŽIŽEK, Slavoj: *op. cit.*, 244 or.

21 MESA DEL CASTILLO, Miguel: *op. cit.*, 228 or.

22 *IBÍDEM*, 403 or.

23 MERRIFIELD, Andy: *op. cit.*, 215 or.

tate politiken atzean, etekin ekonomikoen pribatizazioa eta galeren sozializazio paradigma aurkitzen den. Hau da, gutxi batzuen sakelak diruz betetzeari utzi bezain laster, pertsona guztiek pairatzen dute austeritate politiken indarkeria.

Austeritatea bada inposatzen den ideologia, ekoitziko dena subjektu konformistak izango dira: klase-baldintzekiko konformistak izango direnak, alegia; bizi-raupena bermatzeko soldatapeko lana hartzera behartutako pertsonak, eta aldi berean, Mendebaldeko gizarte oparoen kontsumo kulturalen parte-hartu behar dutenak egunerokoa garatzeko. Azken batean, bizitzeko premiazkoak diren ondasunen ustiapena eta erabilera kolektiboak, botere-harremanek baldintzatzen dituzte: zeren eta botere-klasearen araberrako bizitza eredia inposatzen den bitartean, klase apalaren baliabide urritasunera mugatzen da pertsonen gehiengo bat. Gainera, aukera askerik ez da espazio absolutuan ideologia hegemonikotik kanpo bizitza garatzeko, eta garatzekotan, tokian tokiko kontrol-gizarteen etsai bilakatu da bat.

Testuinguru honetan, subjektuek osatzen duten hiri-espazioa goitik behera arautua, kontrolatua eta militarizatu dago gaur egun. Stephen Graham²⁴ geografoak proposatu duen moduan, gatazka militarreko eremuetan aplikatzen diren mekanismoak, hirietako espazio-egituretara lekualdatzeari ekin zaiolako. Zentzu honetan, gerran testatu eta hobetutako teknologiak atxikitzen ari dira eguneroko espazioetara, hauek zaintza eta kontrol sistema gero eta konplexuagoak osatzen dituztela. Hiriko espazioen gaineko militarizazioa, bost oinarriren bitartez ahalbidetzen da Grahamen iritziz: «segurtasunaren» urbanizazioaren bitartez; gerra kolonialeko testuinguruetan gauzatutako esperimentazioaren orokortzearen bitartez; zaintza-ekonomiaren gorakadagatik —segurtasun enpresak, alarma sistemak, etab.—; azpiegitura sareek duten ahultasuna aprobetxatuz; eta militarizazioa legitimatzen duen entretenimendu industria popularrarekiko —*mass media*, Hollywood, bideo-jokoak, etab.— fusioaren bitartez. *“La guerra, desde el punto de vista dominante, es una respuesta just-in-case, una iniciativa que consiste en atacar primero y preguntar después, una rama de la «democracia» que necesita construir su propio enemigo: los terroristas. Guy Debord ya lo confirmó en 1988: «[La democracia] quiere ser juzgada por sus enemigos antes que por sus resultados (...)”*²⁵.

3. JABETZAKO ETXEBIZITZAREN KULTURA ESPAINIAR ESTATUAN

40. hamarkadarako, espainiar hirietako biztanleriaren gehiengoak, hiri handietako zein eskualdeko hirietakoak, alokairuaren bitartez mantentzen zuen etxebizitza. XXI. mende hasierarako ordea, Estatuako etxebizitza parkearen % 11,5 soilik aurkituko da alokairu erregimenean, 2001eko Estatistika Institutu Nazionalak kale-ratutako etxebizitza eroldaren arabera. Bada 1950an, 6.287.000 etxebizitza zenbatzen dira Estatu espainiarrean, zeintzuetatik 5.958.700 aurkitzen diren okupatuak;

24 GRAHAM, Stephen: *Cities Under Siege: the new military urbanism*, Verso, Londres, 2011.

25 MERRIFIELD, Andy: *op. cit.*, 125 or.

1970rako, erroldak 10.655.00 etxebizitza erregistratzen ditu, eta 8.504.300 etxebizitzek biltzen zuten jendea. Hogei urteko tarte honetan, Espainiako etxebizitza-parkea % 69,4 hazten den bitartean, etxe habitatuak hazkundea % 42,7 da; lurraren gaineko ustiapena lehenestearen ondorio zuzena.

1950an, etxebizitzaren % 20 jabetzako etxebizitzak ziren; 1960an, % 43; eta 1970rako, garaiko Europa osoko portzentaia altuena zen % 70. "(...) *esta misma Europa no se incorporó a la preferencia por la propiedad de la vivienda social hasta la crisis del petróleo de los años setenta del siglo XX, cuando la ideología dominante de las burocracias públicas comenzó a virar del Estado benefactor al neoliberalismo*"²⁶. 2001erako, lehen-etxebizitzaren % 88,5 jabetzako etxebizitzak ziren espainiar Estatuan. Bada, hogeita hamar urte hauetan 18,5 puntu hazten den bitartean jabetzako etxebizitzaren joera, 1950-1970 urteen artean 50 hazi zen; dudarik gabe, intentsitate handiko denbora-espazioa adierazten duena.

Hala ere, kontuan hartzekoa da gerra zibil osteko urteetan eman zen landa-exodoa, zeinak pertsona-masa handia lekualdatu zuen Estatuko metropolietara. Horrela, 1950erako Estatuko biztanleriaren —28.172.268— % 40 inguru, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi zen; 1970erako aldiz, 34.041.531 biztanle soilik % 20 bizi zen 5.000 biztanle, edo gutxiagoko, udalerritan. "*No solo había crecido la población, sino que más de 6 millones de españoles habían emigrado a municipios más grandes; y tres millones, entre 1957 y 1970, habían emigrado al extranjero. Estas migraciones creaban una necesidad abrumadora de nuevas viviendas, y en parte, dotaron los recursos para edificarlas*"²⁷.

Etxebizitzaren eraikuntza sistemikoak, lehen begiradapean, exodoak mugiarazitako jende-multzoari etxea eskaintzeko martxan jarritako mekanismoari erreferentzia egiten diola ulertu daiteke; handituko den lan-eskariari eraikuntza alorrean sortuko diren lanpostuekin erantzungo zaion bezala. Horrela, 1943 eta 1944ko erregimen frankistaren lehen etxebizitza planak, langabezia borrokatzeko lanpostuen eskaintzaz dihardute, etxebizitzaren eraikuntza orokortuaren bitartez. Baina eraikuntza sektorearen atzean dagoen kapital-metatzearen xedea, agerikoa egiten da 1982tik aurrera, sozialdemokraziaren diskurtsupean garatuko dena. Bada, etxebizitzaren mito falangistatik urrun ez dagoen ongizate estatuaren ideiak, lurraren gaineko ustiapen gero eta intentsiboago bat proposatzen du, gerora, bide emango diona XXI. mendeko higiezin burbuila eta neoliberalismo basatiaren botere meta-keari. Alegia, 1997tik 2007ra, Aznarren eta Zapateroren gobernuak lurraren gaineko ustiapen bortitza bere horretan mantendu zuten, intentsiboago ere bihurtuko zutelarik²⁸.

26 CANDELA, José: *La política falangista y la creación de una cultura de propiedad de la vivienda en el primer franquismo, 1939-1959*, Tesis Doctoral, Universidad de Valencia, 2017, 6 or.

27 CANDELA, José: *op. cit.*, 7 or.

28 *IBÍDEM*, 7-8 orr.

3.1. Foucaulten gertakaria analisirako ardatz

Foucaulten dialektikari dagokion «dispositiboak» hiru ezaugarri bete behar ditu: elementu heterogeneoak bildu, sare batean egituratu eta botere-harremanetan desorekak eragindako emergentziak bultzatuta martxan jarri. Bada ere azken kontzeptu bat, dispositiboarekin erlazionatuta, hurrengo lerroetako analisian irudikatuko dena eta Foucaultek gertaera -«acontecimiento»— deritzona²⁹. *“El acontecimiento se produce cuando en el sistema de los equilibrios de poder hay algo que deja de funcionar y se inaugura un nuevo discurso, o se modifica y actualiza un discurso antiguo”*³⁰. Gertaerak, botere-harremanen aldaketa bat adierazten du, larrialdia sortzen duena dispositiboa martxan jartzeko; botere eta jakintzaren bitarteko dominazioa birdoitzea helburu izango duena. Orduan, gertakariak dispositiboa aktibatzen du, zeinak biltzen duen intenzionalitateaz iragana eguneratzen duen, oraina eta etorkizuna baldintzatuz.

Horrela, aztertu nahi den gertaera frankismoan txertatzen den paradigma da, eta jabetzako etxebizitza lehenestearen jatorri kulturalari egiten dio erreferentzia. Izan ere, etxebizitza izateko eta habitatzeko egungo eredu normalizatua 1950-1970 urteen artean instituitu zen pertsonen iruditerian, eta espainiar Estatuan etxebizitzarekiko ikuspegia erabat mugatzea ekarri du. Bada, gerra zibilak desorekatutako botere-harremanak orekatzearen bidetik, erakutsi nahi da jabetzako etxebizitzaren kultura, diktadura frankistak martxan jarritako subjektibotasun mekanismoei egiten diela erreferentzia, eta ez, soilik momentuko etxe behararen problematika konplexuari. Gerraosteko urteetan, pertsona masa handi batek landa eremu desolatutik hirietaranzko bide behartua hartu zuen, eta aldi berean, erregimenetik etxebizitza eredu sinboliko baten diskurtsoa osatuz joan zen; zeinaren atzean, erregimenarentzat eta nazioarentzat obedienteak izango ziren subjektuak sortzeko nahia aurkitzen den. *“(…) los procesos políticos estuvieron marcados por la magnitud de la Victoria de 1939, la cual alimenta en el nuevo Estado la convicción de que puede reeducar a las masas republicanas, convirtiendo el país en un inmenso reformatorio. (...) Las pautas de conciliación y subordinación se legitimarán mediante la difusión de la propiedad y la división patriarcal del trabajo familiar”*³¹.

Zentzu honetan, gerraosteko lehen hamarkadetan botere-harremanak orekatzaren diren testuinguruan, jabetzako etxebizitzaren inguruan sortzen den diskurtso antolatua eta ideologikoak, irakaskuntza diziplinatura bideratutako dispositibo gisa jolasten du, eta etxe beharra duten pertsona masa erraldoi baten gainean inposatzen da. Mito falangistaren arabera, jabetzan oinarritutako familia patriarkalen etxebizitzak, klase-gatazkarekiko baldintza gaituzko zuten, klasearteko auzo falangisten egituraketaren bidez. Baina biztanleriaren gehiengoa osatuko duten langile-familiak, bortxazko erlazio jarraitu berean jarraituko zuten edonola ere; nahiz eta langile izaera iruditerian lausotu, euren lan-indarraren salmentaz baliatu

29 Testuan zehar, gertaera edo gertakari euskarazko terminoekin egingo zaio erreferentzia.

30 MESA DEL CASTILLO, Miguel: *op. cit.*, 122 or.

31 CANDELA, José: *op. cit.*, 391 or.

beharko zirelako etxebizitza —eta biziraupena— bermatzeko. Halaber, frankismoan garatu zen higiezinaren industriak, lurraren ustiapen basatirako merkatu berri bat zabalduko zuen gerora, eta 1975rako diktadura itxuraz desegiten bada ere, obren bitartezko lurraren gaineko ustiapen praktikak, kredituen zabaltze masiboa, eta parasito-hirien ugaltzea ekarriko dute.

3.2. Botere hegemoniko berria

Estatu-kolpe frankistak eta gerra zibilak, botere-harremanak desorekatu zituen espainiar Estatuan, baina jada 1950-1970 tarterako, erregimen frankistaren hegemonia absolutua da espainiar Estatu osatzen duen espazioarekiko; hau bloke-hegemoniko gisa finkatu daitekeela. Bere baitan biltzen zituen: erlijioa, indar armatuak, hezkuntza, eta ekonomia, nahiz eta hauek maiz autonomikoki jardun blokearen barruan. Funtsean, ideologia frankista da arlo hauetako bakoitzaren atzean antzematen dena, Althusserren Estatuaren gailu ideologikoei erreferentzia eginez. Erregimen frankistaren hegemonia, zentzu honetan, oraindik ere antzeman daiteke egungo eremu eta pertsonen jokabide askotan; horregatik esan da «dispositiboak» oraina eta etorkizuna baldintzatzen dituela, alegia.

3.2.1. Komunitate nazionalaren mitoa

Gerraosteko egoera soziala, beraz, lazgarria zen Estatu osoan zehar, baina diktadura frankista zinez kezkatzen zuena komunitate nazional baten sorkuntza zen; zeinaren barruan ulertu behar den jabetzako etxebizitzaren paradigma. Errepublikak garaiak bildu zituen langile ideologiekin identifikatuak sentitzen ziren pertsona masa handi batek habitatzen zuen oraindik espainiar Estatu. Baina ideologia hauek, ez zuten tokirik egituratzen ari zen espazio-absolutu berrian, erregimenak miresten zuen komunitate nazionalaren etsaiak zirela sinesteraino. Bada, estatu-aparatuen bitartekaritza lanak funtsezkoak izan ziren ideologia hauek pertsonen iruditerian kriminalizatzeko, eta hauen jarraitzaileak inpunitate osoz deuseztatzeko. Zentzu honetan, berreziketa prozesu diziplinatu eta bortitza jarri zuen erregimen frankistak martxan, katolizismoaren eta faxismoaren arteko sinbiosi ideologiko batean. Izan ere, hurrengo eskemaren bitartez antolatu nahi zuen komunitate nazionala: familia patriarkalak auzo nazional-sindikalistetan batuko ziren, tokian-tokiko udalerrak sortuz; gizonezkoek nazional-sindikalismoan parte hartuz haien eguneroko lana burutuko zuten, familia mantentzeko; emakumeak etxeko espaziora mugatuko ziren, haurren hezkuntzaz eta balio-hegemonikoen transmisioaz arduratuz.

Alegia, menderakuntza eta gerraosteko adiskidetze sozialaren izaera patriotikoa zabaldu nahi zen eskema hierarkiko eta diziplinatu honen bitartez; hau da, kultura-hegemoniko berriak adiskidetasun nazionalen oinarritutako subjektuak ekoitzi nahi zituen. Horretarako, jabetzako etxebizitzak sekulako papera jolastu zuen estrategia frankistan: propietate pribatuaren instituzioa indartzearekin batera, erregimenaren balio ideologikoak erreproduzitzera bideratuko zen etxea. *“Vertida sobre una sociedad vencida y desmoralizada por la miseria de posguerra,*

la propaganda falangista del «mito» de la vivienda en propiedad, buscaba crear una imagen poderosa, un símbolo que definiera los nuevos tiempos y fuera capaz de fijar hábitos y recursos, en y para las gentes; pautas sobre la forma en que los españoles concebirían la vivienda urbana; seguridades que orientaran las conductas y dieran estabilidad al sistema social que se quería perpetuar, consolidando una cultura de los derechos de propiedad que no fueran percibidos como derechos económicos, sino que se configuraran en las mentes populares de acuerdo a unas convicciones de estabilidad familiar”³². Baina diskurtso honek biltzen dituen interres ideologikoei erreparatuz gero, egonkortasun familiarraren ikurren atzean botere-harremanen egonkortzea dagoela ikusiko da.

3.2.2. Etxebizitzarako sarrera «soziala»

Ikusiko den moduan, jabetzako etxebizitzaren kultura etxebizitza-sozialaren bitartez sustatu zen hasieratik, eta hauen esleipena, Etxebizitza Instituto Nazionaletik zein beste hainbat instituziotik gauzatu zuen erregimen frankistak. Onuradunek, alokairuan jasotzen zuten etxebizitza, euren jabetzara transferitzeko etorkizuneko aukerarekin. Lehenik burgesiari, Estatu funtzionarioei —militarrak eta poliziak batez ere— eta sindikatu frankistetara afiliatutako langileriari esleitu zitzairen etxebizitza. Ondoren, hirietako periferiatara baztertutako proletariotzari, zeina landa eremutik migratutako langile familiek osatzen zuten hein handi batean. Erregimenak biltzen zuen izaera absolutuaren bitartez, praktika hauek propaganda mekanismo handi batekin aritu ziren momentu oro elkarlanean. Zentzu honetan, botere hegemonikotik hedatzen ziren diskurtsoetan ikusiko da, jabetzako etxebizitzaren aldarrikapena, frankismoaren nazio eta balio-katolikoen nahasketatik sortutako diskurtsoaren bitartez egiten zela. Horrela, ideologia-hegemoniko baten irakaskuntza prozesu diziplinatu bat aurkezten da, jabetza pribatuan oinarritzen den etxebizitza eredu bakarra zehaztu, eta pertsonen gaineko bortxazko ikaskuntza inposatzen duena.

3.3. Erregimenaren botere mekanismoak

Bloke-hegemoniko frankistak, hainbat botere egitura biltzen zituen bere baitan, bakoitzak bere esparruaren gaineko autonomia defendatuz. Halaber, agerikoa zen barne-lehiakortasun batean murgilduta zeuden, erregimenaren begi ona bereganatzeko. Egitura hauek, bi esparru ideologikoren inguruan biltzen ziren: alde batetik, nazional-katolizismoaren blokea dago, zeinak balio arkai-koen defentsa zurruna gauzatzen zuen modernitate kapitalistarantz zihoan gizartean³³; bestetik, Falangeren sindikalismo nazionala kokatzen da, Lan Ministeritza

³² *IBÍDEM*, 77 or.

³³ Frankismoak italiar diktadura faxista eta Alemania nazien babesa galdu zuen Bigarren Mundu Gerra ostean. Erregimenak erretorika faxista alboratzen zuen heinean, nazional-katolizismoak Aliatuekiko eta Europako demokrazia kristauekiko gerturatzea ahalbidetuko zion; muinean egitura faxista berdinak jarraitzen bazuen ere.

edota Erakunde Sindikala bezalako instituzioak biltzen zituen, eta ezinbestekoak izan zirenak kontrol soziala bermatzeko. Egitura hauen arteko norgehiagokaren aurrean, erregimenak hedatzen zuen jabetzako etxebizitzaren ideiak, instituzio lehiakide hauen osagai ideologikoak batzen zituen. *“La promesa de una Vivienda en Propiedad para todos los españoles, fue un elemento crítico del arco ideológico falangista, tanto en su componente político institucional: familia, sindicato y municipio; como de sus instituciones culturales: familia patriarcal; mujer madre y esposa, y valores católicos, y del discurso social: superación de la lucha de clases; igualdad dentro de la jerarquía; interclasismo urbano, justicia y paz social. El «mito» de la vivienda en propiedad brotaba del discurso franquista e iba dirigido a la mente de las clases medias y populares de la época”*³⁴.

Kultura hau hedatzeko, eskura zituen difusio baliabide oro erabili zuen frankismoak, aipagarriak izan zirelarik José Antonio Girón Lan Ministroa eta Jose Luis de Arrese idazkari nagusiaren diskurtso populistak. Hain zuzen, Arreseren iritziz tradizioan kohesionatutako oinarri hirukoitzean osatu behar zen hirietan egitura-tzen ari zen gizartea: familia, propietatea eta herentzia. *“La herencia familiar es el ahorro del trabajo transmitido por el cariño. Esas (la familia y la herencia) son las que, como una expresión de la propiedad privada, declaramos sagradas”*³⁵. Bada, nazional-katolizismoak baldintzatuta, jabetza pribatua instituitzen ari zen familiaren irakurketa katolikoan oinarritzen zen; familia patriarkal sinbolikoak, jabetzaren instituzioa justifikatzea bilatzen baizuen, eskubide naturala izan beharko lukeena eta herentzian igorgarria. Horrela, 40. hamarkadako Etxebizitza Legeek, instituitu nahi zen familia eredia propietate pribatuaren ideologiaren baitan barneratzen zuten³⁶.

3.3.1. Katolizismoa ideologia aparatu gisa

Nazional-katolizismoaren balioek zehaztu nahi zuten espainiar Estatu frankistan eratzten ari zen gizarte eredia. Katolizismoak biltzen zuen kultura sinbolikoa, oraindik gertukoa zitzaion landatik iritsitako pertsonen gehiengo bati, subjektibotasun prozesua arindu zezakeena. Gainera, kontuan hartzen bada landa eremutik migratutako pertsonak, orain gutxi arte jasan zutela Elizaren landako opresio zurruna, inposatzen ziren arau kulturalen aurretiko ezagutza-praktiko orokortua dakar. Hain zuzen ere, zaugarritasun kolektibo testuinguru honetan ulertu behar da erlijio katolikoaren manipulazioaz osatzen zen diskurtso interesatua. *“(…) se puede definir la religión como aquello que sustrae cosas, lugares, animales o personas al uso común y las transfiere a una esfera separada. No sólo no hay religión sin*

34 CANDELA, José: *op. cit.*, 44 or.

35 ARRESE, 1940, 222 or., hemen aipatua *IBÍEM*: 87 or.

36 *“Podemos ver en las Leyes de Vivienda de los primeros cuarenta un discurso sobre la propiedad privada, íntimamente ligado a la familia patriarcal; unidad básica, en la cual las necesidades las define el padre de familia, protector del hogar que es cuidado por la mujer, administradora y educadora del ámbito familiar”* CANDELA, José: *op. cit.*, 87 or.

separación, sino que toda separación contiene o conserva en sí un núcleo genuinamente religioso. El dispositivo que acciona y regula la separación es el sacrificio"³⁷. Hortaz, frankismoan bizitza garatzeko espazioak kutsu erlijioa biltzen zuten erri-tualez beteta zegoela esan daiteke, eta haietatik garrantzitsuena den sakrifizioak, sufrimenduaren bitartezko bizitza onartzera bultzatzen zuela. Ideologia hau, gerra bortitz batetik zetozen pertsonen gainean inposatzen zen, eta subjektibotasun prozesuan, hauek nolabait suspertzeko, ezaguna eta gertukoa zitzaizen sinbolismo kultural katolikoa eskaintzen zitzaizen.

3.4. Subjektuak ekoizten

Gerraostean zehar, emakumeak isolamendu handia pairatu zuen familiaren etxe-espaziora mugatuta, gainera, familien eremu pribatuarekiko pribatutasuna areagotu zuen frankismoak. Emakumearen lan-indarra, beraz, are ikusezinago bihurtzen da gizartearen begitan, eta etxeko esparru sinbolikoaren subjektu, erregimenaren diskurtsoarekiko gertutasun sentsazioa erreala dela sustatu nahi da. Izan ere, ideologia-hegemonikoaren dominazioa, diskurtso frankistak araututako jokabi-deak jarraitzean erreproduzitzen zen. *"La radio era un altavoz que hablaba directamente a las mujeres, recién llegadas a la ciudad, de la felicidad y del alcance de sus deseos y aspiraciones. Solo desde ese punto de vista se puede comprender la conexión del melodrama franquista con la sensibilidad popular, que tras la derrota popular en la guerra civil y el obligado repliegue en la privacidad, encontró una fácil concordancia con los símbolos asociados a una concepción tradicional de la mujer, (...)"*³⁸. Baina aldi berean, kontuan izan behar da gizonezkoek emakumeekiko mantentzen duten dominazio posizioa, guztiz baldintzatzen duena erreproduzizio lanen doako praktika; alegia, soldatapekoa eskuratzeko eskumenaren bitartez, emakumeekiko nagusitasuna berresten delako³⁹.

Bestalde, langile izaeraren gaineko subjektibotasuna da botere mekanismo frankistek jorratu zuten beste diziplina prozesua, langile-klasearen deformazio identitarioan itzultzen dena. Horretarako, haren lan-indarra saltzeko baldintzaz ahantzarazi nahi zaio, garrantzitsuagoak iruditu beharko zaizkion interesak eskaintzearen bitartez. Jabetzako etxebizitzak, adibidez, hiriaren partaide sentiaraziko zuen landatik iritsitako langile-familia bat; era berean, bizitzeko beharrezko espazio moduan, zentzuzko erosketa iruditu zitekeen hau ere. *"(Queremos) la redención*

37 AGAMBEN, Giorgio: *op. cit.*, 22 or.

38 CANDELA, José: *op. cit.*, 391 or.

39 *"Izan ere, jarraitutasun bat dago etxean egiten den lan-indarraren erreproduzizioaren balio-gutxitzearen eta kapitalismoak eremu kolonizatueta eraiki dituen lantegi ugarietan egiten den lan ordainduaren balio-gutxitzearen artean. Bi kasuetan, lan-moldeak eta indarkeria naturalizatu egin dira, (...) erakusten dutenak klase kapitalistak zeharkako aginte-sistema bat erabili duela botereari eusteko, langile-klasea modu eraginkorrean banatuz eta soldata erabiliz gizon langile soldatapekoei soldatarik gabekoen gaineko boterea emateko; hasteko, emakumeen gorputzen eta lanaren gaineko kontrola". FEDERICI, Silvia: *Mundua berriz liluratuz. Feminismoa eta komunen politika*, Katakarak, Iruñea, 2019, 226 or.*

del proletariado, un cambio de dueño capitalista en dueño trabajador, cambio conseguido no con el robo, sino con la ascensión a la propiedad por medio del camino honrado del trabajo (...). El hombre tiene derecho a una religión, a una patria, a una familia, a una propiedad, que son patrimonio común y principios inconmovibles de la vida"⁴⁰. Era berean, kontuan hartzekoa da etxebizitza «izateko» ezagutu zuten eredia, frankismoaren diskurtso bakarrak zehaztu zuela, beste alternatibarik ezagutzeko aukerarik gabe.

3.5. Hiri-espazioetako bizilekua antolatzen

Frankismoak, lan-indarraren eta ideologia-hegemonikoaren erreproduzio esparruan finkatzen zuen familiaren ekimena, eta erregimenaren politika sozialak familiaren instituzioa babestera bideratzen baziren ere, kontrol-diziplinatu baten presentzia —hautemanezina— zabaldu zuen pertsonen egunerokoan. Ez da ahaztu behar, halaber, Estatu barruan bi milioi pertsonak migratu zutela 1940 eta 1960 urteen artean⁴¹; gerraosteko beldurrak eta beharrak eragindako hirietaranzko migrazio masibo honek, hiri-espazioak birplanifikatzea ekarriko zuen, edo beste era batean esanda, etorkizuneko kontrol-gizarteak bilduko zituen hiriak antolatzeari ekin zitzaion. "*(...) las prácticas relacionadas con el espacio y con la organización de la vida social como la arquitectura, están directamente involucradas en los procesos violentos de dominación y explotación*"⁴².

1957an Arresek «*no queremos una España de proletarios, sino una España de propietarios*» eslogana zabaldu zuenean, argi uzten zuen momentura arteko erregimenak landutako estrategia langile-klasearen deuseztapenetik hasten zela. Jabetzari, nazional-katolizismoak biltzen zuen sinbolismoa gehitu zitzaion, langile-riaren menpekotasun baldintza ahantzazteko. Horrela, langile-familiak jasotzen zuten etxebizitza mantentzera eta defendatzera animatzen zitzairen, etorkizunean haien jabetzakoa egiteko eta lan-harremanen mendekotasunean bizitzeko. Hemen adibidez, etxebizitza eta jabetza pribatuaren inguruko 1966ko Arreseren azken diskurtsoa Etxebizitza ministro bezala:

"V. HOGAR, PROPIEDAD PRIVADA: La propiedad privada del hogar es el mejor procedimiento para la realización de las virtudes que en él se condensan: es, además, uno de los medios mejores para levantar, sobre el grito melancólico de las masas proletarias que nada poseen, el himno de gloria que entonan las masas cuando se hacen propietarias de las cosas que constituyen su entorno.

40 ARRESE, 1940, 12 or., hemen aipua CANDELA, José: *op. cit.*, 103 or.

41 Beste bi milioik, erbestera bide behartua hartu zuten 1936 gerotzik, Frantzia eta amerikar kontinentera batez ere. *IBÍDEM*, 65 or.

42 MESA DEL CASTILLO, Miguel: *op. cit.*, 200 or.

VI. EL HOGAR, INVOLABLE E INEMBARGABLE: *El hogar, considerado como parte esencial de ese conjunto de cosas que componen el patrimonio espiritual de la familia, debe ser aclarado inviolable e inembargable*⁴³.

Eszenografia sinboliko honek, jabetzako etxebizitza «bake sozialerako» giltzarri moduan kokatzen du. Etxebizitzaren mitoa, sortu nahi ziren klasearteko auzo parekideetan imajinatzen zen, baina errealitatean, logika patriarkal eta hierarkikoen bitartez egituratzen ziren auzoak izaten jarraitzen zuten. Erregimenaren diskurtsoan, auzo nazional-sindikalista izango zen jabetzako etxebizitzek beteko zuten habitatzeko espazioa; ageriko klasearteko banaketarik gabe, familia nuklearrek beteko zituzten etxeak, etorkizunean jabetzakoak izan zitezkeenak, baina erregimenaren bortxa eta hierarkiazko sinbologiak diziplinatutako espazioan. *“En los barrios construidos según el modelo nacionalsindicalista: interclasista y de propietarios, se tejió una tupida red de relaciones y control social en torno a los vecinos más estrechamente vinculados con la dictadura, quienes ejercían un papel de autoridad política y moral nada despreciable”*⁴⁴.

3.5.1. Desjabetuekiko diziplina

Hirietara iristean, migratutako langile-familien gehiengo handi batek ez zuen etxebizitza izateko aukerarik izan, eta hortaz, txabola auzo marjinatuetan bizitzera kondenatuak izan ziren urte luzez. Horrela, 1939tik 1970ra doan denbora tartean, txabolismoa Estatuaren kezka nagusienetakoa izan zen; kontrolatu gabeko pertsona andana izatearekin batera, erregimenak hedatzen zuen etxebizitzaren aldeko propaganda zalantza jarri zezakeelako⁴⁵. *“(…) el éxodo campesino hacia las ciudades, junto a la destrucción bélica y el aumento dramático de la población urbana, generó un déficit de viviendas que condicionó la vida de dos generaciones, y agravó las consecuencias de la represión y el hacinamiento que, ya por sí mismas, retrasaban la viabilidad de los proyectos de familia, de las personas que acudían a la ciudad en busca de trabajo y anonimato”*⁴⁶.

Pertsona masa handi batek etxea beharrez gero eta Estatutik eskaintzen den erdua boterearen interes ideologikoei erreparatuz egituratu bada, agerikoa da kaltegarria izan beharko lukeela botere-harremanetan posizio ahulenean aurkitzen denarentzat. Baina auzo nazional-sindikalistek, problematika hori ezalztearekin batera, desjabetuak antolakuntza hierarkiko kulturala progresiboki xurgatzera behartuko zituzten. *“(…) pues los ideólogos del régimen defendían que la convivencia entre diferentes clases, en un mismo barrio, facilitaría*

43 ARRESE 1966, 1476 or., hemen aipua *IBÍDEM*, 107 or.

44 *IBÍDEM*, 108 or.

45 Zentzu honetan, *“Las entregas de viviendas sociales eran utilizadas para contrarrestar el avance de las ideas y de las organizaciones alternativas al sindicalismo oficial”*. CANDELA, José: *op. Cit.*, 369 or.

46 *IBÍDEM*, 397-98 orr.

*la difusión de la cultura superior de la clase media a otras clases inferiores, o subordinadas, a través de las relaciones de la vida cotidiana*⁴⁷. Honen aurrean, txabola auzoak boterearen diziplina mekanismoetatik ihes egin baina sistema-ren indarkeria objektiboaren sareetan kokatzen diren espazioak izango lirateke. Erregimenarentzat diziplinatu beharreko gorputzak diren modu berean dira frankismoaren ideologia hierarkikoaren oinarria: soldatapeko lan-indarraren iturri eta hortaz, langile-klasea. *“El disfrute en propiedad crearía una cultura homogénea, que no igualitaria, favorable a la familia y la paz social. La propiedad de la vivienda sería el engrudo social capaz de pegar la fisura del conflicto de clases, ayudando a la unidad de todos los españoles, propietarios y no proletarios, en el nacional-sindicalismo*⁴⁸.

Zentzu honetan, hiri-eredua ideologia-hegemonikoaren araberakoa izanik, hiri-espazioa betetzen duten pertsonak subjektibotasun prozesu baten bitartez bilakatuko dira bertako biztanle; botere-harremanak zaintzen dituzten dispositiboen bitartez, alegia. Erregimen frankistak irudikatzen duen bortxa eta indarkeria sinbolikoak lagundu dezake diziplinazko mekanismo hau ulertzen, finean, agerikoa den indarkeria subjektiboa erabiltzeko eskumena zuelako. Baina interesgarria da gerora, bistakoa den indarkeria gutxitu ahala, indarkeria objektiboak —ikusezina— izango duen garapena antolatzen ari ziren hiri-espazio berrietan, aurrerago ikusiko den moduan.

3.6. Sindikalismo falangista

Erregimen frankistarentzat, Lan Ministerioa eta Erakunde Sindikala ezinbesteko instituzioak izan ziren, hauen bitartez kontrol soziala eskuratu eta mantendu ahal izan zuelako. Lan Ministeriotik erlazio sindikalak bideratzen ziren eta hauek erregimenari iragarpen soziala eskaintzen zioten. Bestetik, Erakunde Sindikalaren bitartez asistentzia soziala gauzatzen zen, gobernuaren zuzenezko esku-hartze sozialean itzultzen dena. «Obra Sindical del Hogar» (OSH) erakunde nazional-sindikalista, frankismoaren beso-sozialean bihurtu zen. Jorratzen zituen praktiketatik, etxebizitza sozialen entrega eta higiezinaren promotoreei lur publikoen lagapena azpimarratu behar dira. Hain zuzen, jarduera hauen difusioa berebizikoa zen erregimenaren propaganda estrategiaren barruan, Estatuaren *Pueblo* eta *Arriba* egunkariak, etxebizitza plan konkretuei zegokien etxebizitzaren esleipenaren harira, gorespenez argitaratzen zituzten etxebizitza onuradunen listak. Zentzu batean ere, gora egiten ari zen jabetzako etxebizitzaren joera sustatzea eta ikusaraztea zen OSHen jarduna.

47 *IBÍDEM*, 397 or.

48 CANDELA, José: *op. cit.*, 109-10 orr.

«Obra Sindical del Hogar» erakundearen etxebizitzaren entrega 1942-1957 bitartean⁴⁹

Esleipen urteak: 1942-1957	"OSH"rek esleitutako etxebizitzak
1942-1944	964
1945-1947	5.768
1948-1950	7.094
1951-1953	7.911
1954-1957	79.283

Ikusi daiteke esleipen-mekanismoak goranzko prozesu batean barneratzen direla gerraosteko urteetan zehar, 60. hamarkadako gailur nabarmenera iritsi arte. Hortaz, etxebizitza-eredu hegemonikoa, erregimenaren diskurtsoaren bitartez inposatu zen hasieran, gutxi izango baitzuten berau eskuratzeko aukera. Botere egituraren gertuko burgesia eta funtzionarioak ziren lehen etxebizitzak jaso zituztenak, eta diskurtso-sozialaren bitartez, etxebizitza eskuratzeko itxaropen sugarra bizirik mantentzen zuen erregimenak. "(...) *los estudios de los sociólogos de la época, ligados a instituciones como el Consejo Superior de Investigación Científicas o Cáritas, muestran cómo la publicidad de la concesión de viviendas sociales a vecinos chabolistas, o de las viviendas de empresa, llegaban a los oídos y despertaban las expectativas de las familias obreras sin vivienda*"⁵⁰. Bada, 50. hamarkada erdialdetik aurrera, esleipenen goranzko joera islatzen delarik taulan, langile-familia etxebizitzetarako sarrera graduala izango dute, erregimenarekiko adiskidetasunaren arabera entrega mekanismoen bitartez; OSHen ikuskaritza izatearekin batera, prozedura osoan zehar sindikatuaren irizpideak jarraitzen ziren esleipenak kudeatzeko.

Era berean, Jose Antonio Gironen diskurtsoetako langilariarekiko hitz neur-tuek, hainbat sektoreetako langileak erakarri zituen, batez ere ontzigintza arlokoak, portuko langileak eta arrantzaleak. Alternatiba sindikalisten existentzia ezaren aurrean, Gironen diskurtsoetako langilariarekiko gertutasunak langile esparru batek Lan Ministro falangista begi onez ikustea ekarri zuen, eta hortaz, sindikalismo nazional-sindikalista elikatzea⁵¹. Baina gerraosteko baliabide ekonomikoen urritasunak eta eraikuntza mekanismo zaharkituek, etxebizitzaren sorrera baldintzatu zuten, eta ez da 50. hamarkadara arte izango, eraikuntzaren garapena eta higiezin-negozioak ahalbidetu zituzten instituzio ekonomikoen sorrerara arte, eraikuntza industriaren eraketa ematen dela. "(...) *una industria de la construcción que se incorporó, (...) sobre unas redes empresariales apoyadas en el poder y la influencia*

49 GONZÁLEZ, 1997, 872 or., aipua hemen, *IBÍDEM*, 214 or.

50 *IBÍDEM*, 397 or.

51 Kasu honetan, 1952ko Frankoren hitzaldia San Pedroko (Gipuzkoa) arrantzaleei zuzendua: "*Hasta que el Régimen nacional se implantó en España, los lugares más míseros de la nación fueron las casas de nuestros pescadores, de ese millón de seres que, viviendo sobre los peligros de la mar, no encontraban en tierra el lugar alegre y tranquilo que los cobijase*". FRANCO, 1975, 11-7-1952, aipua hemen, *IBÍDEM*, 180 or.

política, sin censura ni control democrático, instituidas en torno a la administración local y al peculiar sistema electoral municipal del régimen"⁵². Botere egituren metaketa berri honek, aurrezki kutzak, sindikatuak, funtzionarioak eta gobernu kooperatiben mekanismoak barneratzen ditu bere baitan, funtsezkoak bloke-hegemonikoaren baitan.

3.7. Elizaren instituzioa

Baina bada bloke-hegemonikoa osatzen zuen beste instituzio adierazgarri bat, gerraosteko ekonomia krisia baliatu zuena haren botere eragina eta autonomia hedatzeko. Elizaren instituzioak, ongintza praktika eta funtsak biltzeko trebeziarekin, eragina zuten pertsonenganako gerturatzearekin eta enpresa lehiaketetan parte hartzeko baliabideekin batera, erregimenaren politika sozialak erreproduzitzeko gaitasuna bereganatu zuen autonomia posizio batetik. Hau erabakigarria izan zen erregimenaren promesa sozialak zantzuak ziren momentuetan, Elizaren esku-hartzeak, Estatuaren diskurtsoak errealtatearekiko zuen benetako distantzia gezurtatzen zuelako. Honekin batera, funtsezkoa izan zen Elizarentzat hirietara iritsitako migranteen gaineko kontrola ezartzea; landa-eremuan zuen lotura estua berreskuratu nahian. *"La Iglesia no pensó solo en la influencia de sus iniciativas sobre las clases medias o los empresarios; la vivienda le ofreció un ámbito en el que desplegarse, y recuperar la influencia que perdía sobre la población por el impacto de la transformación de España en una sociedad urbana, sometida, además, a la presión migratoria"*⁵³.

Horretarako, asistentzia-sozialaren inguruan eratu zen sare katolikoa, pertsonen mobilizaziorako gaitasun handiekin batera, menpeko klaseak aldirietan bizitzeko zuen gatazka aztertu eta ezagutarazteko. *"Las acciones concretas de la Iglesia española se desarrollaron en la segunda mitad de los cuarenta y duraron hasta la primera mitad de los sesenta. Ésta actuó dentro de la política del régimen, pero marcando su autonomía. Su acción social buscaban [sic] cubrir un hueco de oportunidad, sin sustituir al Estado; (...) La curia utilizó la vivienda para organizar al empresario católico y dar un tinte social a su agrupación autónoma"*⁵⁴. Baina praktika sozialak garatzen zituen bitartean, lagundu nahi ziren pertsonak bortxazko baldintzetara behartzen zituzten erabakien parte zen. Zentzu honetan, Caritas bezalako erakundeak aurkitzen ziren, eragin sozial handiko auzoko asistentzia lanak egiten zituenak, baina Elizaren hirigintza patronatuek erabili zuten «La Tombola» izeneko instituzio finantzarioaren kudeaketa zeramana aldi berean⁵⁵.

52 CANDELA, José: *op. cit.*, 234 or.

53 *IBÍDEM*, 201 or.

54 *IBÍDEM*, 196 or.

55 *IBÍDEM*, 197 or.

3.8. Jabetzako etxebizitzaren kultura instituitua

Frankismoan, etxebizitzaren problematika jendearen identitate elementu nagusi bilakatu zen. Pertsonen iraupena bermatzen zuen hirian, zeintzuetan sortzen zen lan-eskariaren beharra zuten bizitzeko. Arazoa, hein handi batean, propietate pribatuaren gozamenaren bitartez ebatzi zen, konponbidea kulturalki arautuz eta hortaz, etxebizitza mantentzeko lan-indarra edozein baldintzetan saltzera behartuz. Horrela, langile biztanleriak jabetzako etxebizitzaren bitartez habitatu zitezkeen egituratzen ari ziren hiri-espazioak, habitatzeko eredu horrek dakarren bizi-baldintza gogorrekin. Erregimenaren gertuko klase ertainak eta langile-familiak jaso zituzten lehen etxebizitzak, gradualki esperientzia kolektiboan bihurtu zena. Ikaskuntza kolektibo honek, identitate komun bat sortzea zekarren, eta horrenbestez, identitatearen arabera jarrerak naturalki erreproduzitzea. *“Además, la muestra más clara de fijación de la cultura de propiedad era la compra de viviendas en España por parte de los emigrantes a Europa. (...) El objetivo era trabajar, cubrir sus necesidades más perentorias y ahorrar. Entre las inversiones del ahorro se contaba la compra de un hogar para la vuelta”*⁵⁶.

XX. mende erdialderako, Mendebaldeko herrialde kapitalistek bizi zuten hamarkada oparagoaren baitan, *New Deal* eta ongizate estatua bezalako etorkizun-ikuspegiekin, diktadura frankista gai izan zen XXI. mendea arautuko zuen bloke-hegemoniko honetara gradualki batzeko. 1960an, jabetza horizontalaren legea sartu zen indarrean espainiar Estatuan, zeina propietate horizontala arautzen zuen kode zibileko 396 artikulua indartzera bideratuta zegoen. Honen bitartez, pertsonak euren aurrezkiak hirietako etxebizitzetan inbertitzea sustatu nahi zen, eta horrela, 1965erako, pertsona askoren lehen jabetzako etxebizitza erregimenak sustatutako etxebizitza-soziala izan zen. Era berean, 1961ko Etxebizitza Plan Nazionalak, 60. hamarkadako hirigintza prozesua momentura arte ezagutu gabeko mugetara eraman zuen; legedi berriaren bitartez, dentsitate handiagoko pertsona multzoak baimenduko ziren hektareako eta horrela, 60. hamarkadak frankismo osoko eraikuntza faserik biziena ezagutu zuen.

Ildo beretik, erregimenak instituzio ekonomikoak sortu zituen programa politikoaren itxurapean, horrela higiezinaren merkaturak arautzeko, eta aldi berean, hipoteketako kapitala —pertsonen aurrezkiak, alegia— erabiltzen zuen eraiki behar ziren etxebizitza programak aurrera eramateko. *“Fue así como el contexto de capitalismo de posguerra encontró en la compra-venta de viviendas, la palanca adecuada para acumular el capital inmobiliario”*⁵⁷. «Pisu bat, jabe bat» lemapean, higiezinaren enpresek etxebizitzaren salerosketan esperientzia biltzen hasi ziren, espezializazioak kultura instituitu arte. Baina Espainiako etxebizitza-merkearen merkatu artifizial honen atzean, zorpetzearen ondoriozko langile-familia askoren aurrezkien galera

56 CANDELA, José: *op. cit.*, 370 or.

57 *IBÍDEM*, 400 or.

dago; hipoteken praktika desagokien ondorioz maiz. *“Nunca en España trabajaron tanto y gastaron tan poco en sí mismos los padres y madres de una generación”*⁵⁸.

Bestalde, kontuan izan behar da jabetzako etxebizitzaz haratago, alokairua salbu, pertsonak ez zutela alternatibarik ezagutu frankismo osoan zehar, eta esperientzia kolektiboak sortu zuen naturaltasunak, bestelako etxebizitza ereduak imajinatzea mugatu zuen. Ez da ahaztu behar, normaltasun hau frankismoak ekointzitako diskurtsotik datorrela, eta deskribatu den diziplinazko asimilazio prozesuak, antzekotasun handiak biltzen dituela Foucaulten «gertaera» dialektikoarekin. Zentzu honetan, sekulako jautzia dago lortu nahi denaren —aldarrikatzen dena— eta lortuko denaren —interes ideologikoak— artean, erregimenaren diskurtso sozialean; hutsune hau, indarkeria sistemikoak betetzen du, instituitu den etxebizitza eredura egokitzeo aukerarik edo baliabiderik ez dutenen gaineko eguneroko bortxan itzultzen dena. Baina ez hauek bakarrik, etxebizitza izateko aukera dutenek ere, antzeko indarkeria testuinguruan aurkitzen dira maiz egunerokoan: hipoteka ordaintzeko edo dentistara joateko «sakrifizio» erabakietan, adibidez⁵⁹.

Era berean, eratzen ari ziren hiri-espazioak klasearteko auzo mitifikatuak baino, langile-familien aldirietaranzko deslokalizazio progresiboa eragingo zuen. Eraikuntzaren ezta, lurraren gaineko ustiapen masiboari ateak irekitzen dizkionean, hiri-espazioa etekin ekonomikorako ustiapen espazioa bilakatuko da beste edozeren aurretik. Bada, inbertsio publikoak lurraren ustiapenera bideratzen diren heinean, langile-auzoak zerbitzu publikoen eskasiagatik eta zentro oparoekiko deskonexioagatik bereizten dira. *“La propiedad de la vivienda se sustenta en un entramado de relaciones, que conectan la práctica política y los procesos de negocios privados al nivel del Gobierno de la nación y del entramado de poder local, facilitando la explotación económica de las necesidades de las gentes y de sus aspiraciones más profundas”*⁶⁰. Izan ere, jendearen behar eta nahien erdigunean kokatzen zen etxebizitza, eta erregimenetik jaso zen erantzuna, ez zegoen problematika bere osotasunean konpontzera bideratuta, baizik eta behar horretaz gutxi batzuentzat negozioa sortzera.

Zentzu honetan, frankismoko hirietako lehen habitatzeko esperientzia sakrifizioz beterik egon zen langile-familia hauen partetik. Nazional-katolizismoak, sakrifizioaren monopolio kontzeptuala baliatu zuen honen gaineko ikuspegi gordinari itxaropen kutsua emateko⁶¹. Sakrifizio sentimendu horrek, bat egingo zuen etxebizitza eskuratzeko eta mantentzeko arazoekin; itxaropena baina, eguneko soldatan, elikagaien erosketan, edota umeen hezkuntzarako sarreran irudikatzen zen. Hau

58 *IBÍDEM*, 396 or.

59 Zentzu honetan, zorpetzea bezalako jokaerek subjektuen bizitzarekiko menpekotasuna islatzen dute, indarkeria subjektibo bezala identifikatu daitekeena. Zorpetzearen ohitura, ikusiko diren beste praktika ekonomikoekin batera, frankismoan jatorria duen higiezinen industria arloan txertatzen da. *“(…) el entramado económico y social de la vivienda en la España actual, es tributario de las decisiones políticas sobre su financiación que se tomaron en esos veinte años [1950-70]”* CANDELA, José: *op. Cit.*, 233 or.

60 *IBÍDEM*, 401 or.

61 GALLEGO, 1983, 14 or., aipua hemen *IBÍDEM*, 89 or.

da, sufrimendu hau ez du pairatzen duenak eragiten, baina itxaropena, pertsonen eguneroko jardun gogorraren emaitza pertsonalean materializatzen da. Sakrifizio horrek, hain zuzen, indarkeria objektiboari egiten dio erreferentzia, sakrifiziorik gabeko helburua ezin imajinatzeari; hau da, menpekotasun jarraitu batekiko konformismo orokortu bati. *“Se creo un conformismo obligado, en un ambiente de derrota y ausencia de derechos, donde las condiciones presentadas por los vencedores para solucionar el problema, no tuvieron relevancia, frente a las dificultades de los españoles de clases subalternas para tener un hogar”*⁶².

4. JABETZAKO ETXEBIZITZAREN KULTURATIK URBANIZAZIO EREDU INTENTSIBOETARA: ANDOAINGO URBANIZAZIOA ARDATZ

Eraikuntzaren sektoreak, bide eman zuen espainiar Estatuan lurraren gaineko ustiapena biziagotzeko, kapital-metaketa aukera berriak eskainiz klase kapitalistari, baina era berean, gehiengo sozial baten jabetza pribatuarekiko menpekotasuna ugalduz; zorpetzea bezalako dominazio eruedetan itzuli dena. *“El dispositivo que articulaba todo el sistema de dominación estaba constituido (...) por leyes que fomentaban la adquisición de vivienda frente al alquiler; la activación del sector con obras inútiles de mantenimiento (...); una ley del suelo que liberaba espacio para ponerlo a disposición de los especuladores; facilidad en la obtención de hipotecas; desgravación por la adquisición de vivienda y fomento de la especulación inmobiliaria a escala familiar; (...)”*⁶³. Neoliberalismoaren aldakortasun gaitasunari esker, praktika hauek gobernutik sortutako ongizate komunaren diskurtso politikoaren atzean ezkutatu izan dira, momentuan-momentuko testuinguru sozialera egokituz. Horrela, lurraren ustiapenaren bitartezko dominazio eredu honen garapena, hirietako biztanleria ongizate estatuaren eta kontsumismoaren araberako bizimodua gradualki ezagutzearen testuinguruan ulertu behar da; XXI. mendeko lehen hamarkadara arte luzatu daitekeena tokian-tokiko esperientzien arabera.

Hiri-espazio berri hauetako lurraren gaineko ustiapenak, hiria habitatzen dutenen egunerokoaren praktikan problematikak areagotzen ditu. Zeren eta hirigintza eredu honek, hiri-espazioaren itxuraldaketa erradikala eragiteaz gain, kontrol-gizarteetan berezkoak diren kontrol eta menderakuntza dispositiboen ugaltzea dakar. Hain zuzen, Merryfieldek «neohaussmannizazioa» terminoarekin egiten dio erreferentzia prozesuari, zeinetan indarkeria objektiboak —nabaria dena, fisikoa— leku uzten dio indarkeria sistemiko subjektiboari —antzemanezina, sistema kapitalistaren baitakoa— legitimitate osoz garatzeko. *“La neohaussmannización es un nuevo capítulo en la vieja historia de la reurbanización, del divide y vencerás por medio del cambio urbano, de la alteración y mejora del*

62 CANDELA, José: *op. cit.*, 398 or.

63 MESA DEL CASTILLO, Miguel: *op. cit.*, 125-26 orr.

entorno físico urbano para alterar el entorno social y político"⁶⁴. Hau da, ondatsun komuna den lurraren gaineko ustiapen pribatua da parasito-hirien ezaugarri nagusia, errenten bitartez kapital-metaketa esanguratsu bat eskuratzeko helburuarekin; norberaren lan-indarra xahutu gabe eta lan-indarraren salmentaz bizi-raun behar dutenen kontura garatzen dena.

4.1. Urbanizazio prozesuaren hastapenak Andoaingo udalerrian

Orain arte aztertutakoa, oro har, hiri-espazio «handietan» gertatutakoari egi-ten dio erreferentzia, hiriburuei edota hiri nukleo zabalei. Edonola ere, hirigintza praktika hauek aldrietako mugak zeharkatu eta landa-eremuko udalerrietan barneratu dira gradualki. Horrela, ikusi den lehen frankismoko etxebizitza esperientziaren antzekotasunak aurkituko dira Andoaingo udalerriak 1950-1970 urte tartean jasan zuen eraldatze prozesuan. Era berean, ez da ahaztu behar iruditeria frankistan, auzo falangistaren azken fasea udalerrri nazional-sindikalista batean bilakatzea zela. Zentzu honetan, udalerrria hirietako espazio zabalak oztopatzen zuen eszenifikazio sinbolikoa garatzeko espazioak bezala ulertuz. *"El municipio permitiría escenificar el orden y la jerarquía, frente al urbanismo liberal; el orden se conseguiría con la zonificación por usos del territorio, sustituto de la zonificación clasista. La jerarquía estaría simbolizada por la «Arquitectura»"*⁶⁵. Hain zuzen, Andoainek jasaten duen lehen antolakuntza urbanistikoa, etenik gabeko garapena irudikatzen zuen «desarrollismo» frankistaren testuinguruan kokatzen da, eskualdeko sektorializazio prozesu zehatz batekin joan zena. Andoainen kasuan, eskualdeko industrializazioak guztiz baldintzatu zuen, soldatapeko lana eskaintzen zuen bigarren sektorearekiko dependetzia harremanak garatu zituen, eta hirigintzaren bitartez, udalerriko espazioak transformatzen joan ziren biztanleria habitat berrira subjektibizatuz.

Halaber, Andoainen transformazioa topografiak mugatuta gauzatu zen, eremu malkartsuan kokatzearekin batera, Oria eta Leitzaran ibaien elkartzeko puntuak txertatzen delako udalerraren muina. Zailtasun hauekin batera, alde-zahar finkatu baten kadentzia sumatu ohi da, zeinaren inguruan uniformetasunez eraiki⁶⁶. Nabarmentzen dena, ordea, Andoainek mugikortasun azpiegiturekiko duen posizio aproposa da, XX. mende erdialdean eskualdeak jasan zuen industrializazio prozesuarekin batera; funtsezko bi ezaugarri izan zirenak pertsona masa esanguratsu bat erakartzeko udalerrira. Bada, 1950ean Andoainek 4.647 biztanle zituen, 1960an 6.953, eta 1970an 11.549; hogeitau urte horietan, udalerriak ia hirukoiztu zuen biztanleria. Horrela, 50. hamarkadan zehar batik bat eskualdeko langileen lan-indarrak baliatzen zen Andoaingo industria, azken hau, udalerriko hazkunde ekonomikoaren mekanismoan bilakatu zen arte. Hain zuzen, garatzen ziharduen bigarren sektore honek eskaintzen zuen soldatapeko lanak, migrante multzo esanguratsua erakarri zuen 60. hamarkada hasierarako, udalerrian bizitzeko etxebizitzaren beharrezko areagotzearekin batera.

64 MERRIFIELD, Andy: *op. cit.*, 16 or.

65 CANDELA, José: *op. cit.*, 2017, 109 or.

66 Ideia honetan, aztertu diren ikerketa guztiek bat egiten dute.

Lehen etxebizitza eskari hau asetzeko, 712 etxebizitza eraiki ziren, etxebizitza-parkearen % 68,5 handituz; garai honetakoak dira, adibidez, Larramendi Taldearen etxebizitza proiektua, Ankoras etxebizitzak, edo Bazkardoko Alejandro Calonge etxebizitzak; zeintzuk enpresetako langileriak okupatu zituen ia bere osotasunean⁶⁷. 60. hamarkada erdialderako baina, desoreka bat nabaritzen hasia zen udalerriak jasotzen zituen pertsonen eta enpresa lokalak eskaintzen zuen lanaren artean. Izan ere, eskualdeko lan-eskaintzak, pisu nabarmena bereganatu zuen eta Andoainek inguruko udalerrietan lan egiten zuten pertsonak jasotzeari ekin zion. Errealitate honen aurrean, Andoainek eskualdearekiko duen mugikortasun aproposa nabarmendu da, Tolosa edo Donostia baino etxebizitza prezio apalagoak eskaintzearekin batera. Baina, ez al da ba ikertu den gerraosteko etxe sinboliko horrekiko subjektibotasun ikaskuntza izango, Andoainera lekualdatzeko arrazoi nagusia? Bada, pertsonen etorreraren harira, hurrengo irakurketa egiten du 1989ko Andoainen inguruko ikerketa sozioekonomikoak: *“El motivo fue la posibilidad de adquirir vivienda a bajo costo. Gracias a los bajos precios de los terrenos existentes en aquella época, se procedió a una masiva edificación: entre el 60 y 75, 2.631 viviendas, más de la mitad (% 53) del actual [1989] parque de viviendas. Tan sólo ciñéndonos entre el 69 y el 71, se construyeron cerca de 1.000 viviendas”*⁶⁸.

Izan ere, 60. hamarkada erdialdetik aurrera, Andoainen hazkunde-motorra higiezinaren alorrera lekualdatuko zen, industria lokalaren kaltetan. *“Lo que en la práctica redundará en una pérdida comparativa de peso del tejido industrial y un sobredimensionamiento de la variable residencial”*⁶⁹. Horrela sortu ziren 60. hamarkada amaierako urteetan Bazkardo, La Salle edo Santa Cruz bezalako auzoak, zeintzuk udalerriko etxebizitza beharrianari erantzun beharrean, etxebizitzaren eskaintza izateko helburua zuten; eskualdean barna lan egingo zuten langile-familiak erakarriko zituztenak. Hurrengo taulan⁷⁰, Andoaingo biztanleriaren, lan-eskaintza lokalaren eta etxebizitza-parkearen garapen kronologikoa ikusi daiteke, hazkundearen ehunekoekin batera, zeinetan ongi islatzen den udalerriak etxebizitza eskaintzarekiko hartu zuen joera.

Urtea	Biztanleria (i)	Lan-eskaintza (ii)	Etxebizitza-parkea (iii)	% (i)	% (ii)	% (iii)
1950	4.647	1.500	1.039			
1960	6.953	2.481	1.751	49,6	65,4	68,5
1965	9.548	2.750	2.105	37,3	10,8	20,2
1970	11.549	2.935	3.291	20,9	6,7	56,3
1976	15.096	3.265	4.537	30,7	11,2	37,9
1981	16.330	2.232	4.937	8,2	-31,6	8,8
1986	16.008	2.102	4.948	-1,9	-5,5	0,2

67 A.U.A.: *Estudio Socioeconómico de Andoain 1989*, 42 or.

68 Andoaingo Udal Artxiboa (A.U.A.): *Estudio Socioeconómico de Andoain 1989*, 44-45 orr.

69 URRUTIA, Peio: Doce Mil Tres: apuntes para el final de una década (Andoain, 1966-1970), *Leyçaur*, 11, 2010, 342 or.

70 A.U.A.: *Estudio Socioeconómico de Andoain*, 1989, 20 or.

4.2. Hirigintza praktika intentsiboen bidetik: Plan Orokorren berrikuspena (1966)

*"Esta revisión, que constituye en la actualidad [1995] el planteamiento vigente, supuso un cambio sustancial respecto al anterior Plan, porque además de promover un superdimensionamiento de los terrenos susceptibles de ser urbanizados, permitió una forma descontrolada de crecimiento que eludía la generación de estructura urbana en las áreas de desarrollo. Así, el gran crecimiento que tuvo lugar hasta el año 1975 se realizó en base a un planteamiento parcial fruto de una poligonación sin estructura general suficiente y con escasos criterios de ordenación global"*⁷¹.

Udalerriak hartu zuen norabide hau aztertzeko, beharrezkoa da lehenik urte batzuk atzera egitea. Izan ere, Andoaingo hiriaren lehen antolamendua 1950an diseinatu zuen Felix Llanosek, eta 1955ko Plan Orokorrean islatu zen berau. Honetan, udalerrria zonifikazio baten bitartez antolatzen zen, eta etxebizitzaren eraikuntza Ori ibaiaren eskuin aldera mugatuko zen, hiriaren zabalgunea izango zena; eremurik lauenean kokatzen baizen. Hain zuzen, garaiko hilerria kokatuta zegoen muinoaren hegoaldera hedatuko zen zabalgunea urbanizagarria, eta iparraldeko muino honetan, hilerriarekin batera, San Martin parrokia eta Udaletxea bera aurkitzen ziren. Espazioaren antolaketa hau, udalerrri barruko irisgarritasuna ahalbideratuko zuen errepide eta bide sare batekin proposatu zen, zeinetan N-1 saihesbidearen aurreikuspena egiten zen jada.


Hala eta guztiz ere, 1956an Estatuan indarrean sartu zen Lurraren Legeak, etorkizuneko hirigintza praktikak baldintzatu zituen Estatu osoan bezala, Andoainen ere. Lege honek, hirigintza Plan Orokorren eta Plan Partzialen arteko desberdintasuna aitortzen zuen, hau da, espazioaren zonakatea eta lurraren kalifikazioaren arabera banaketa egiten zuen Plan Orokorren antolaketa, espazio urbanoan hirigintza zehazki arautzen zuen Plan Partzialen antolamenduarekiko desberdintzen zuen. Baina muinean, Lurraren Legeak lurra desjabetzeko gaitasun instituzionala areagotzen zuela esan daiteke, esku-hartze pribatua sustatzearekin batera; are zehatzago, Arreseren Etxebizitza Ministerioak aplikatutako lurraren gaineko kudeaketa interesatu bati erantzuten dio, zeinaren bitartez desjabetutako lurra promotoreei entregatzen zitzairen. Madrilen, adibidez, hiriaren inguruko landa lurra —eratzun berdeak deritzona— desjabetu ziren lege hau indarrean sartu bezain laster, gerora hauek hiritartzeko orubeetan —etorkizuneko aldiriak— transformatzeko⁷².

⁷¹ A.U.A.: *Normas Subsidiarias de Planteamiento Urbanístico de Andoain*, 1995, 10 or.

⁷² CANDELA, Jose: *op. cit.*, 224-25 orr.

PLANO: PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN DE LA VILLA DE ANDOAIN.

Plano de zonificación-división en polígonos y servicios públicos.
Incluidas modificaciones acordadas por el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria de fecha 17-9-1965.



Andoaingo kasuan ere, hirigintza antolamenduarekiko norabide aldaketa nabarrena antzeman daiteke lege honen aplikazioaren ostean. Bada, 1955ko antolamendua bertan behera geratzearekin batera, udalerrria poligonoen —definitutako orubeen multzoa— arabera antolatu zen. Horrela, udalerrian garatu zen hiritartze eredua poligonoak urbanizatzerara bideratu zen, hauen ekipamendu eta okupazio isolatura, alegia; kontuan hartu gabe aurreko Plan Orokorrak iradokitzen zituen ekipamendu publiko eta azpiegituren eraikuntza. Horretarako, 1961an Isidro Setienek poligonoen bitarteko banaketa zehaztu zuen, Jarduketa Programa baten erredakzioarekin batera. *“De esta forma se inicia un proceso en el que se varían los parámetros de la propuesta urbanística inicialmente planteada para Andoain. El planteamiento no va a servir sino para el desarrollo y ocupación de los polígonos, olvidando que para la constitución de la trama urbana es preciso la creación paralela de la red viaria, las infraestructuras y el equipamiento, (...)”*⁷³. Orain arte aipatu diren lehen etxebizitzaren eraikuntza, 1955an proposaturiko zabalgunetik urrun, iparraldera geratzen den muinoan eman da, Aita Larramendi etxebizitzak kasu, orubeen aurretiko egoeraren zein etorkizuneko eraikinarren inguruarekiko talkaren azterketarik egin gabe gehienetan.



Udaletxea, Eliza eta hilerria aurkitzen diren muinoa, eraiki berri zen Larramendi etxebizitza multzoarekin batera. Iturria: A.U.A., F.7.4/208. © Paisajes Españoles (1961).

73 A.U.A.: *Normas Subsidiarias de Planteamiento urbanístico de Andoain*, 1995, 8 or.

Testuinguru honetan, ehun-industrialak pairatzen zuen galera orekatzeko xedearekin aurkeztu zen 1966eko Plan Orokorren Berrikuspena, hala nola Andoainekiko egiten zen etxebizitza beharizanaren irakurketa neurrigabea zuzentzeko asmoarekin batera. Zentzu honetan, hurrengo aurreikuspenak egin zituen Planak: hazkunde intentsiboko hiru hirigintza foku berri zehaztu zituen, momentura arte urbanizatutako eremutik kanpo: guztira 3.400 etxebizitza berri inguru, inolako azpiegitura edo ekipamendurik gabe planteatzen zirenak halaber. Bestetik, aurreko Plan Orokorrean proposatzen ziren hirigintza zabalgunekak deuseztatzea, horrela ahalbidetuko zitzaien plan partzialetan Plan Orokor berriak zehazten zuenarekiko autonomia; eta azkenik, ekipamendu publikoaren aldirietaranzko lekualdaketa, zentzugabekeria dirudiena kontuan hartzen bada, hirigunetik nabarmen urruntzearekin batera, irisgarritasun urriko eremuak zirela Andoaingo hiri-inguruak.

Planteamendu honekin, udalerriko etxebizitza eskaintzak sustatutako demografia hazkundera aldirietarako eremu marjinaletara lekualdatu zen, topografikoki aproposak ez izatearekin batera, irisgarritasun arazo larriak zituzten eremuetara. Izan ere, plan partzialetan oinarritutako eraikuntzok aurretik zeuden azpiegiturretan oinarritzen ziren, baina etorkizunera begira, gorantz zihoan dentsitate urbanoak bideraezin egingo zituen. Era berean, Plan Orokorrek zehaztutakoa urratzeko malgutasuna eskaintzen zuen hiritartze eredu honek, eta horren adibide garbia da garai honetan hiriguneara eraikitzen diren etxebizitzaren gehiegizko altuera, adibidez.



Eraikin askoren gehiegizko altueragatik, iparraldeko muinoan aurkitzen diren eraikin sinbolikoak estaltzen ditu etxebizitza eraikin-sare batek. Argazkian, Bazkardo, 17 eta 25 poligonoekin batera muinoan inguratzen. Iturria. A.U.A., F.7.5/238, © Paisajes Españoles (1992).

4.3. Etorkizuneko Andoaingo habitata materializatzen

"(...) Los intereses de varios concejales estaban ligados a la promoción urbanística y eso hizo que se apostase más por medidas que favorecían la actividad inmobiliaria, en detrimento de la actividad industrial. (...) éramos minoría, pero te quedas con las ganas de haber votado más veces en contra... aún a sabiendas de que nada hubiera cambiado, de que todos los proyectos hubieran seguido adelante de la misma manera..."⁷⁴.

Alabaina, 60. hamarkadako udalerriko gehiegizko etxebizitza aurreikuspenaren harira bueltatuz, 1965ko Hiri Antolaketarako Plan Orokorraren Berrikuspenaren memoriak, joera desorekatu hau zuzentzeko helburua plazaratzen zuen: "[helburu honen porrotak] supondría la creación de un núcleo urbano con carácter «dormitorio» para las zonas industriales cercanas, criterio que no se considera admisible, teniéndose más bien a la creación de un núcleo de características equilibradas, en consecuencia de los puestos de trabajo suficientes derivados del crecimiento de la Villa"⁷⁵. Baina era berean, 1966etik 70. hamarkada erdialdera arte, Andoaingo udalak 80 eraikitze-lizentzia berri eskaini zituen 1.413 etxebizitzentzat; bada, urte tarte berberean soilik 22 pabiloi industrialen eraikuntza zenbatzen da, gehiengoa lehenagotik zeuden enpresak handitzera bideratua. Zentzu honetan, udalerriko demografia hazkundera 1.777 biztanlekoa izan zen bitartean, 114ekoa zen Andoainen lan egiten zuten pertsonen hazkundera⁷⁶.

"(...) en el periodo que va de 1966 a 1975, se produce la aprobación definitiva de los Planes Parciales de los polígonos n.º 17, 18, 25, 32, 39, 50, 41 y 48-49. Salvo los dos últimos, que son objeto de recursos, el resto comienza su desarrollo, encontrándose en la actualidad [1995] ejecutados prácticamente en su totalidad en cuanto a la edificación residencial se refiere, si bien el proceso urbanístico no ha concluido aún en ninguno de ellos"⁷⁷.

Kontuan izan behar da halaber, urte hauetako eraikuntza lizentzia ugari promotore pribatuen eskuetan geratzen hasi zirela; soilik 1964etik «Obra Sindical del Hogar» erakundearen eskuetan zegoen Ondarreta Taldearen proiektuari atxiki dakioke izaera publikoa. Izan ere, Plan partzialetan oinarritzeak eta esku-hartze pribatuaren ugaltze zein normalizazioak, problematika ugari sortuko zituen. Adibidez, Eskola kalean eraikitzeko Udaletxetik eman zen istanteko baimena, zeina hirigunea osatzen zuen espazioa izanik, obrak aurretiko planifikazio baten idazketa eskatzen zuen, hala arautzen baitzuen 1966ko Planak. Lizentziak baina, segituan esleitu

⁷⁴ Jose Mari Olazabalen testigantza, gertakarietako garaikidea eta udal zinegotzia. URRUTIA, Peio: *op. cit.*, 343 or.

⁷⁵ A.U.A.: *Memoria del Plan General de Ordenación Urbana*, 1965.

⁷⁶ URRUTIA, Peio: *op. cit.*, 343 or.

⁷⁷ A.U.A.: *Normas Subsidiarias de Planteamiento urbanístico de Andoain*, 1995, 10 or.

ziren, inolako eskakizunik gabe. Ildo beretik, 25 eta 17 poligonoen urbanizazio prozesu korapilatsuak aurkitzen dira, problematika nabarmena eman zutenak 70. hamarkadan. Azken bi hauek, antzekotasun handiak bilduko zituzten proiektuak dira, batik bat, Lurraren Legeak sustatu zituen hirigintza praktiken norabidea irudikatzen dutelako Andoainen: bai poligonoen araberako antolaerak eskaintzen duen izaera intentsiboagatik, zein udalerrri eta biztanleekiko —inguru sozioekologikoa— erreparorik gabe berau garatzeagatik.

4.3.1. 25 poligonoa⁷⁸

Bada, 25 poligonoaren proiektua 1967an onartu zuen Udalak eta honen erai-kuntza segituan hasi zen. Poligonoa 84.000 m²ko azaleraren gainean hedatzen zen eta 770 etxebizitza, frontoi bat, haurrentzat jolastokia, anbulatorioa, zaharren egoitza bat eta supermerkatu batek osatu behar zuten berau. Baina etxebizitza blokeak eraikitzen hasten direnerako, agerikoa egiten da promotoreei egokitutako eraikuntza-tamaina nabarmen gainditu dela lehen esku-hartzean. Inguruko topografia malkartsuak mugatuta, erdisotoek osatu behar zuten eraikinaren oinarria, egiturari oreka ahalbidetzeko. Horren ordez, eraikitzaileen gehiengoak garajeak eta etorkizuneko komertzioak txertatu zituzten erdisotoen ordez, zeintzuk altuera handiagoa izatearekin batera, etxearen aurrealdetik sarrera zuzena zuten haie-tara. Poligonoaren eraikuntzaren parte handi bat, José Soroak zuen, zeinek ordura arteko —40 etxebizitza zeuden dagoeneko eraikita— gaizki egiteak onartu eta ordainsaritzat Udaletxeari 830 m²ko orubea eskaini zion dohainik. Azken honen ezezkoaren aurrean, beraz, Soroak eskaintza handitu, eta 2.529,30 m³ko espazio eraikigarria luzatu zion udalbatzari; Udaletxetik onartu zena.

Baina egoera berriro gaiztotu zen kontratistak eraikitakoaren gaineko berri-kuspina Udalari egitea eskatu zionean, zeren eta erdisotorik ez zegoen; eraikin blokeen handitze orokortuan itzuli zena. Honen aurrean, obren etetea agindu zen Udaletxetik, izan ere, Udalak Soroa demandatu zuen Justizia Epaitegietan, eta egoeraren aurrean, Gobernadore Zibilaren babesa eskatu zen Udaletxetik. Problematikaren harira, Gobernadoreak inhibitzea erabaki zuen, aitzakiatzat haren eskumena beharrezkotzat ikusten ez zuela aldarrikatuz⁷⁹. Egoera are gehiago irauli zen, hilabete batzuk lehenago Soroaren aurkako salaketa sinatu zuen Jose Mari Garagorri alkateak, handik gutxira Soroari babesa eskaintzean. Bada, Soroak hirugarren eskaintza proposamena prestatzen ari zela argudiatu zuen alkateak eta horregatik merezi zuen honi jaramon egitea. Hain zuzen, momentura arte ilegalki eraikitako parkearen osotasuna eskaini zitzaion Udaletxeari, zeinak negoziatzen amaitu ez ezik, Soroari eskerrak ematen amaitu zuen⁸⁰.

78 25 poligonoak, egungo Plazaola, Extremadura, Galardi eta Gabriel Aresti kaleak biltzen dituen espazioa da.

79 Hemen, Gobernadore Zibilak hirigintza praktiken aurrean zuen eskumena seinalatzea komeni da. Horrela, arauturik zeuden itxura eta altuera jakin batzuen araberakoak izan behar zuten eraiki nahi ziren etxebizitzak; hauen lizentzia esleipena gauzatu nahi bazen noski.

80 URRUTIA, Peio: *op. cit.*, 355 or.



Atzealdean, 25 poligonoaren ikuspegia Bazkardotik, aurrean, 17 poligonoa obretan. Iturria: A.U.A., F.7.5/237, © Paisajes Españoles (1989).

4.3.2. 17 poligonoa⁸¹

1965eko Hirigintza Plan Orokorrak 17 poligonoa sustapen publikokoa izan behar zuela zehazten zuen. Bada, 1968an aurkezten den 17 poligonoarekiko hirigintza memorian, 500 etxebizitzaren eraikuntza seinalatzen da, hamar urteko epean gauzatuko zena. Alabaina, poligonoaren promotoreak izango ziren «Arin Hermanos» eraikitzaileak eta «Tejas y Ladrillos del Oria» enpresak, Juan Maria Aguirre arkitektoa kontratatu zuten, eraikuntzaren esleipena esku pribatuetan geratuz azken finean. Horrela, eraikuntzarekiko esku-hartze municipal mugatuta geratu zen Udalaren arduragabekeriaren ondorioz. Ez da ahaztu behar, bederen, 17 poligonoaren kokapen estrategikoa, zeina Udaletxea, frontoia eta San Martin parrokiarekin mugatzen zuen. Gainera, ezinezkoa zirudien promotoreek proposatu zuten proiektua, poligonoak eskaintzen zuen 59.379,17 m²ko lursailean txertatzea; ikusi besterik ez dago irisgarritasun aldetik Haur Hezkuntza eta Osasun Zentroa eraikinek duten kokapena hirigunearekiko.

Premisa hauek direla medio, segituan azaleratu ziren lehen zalantzak udalbatzan: eraikitzeko lizentzien tramitazio azkarragatik lehenik, eta proiektuaren zilegitasunagatik ondoren. Proiektuari zegozkion hasi aurretiko azterketarik ez zen

⁸¹ 17 poligonoa, Elizondo eta Nafarroa plazetako inguruak biltzen ditu.

egin, honen talka islatu zezakeena inguru sozioekologikoarekiko, eta ondorioz, Andoaingo zinegotzien gehiengoa eraikuntzaren informazio garbirik gabe aurkitu zen. Egoera honen aurrean, proiektuaren balorazio bat eskatu zen udalbatzatik, zegokion batzordeak gauzatuta, eta aldi berean, alkateak berriro ere ekintza zinez kontraesankorra gauzatu zuen proiektuaren defentsan ateratzea erabaki zuenean; izan ere, bestetik txosten informatiboaren jorraketa defendatzen zuelako. Bada, udalbatzatik alkatearen planteamendu berri hau kostata onartu zen, finean, informazio gehiago eskatzen zen momentuan, alkatearen eraikuntzarekin aurrera jarraitzeko premiak, udalerriko interesekin talka egiten zuela ulertzen zelako. Hain zuzen ere, txostenaren emaitzek azken ideia hau areagotu zuten, proiektuak hartutako hirigintza sistemaren ezegokitasuna salatzen baizen bertan. Hots, proiektuaren dimentsioaren ondorioz hartu ziren konpentsazio urbanistikoaren neurriak, udalerriarren hirigune osoa kaltetu zezaketela ondorioztatzen zuen txostenak. "(...) *la zona verde de separación entre el polígono 17 y el industrial 16, que por su gran pendiente solamente puede servir para este fin, se ha valorado igual que los mejores terrenos del polígono, dándoles los mismo derechos de edificabilidad que a los terrenos municipales. (...) la zona Escolar se ha situado en el peor lugar existente topográficamente por estar estropeando para la fácil urbanización por las grandes excavaciones de tierra realizadas en su día por la tejería, promotora del Plan*"⁸².

Testuinguru nahasi honetan, alkatearen papera okertzen zuten are irregular-tasun gehiago azaleratu ziren. Izan ere, Jose Mari Garagorri «Tejas y Ladrillos del Oria» enpresako akzioduna zen, 17 poligonoaren eraikuntzaren promotoretako bat zena era berean. Beraz, Udaletxeak egin zuen lur publikoen entrega zalantzan jarri zen, hain zuzen ondasun komun horien esleipenak, desabantaila egoeran uzten zuelako Udaletxea kokapen esanguratsua zuen espazio honekiko. Salatu zen interes talka honek, alkatea udalbatzako mahai-inguruetatik kanporatzea ekarri zuen, batzar hauek poligonoaren ingurukoak zirenean. Gauzak honela, zortzi hilabete beranduago, alkatearen jarduera ikertzen zuen txosten juridikoa kaleratu zen, eta bertan, alkateak enpresako inongo direktiba kargurik ez zuela adierazi zen; enpresako akziodun gisa aurkezten zen soilik, eta hortaz, interes talkarik ez litzatekeela egongo argudiatu zen. Are gehiago, poligonoaren eraikuntzarako Garagorri gauzatu zuen lur publikoen esleipenaren harira, Andoaingo etorkizunarentzat hauek guztiz onuragarriak izango zirela azpimarratzen da txosten juridikoan; honenbestez, alkatearen jarduera goitik behera babestuz. "*Los grandes beneficiarios, como no podría ser de otra forma, fueron Arin Hermanos y Tejas y Ladrillos del Oria: el cumplimiento de los compromisos contraídos en torno a la cesión de equipamientos públicos (mercado, zona verde...) o no se completaron satisfactoriamente o simplemente se obviaron. El desarrollo urbanístico de este sector, que debería haber concluido en el plazo de una década, se prolongó más de veinte años*"⁸³.

82 URRUTIA, Peio: *op. cit.*, 358 or.

83 *IBÍDEM*, 361 or.



17 poligonoaren ikuspegia eraikitze lanetan, frontoia, Eliza eta Udaletxea setiaturik ematen dute. Iturria: A.U.A., F.7.5/226. © Paisajes Españoles (1977).

4.4. Aurreikuspen defasatuaren aurrean, Arau Subsidiarioen agerpena

*"La valoración global que cabe efectuar sobre la idoneidad de este planteamiento [1966] es insatisfactorio. Ordena una superficie de 280 Ha. (sin computar ríos y Renfe), de las cuales cerca de la mitad corresponde a suelo industrial. El suelo residencial con capacidad para 8.300 viviendas está dimensionado para albergar una población de 25.000 habitantes. Para una villa que solo cuenta con poco más de 15.000 habitantes y cuya población presenta síntomas de estabilización o simple crecimiento vegetativo este dimensionamiento resulta demasiado expansionista y es preciso reorientar el planteamiento"*⁸⁴.

Ikusi den Andoingo bilakaera honek, jabetzako etxebizitzaren kulturatik urbanizazio prozesu intentsiboetarako trantsizioa islatzen du, hau da, kapitalismoaren

⁸⁴ A.U.A.: *Normas Subsidiarias de Planteamiento urbanístico de Andoain*, 1995, 13 or.

baldintzapean etxebizitza ulertzeko ideologiak sustatu zuen hirigintza eredu artifizialaren garapena; udalerrian bezala, Estatu mailan ere erreproduzitu eta gailendu zena. Prozesu gradual honetan, ezinbestekoa izan zen pertsonak ereduaz —urbanizatutako etxebizitza parkea— erabilera egitea, zeina diskurtso politiko aldakorren babesaz joan zen beti. Izan ere, alienazio honen baitan sortu zen etxebizitza eredu bakarraren sinesmen orokortua, jabetza oinarri duena, eta behin kulturalki hau barneratzean, jabetzako etxebizitzak sustatzen zuen hiritartze ereduak transformatutako espazioen gozamina eta erabilera zetorren pertsonen aldetik. Testuinguru honetan txertatzen da hirigintza arloan Arau Subsidiarioen aldeko hautua, hain justu, 70. hamarkada amaierarako azaleratzen ziharduten hiri-espazioetako habitate problematiken harira. Hiritartze planteamendu berritu hauetan, hiriekiko ikuspegi berri bat proposatzen zen, zeina Lurraren Legeak areagotu zuen dentsitate urbanoa gutxitzea zuen helburu; Andoaingo kasuan, ordura arteko gehiegizko aurreikuspenak mugatuz eta espazio publikoen berreskuratzea sustatuz, baina soilik, gerora hauen gaineko berrekipamendu trinko bat gauzatzeko⁸⁵.

Norabide honen helburu orokorra hiri-ehun eraginkorragoak osatzea zen: kapitalaren zirkulazioa erraztuko zuen bezala ahalbidetu behar zuelako pertsonen jardun produktibo kapitalistarekiko irisgarritasuna. Asimilazio prozesu hau, sozialdemokraziaranzko bidean ulertu behar da, 1976ko Gobernuaren itxuraldaketa «demokratikoaren» baitan, alegia. Hain zuzen ere, «gertaera» honen harira, lurraren gaineko ustiapen pribatuak botere-harremanen interesak defendatuko zituen beste behin. Izan ere, jabetzako etxebizitzaren kasuan bezala, hiri-ehunaren gaineko esku-hartze urbanistikoak, ongizate estatu primarioak iragartzen zituen beharrian kolektiboek erantzungo zela aldarrikatzen zen. Bada, orain arteko hiritartze ereduak eragindako gabezia artifiziala konpontzeko, botere praktika espazial berberak jarraituko ziren beste behin; soilik «dispositibo» berrien gehitzearekin eta diskurtso politiko berriarekin.

Andoainen, 70. hamarkadarako zuzendu behar zen 1966eko Hirigintza Plan Orokorrak, Arau Subsidiarioen hiritartze antolakuntzari utzi zion lekua 1982an. Horrela, Urbanizazio prozesuaren diagnostiko bat aurkeztu zen, Lehen Antolamendu Proposamen batekin batera. Alabaina, hirigintza antolamendurako plan partzialen garapena defendatzen jarraitu zen, hirigintza txostenek hauen arriskuak behin eta berriz ohartarazi arren. Gauzak horrela, hainbat aldaketa proposatu ziren Arauak indarrean sartzearen harira, eta hauek dira 1995ko Arau Subsidiarioen aurretik burututakoak:

- 1985an, gehiegizko dentsitatea saihesteko asmoz, 32 eta 33 poligonoen arteko higikortasuna hobetzea proposatzen da, Plan Orokorraren irizpideetan oinarrituz; eta honekin batera, 32 poligonoan gehiegizko altuera zuten eraikinak ezabatzea eta 33 poligonoarako aurreikusten zen gehiegizko

85 LARRINAGA, Carlos: "Siglo y Medio de Historia del Urbanismo Contemporáneo en Andoain (1842-2000)", *Leyçaur*, 8, Andoain, 2004, 181 or.

okupazioa gutxitzea. Bada, bi poligono hauek egungo Plazaola kalea eta Joakin Larreta Hiribidearen artean aurkitzen dira.

- Bestalde, Goikoplaza oinezkoentzat uztea planteatzen da 1987an, hau zeharkatzen zuen errepidea deuseztatuz eta trukean, San Martin parrokiaren absidearen atzean errepide bat irekiz; horrela 17 poligonoarekin oinezko irisgarritasuna guztiz ahalbidetuz.
- Azkenik, hirigunetik kanpoko azpiegiturei begira, 1989an HAPOren moldaketa gauzatzen da Nafarroako autobia eraikitzeko, 57 poligonoa higikortasun azpiegiturako lur moduan zehaztuz, eta bide batez, proiektatzen zen N-1 autobia harira konpondu behar zen loturari —Andoaingo lehen sarrera Donostia bidean— irtenbidea emanaz. Halaber, 1991an lotura berri bat egiten da N-1 eta GI-131 errepideen artean, Bazkardoko bidegurutz zaharra bi mailako lotune baten bitartez ordezkatzuz.



Oinezkoentzat prestatutako Goikoplazaren ikuspegia. Iturria: A.U.A., F.7.5/248. © Paisajes Españoles (1998).



Nafarroako autobiaaren ikuspegia. Iturria: A.U.A., F.7.5/243. © Paisajes Españoles (1996).

4.5. Hirigintza lehenestek sortzen dituen baldintza sozialen inguruan

Bada, Andoaingo hiri-espazioa Mendebaldeko bizimolde kapitalistara gehitzeko antolatzen ari zen, zeinetan ezinbestekoa da diru-sarrerak ziurtatzea bizirauteko. Zentzu honetan, soldatapeko lana izan da bizitza garatzeko mekanismorik orokortuena, eta Andoaingo kasuan, industria zen hau eskaintzeko baliabideak zituena. Baina hazkunde demografikoaren aurrean, udalerriko ehun-industrialia sustatu beharrean, hirigintza eta eraikuntza prozesuen garapenean murgildu zen Udal gobernua, eta horrela, 1965eko Planaren memorian islatzen zen kezka, errealitate bihurtu zen urte gutxiren buruan. Izan ere, Andoainerako aurreikusten zen demografia hazkundeak —25.000— ez zuen bat egiten habitatzeko errealarekin; soilik okupatzeko etxebizitza berrien eskaintza estrategikoaren baitan ulertu zitekeen berau. *“Las expectativas de edificación que generó la Revisión del Plan General [1966] son motivo del abandono en que se encuentran algunos edificios, en busca de motivo legal para su sustitución”*. Hain zuzen ere, etxebizitza berrien eskaintza gunean bilakatzen ari zen udalerrria, epe luzerako errenten bitarteko etekinetan

itzuliko zena, hau da, gutxi batzuen kapital-metaketan eta Andoaingo biztanleen habitatzeko problematikoan.

Horrela, 70. hamarkadatik aurrera Andoaingo etxebizitza eskaintzak, inguruko udalerrietatik etorritako biztanle berriak erakarriko zituen; izan ere, udalerriko biztanleriaren % 51,1 soilik egiten zuen lan Andoainean, gainerakoak, inguruko herrietako pertsonak ziren⁸⁶. Bada, udalerriko lan-eskaintza urria izanik eta jabetzako etxebizitzak norbanakoaren emantzipazio sinbolikoa islatzean bazuen, problematika sozial sakonetara baldintzatuko ziren udalerriko hurrengo belaunaldiak. Hemen 1986ko Udal Erroldaren sexu eta adinaren arabera biztanleri gazte-aktiboaren distribuzioa, 15.961 biztanle inguru zituen orduan Andoainek:

Adina	Gizon		Emakume		Guztira	
	Lanean	Lehen lan-bila	Lanean	Lehen lan-bila	Lanean	Lehen lan-bila
16-19	36	156	28	180	64	336
20-24	225	210	174	209	399	419
25-29	422	46	284	32	706	78
30-34	504	10	193	2	697	12
35-39	567		134	3	701	3

Zentzu honetan, 80. hamarkadarako Andoaingo gazteen langabezia tasa, eskualdekoa baino nabarmen handiagoa da⁸⁷. Izan ere, udalerriko bi langabeetatik bat, gaztea da eta lan egitea lortu dutenen erdiak baino gehiagok, bi lan-kontratatutik gora izan ditu. Era berean, lan egiten duten emakumeen % 70,3, 16-24 urte artean kokatzen dira; edonola ere, emakumeen langabezia tasa (% 36,6), gizonen % 24 baino altuagoa jarraitzen du izaten. Kontuan izan behar da, 25 urtetik gorako emakumeek, biztanleria ez-aktiboaren atal handi bat osatzen dutela, etxeko erreproduktzio lanetara baldintzatuta. Arlo akademikora begira, langabezia dauden gazteen % 41,2 soilik gauzatu ditu lehen hezkuntzako ikasketak, askok titulurik ez badute ere; aldiz, lan egiten duten emakumeen % 65, lehen hezkuntzako ikasketak besterik dituzte. Gainera, lehen lana bilatzen duten emakume langileak, udalerriko langabeen % 60 irudikatzen dute. "(...) se trata en muchos casos, de mujeres sin estudios ni experiencia alguna y con responsabilidades familiares, que se han visto obligadas a buscar empleo, por la pérdida de trabajo por parte del cabeza de familia"⁸⁸.

86 A.U.A.: *Estudio Socioeconómico de Andoain 1989*, 159 or.

87 1981-1986 urteetan Andoaingo 14-24 urte bitarteko gazteen langabezia tasa % 66,3 den bitartean, Donostialdean % 61,6 da; % 54,8 Tolosaldean eta Gipuzkoan % 59,7. A.U.A.: *Estudio Socioeconómico de Andoain 1989*, 163 or.

88 A.U.A.: *Estudio Socioeconómico de Andoain 1989*, 165 or.

Azken adibide honek, emakumearen lan-arloarekiko eranste prozesua islatzen duen bezala, soldatapeko lanarekiko dominazio baldintza ere islatzen du, zinez beharrezkoa egituratzen ari zen kontsumo hiri-eredua habitatzeko. Bestalde, udalerriko lan-eskaintzan sakondu ez izanak, aukera urri utzi zizkion gazteriari aurreko belaunaldietako langile zaharragoen lan-esperientziaren aurrean; hain justu, gizonezko aktiboen % 30 soilik ditu 30 urte baino gutxiago. *“La prolongación que está sufriendo el tiempo de desempleo en general, permite hablar del paro como un problema que se ha convertido en crónico. Por otro lado, el desánimo va cundiendo cada vez más entre los parados, y muchos de ellos han dejado de creer en la eficacia de su registro en las oficinas del I.N.E.M., así como en la de tener actualizadas sus cartillas de desempleo”*⁸⁹. Udaletxetik egiten den udalerrriaren garapenerako hautua, gutxi batzuen kapital-metaketa ahalbidetzen duten praktika parasitariotan oinarritzen hasten den heinean, are gehiago zailtzen du lan mundurako, eta hortaz bizitza estilo kapitalistarako, gazteriaren jauzia. Bada, inproduktibitate kapitalista mantra honen barruan txertatzen dira gazteriaren aurkako kriminalizazio prozesuak, beldurraren diskurtsoaz baliatzen direnak gizartearen aurrean errepresioa zilegitzeko eta kontrol mekanismoen beharra justifikatzeko.

Era berean, lan-merkatutik at geratzen diren emakumeen gehiengoak, udalerriko etxe eta auzoko arlor mugatuta ikusiko dute haien egunerokoa, zeren eta baldintzatuta zeuden espazio hauen inguruan haien sozializatorako sareak egituratzera. Baina 80. hamarkadarako, udalerrian egituratzen ari zen hirigintza ereduak, poligonoetako zerbitzu publikoen eta irisgarritasun ezagatik bereizten hasia zena, espazio isolatu hauetara mugatuko zuen jende apalaren eguneroko sozializazioa. Bada frankismoko «txabolismoaren» antzera, politika honek segregazio sozial bati erantzuten zion, migratzailez osaturiko poligonoen antolaketa sakabanatuari, alegia; are gehiago zaildu zuena herritarren arteko sozializazioa; eta bereziki, emakumearena. *“La exagerada extensión del suelo calificado, la no creación de una red viaria adecuada y el desarrollo mediante Planes Parciales yuxtapuestos sin directrices de ordenación general suficientes da lugar a importantes vacíos y a zonas edificadas con mala articulación tanto en el casco como entre ellas”*⁹⁰. Hau da, habitatzera saihesten zuen habitat artifiziala egituratu zen gradualki Andoainen.

4.6. Arau Subsidiarioetatik Hiri Antolamendurako Plan Orokorrera (2011): hirigintzarekiko paradigma ziklikoa

“1997. urtetik 2003. urtera arte soilik 252 etxebizitza eraiki dira; zenbaki hori ez da egokia inondik inora, aipatutako Hiri Antolaketakoko Arauetan egindako aurreikuspenak eta biztanleriak berak duen etxebizitza berriaren premiak askoz ere handiagoak baitira. Ekimen ausartik

⁸⁹ IBÍDEM, 161 or.

⁹⁰ A.U.A.: *Normas Subsidiarias de Planteamiento urbanístico de Andoain*, 1995, 14 or.

*egin ez denez, beraz, biztanleriaren hazkundea etenda egon da eta, egiazta daitekeen moduan, jende asko beste udalerrietara lekualdatu da*⁹¹.

1995ko Arau Subsidiarioetan irakurri daiteke, 1950-1975 urte artean Andoainek jasan zuen garapen intentsiboak, arazo larriak ekarri zituela azpiegitura eta ekipamendu publikoaren aldetik. Izan ere, 1966ko Planak aurreikusten zituen 280 hektareetatik urrun, 1995rako ez da 115 hektareara ailegatzen urbanizatu-tako espazioa, etxebizitza-parkearen % 12,29 hutsik egotearekin batera 1996an. Alabaina, Arau Subsidiarioen proposamena hiri-ehuna antolatzearen bidetik zihoan, etxebizitzaren auziaren inguruan soilik honen neurrigabeko eraikuntza problematika seinalatuz. Bada, hiri-espazioa antolatzeko erreminta honek, hirigintza jardunarekiko autonomia zabalagoa eskaini zien Udal gobernuei. *“Las Normas Subsidiarias se diferenciaban del Plan General en la no obligatoriedad de incorporación del Programa de Actuación, del Estudio Económico Financiero y en el aprovechamiento medio de todo suelo urbanizable”*⁹². Hain justu, orain arteko hiritartze intentsiboa zuzentzeko estrategia eraginkorragoa bezala aurkezten ziren Arau Subsidiarioak, alegia, 1966ko Plan Orokorrek Andoainen «lo-hiri» izaera zuzentzeko zuen xedea bezala.

Horrela, Andoaingo hiri-antolamendurako nahitaezkoztat jotzen dira azpiegitura eta ekipamendu publikoaren ugaltzea, hala nola hainbat auzoren kokapen ezegokia azpimarratzearekin batera. Honen aurrean, Arauek berreskuratze urbanistiko bat aldarrikatzen dute, zeinak hirigintza antolamendurako Plan Orokorretan ez ezik, Plan Partzialetan ere eragina izan behar duen. Hau da, ematen du udalerriko hirigintzaren norabidea dela Udaletxeak berreskuratu nahi zuena momentu honetan, 60-70 hamarkadetako ekimen pribatuetan oinarritu-tako hiritartze eredu intentsibo eta guztiz isolatuaren aurrean. Hain justu, hauek dira 1995ko Arauen argitalpena aurretik hiri-ehunaren lanketarekiko martxan zeuden proposamenak:

- Ekipamendu publiko aldetik, 1988an onartu zen 43 poligonoarekiko esku-hartze urbanistikoa, zeinetan egungo kiroldegia eta Ikastola eraikiko ziren; Oria ibaiaren ezker aldeko pasealekuarekin batera.
- Etxebizitza aurreikuspen neurtuaren harira, 1992an Sorabilla ingururako aurreikusten zen gehiegizko etxebizitza-parkearen —450 etxebizitza— antolamendua bideratu zen.
- Azkenik, 9 eta 10 poligono industrialen arteko lotura eta mugikortasuna hobetzearen bidetik egin zen proposamena 1992an. Eredu hau, Leizotz industrialdeak betetzen du egun.

91 *Andoaingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra*, 2011, 21 or., online: <https://www.andoain.eus/documents/131314/218446/ADokumentuaMemoria.pdf> (2021/05/19). Pasarte honetan, adibidez, diskurtsoaren intenzionalitatea nabarmena egiten da, ezerezetik beharizan sozial batekiko merkatu-eskaria sortuz.

92 LARRINAGA, Carlos: *op. cit.*, 182 or.



Ekipamendu publikora bideratutako 43 poligonoaren ikuspegia, 1989ko argazki honek etorkizuneko kiroldegiaren obra lanen hasiera islatzen du. Iturria: F.7.5/235. © Paisajes Españoles (1989).



Leizotz industrialdea aurkitzen den Gudarien Etorbidearen ikuspegi orokorra, bertako azpiegitura antolatzen 2000. urtean. Iturria: A.U.A., F.7.5/252. © Paisajes Españoles (2000).

Arau Subsidiarioak indarrean zeudela, etxebizitza eraikuntza geldoa izan zen aurreko hamarkadekin alderatzen bada, seguruenik hirigintza praktika neurtuak izan nahi zutelako, momentura arteko neurrigabeko praktikek eragindako hiri-ehunarekiko kalteak berriz ez errepikatzeko asmoz. Kontuan izan behar da, halaber, 1982an Arauen aldeko hautua egiten denetik, poligonoetako urbanizazio prozesuen gehiengoak amaitzeko zegoela oraindik, izan ere, prozesu hauetariko asko 90. hamarkadara arte bezala, XXI. mende hasierara arte luzatu ziren; 60. hamarkada amaieran urbanizatzeari ekin zitzaion 17 poligono problematikoa kasu. Bada, Arauen hiri-antolamendurako diskurtsoa azpiegituren lanketatik zihoanez, esparru hau garatzera bideratu zen oro har garaioko hirigintza.

Hain zuzen, ekipamendu publiko eta azpiegiturretara bideratutako lurra- ren gaineko lanketa guztiz urria izan da etxebizitza eraikuntzarekin alderatzen bada. Pentsa, 43 poligonoan proiektatzen den ekipamendu publikoa 1988an

proposatu zela, eta 90. hamarkadara arte ez zela honekiko esku-hartzerik eman. Are gehiago, ekipamendu publikora bideratutako poligono urbanizatu bakarra zen udalerrian 90. hamarkada amaierarako. Era berean, oraindik Andoaingo alde-zaharra degradaturik aurkezten da 1995ko Arauetan, eraikin zein azpiegitura aldetik; Zumea, Etxeberrieta eta Karrika auzoen arteko higikortasun-ehun hutsalaz mintzo da, baita Basteroko eremuaren irisgarritasun problematikoaz ere. Bada, aurreko hiri-antolamendurako txostenetan Oriá zein Leitzañan ibaien existentzia alde batera utzi dela salatzen du testuak, hirigunea moldekatzen duten heinean, garrantzi berezia merezi dutenak. Hain justu, Oriá eskuinaldean kokatzen zen 1950an proposaturiko zabalgunea, alabaina, espazio hau Zumea, Etxeberrieta eta Karrikako auzoak urbanizatu ahala okupatzen joan zen XXI. mendean zehar; bai etxebizitzaz zein mugikortasuna erraztuko zuen azpiegituraz.

Alabaina, 1995ko Arau Subsidiarioen ildo orokorra 1966ko HAPoaren berri-kuspenean oinarrituta sortu bazen ere, Plan Orokorren berrikusketa aldarrikatzen da behin baino gehiagotan Arauen idatzian zehar, guztiz desegokia suertatu baita orain arteko Andoaingo garapen urbanistikoa. *"A grandes rasgos, el Plan está sobredimensionado respecto a las necesidades y perspectivas de desarrollo del municipio; prevé la expansión urbana sobre áreas de topografía inadecuada; favorece la creación de núcleos urbanos periféricos desligados del centro de la población, faltos del debido entramado urbano, y provocando la aparición de espacios vacíos que rompen la continuidad del desarrollo; (...)"*⁹³. 2011ko Plan Orokorra indarrean sartu arte, 1.054 etxebizitza eraiki ziren Andoainen Arauen gidapean, eta hauen gehiengoa 1950an zehazten zen zabalgunean —Zumea eta Etxeberrieta auzoak—, garai bateko Algodonera inguruan eta Plazaolan kokatzen dira. Hirigunean txertatzen den Basteroko eremuak, halaber, XXI. mende hasieran jasan zuen urbanizazio prozesu nabarmena ekipamendu aldetik, udalerriko kultur-etxea bertan eraikiz; 43. poligonoarekin batera, hau izan zen etxebizitzarik gabe ekipamendu publikora bideratutako bigarren hirigintza proiektua. Azken honen bitartez, Goikoplazako hirigunea Zabalgune berriarekin lotzen zen, Kale Nagusia eta Bastero eremua oinezkoentzat egitearen bitartez.

93 A.U.A.: *Normas Subsidiarias de Planteamiento urbanístico de Andoain*, 1995, 16 or.



Zumea eta Etxeberrieta auzoen ikuspegi orokorra 2000. urtean, auzoen arteko higikortasuna N-1 errepide zaharrak ahalbidetzen zuen. Iturria: A.U.A., F.7.5/249. © Paisajes Españoles (2000).



Hirigunea eta zabalgunearen artean zegoen azpiegitura eza islatzen duen 2009ko argazkia, Zumea eta Etxeberrieta auzoetako etxebizitza berriak eraiki ziren arte, ekipamendu publikorik izan ez zuen eremuan. Iturria: A.U.A., 7042. © P. Pérez Markotegi (2009).



Andoaingo erdigunearen ikuspegi orokorra 2000. urtean, etorkizuneko Bastero Kulturgunearen obrak martxan zirela. Kontuan hartu behar da, bederen, hiri-ehunarekiko lanak XXI. mende hasierara arte luzatzen direla, eta jada 2004rako idazten zeudela 2011an onartuko zen Plan berria. Iturria, A.U.A., F.7.5/251. © Paisajes Españoles (2000).

Arau Subsidiarioak ordezkatzeko zituen hiri antolamendurako idatzi berria 2004an prestatzeari ekin zion Gurbain S. L. enpresak, eta 2007an jaso zuen lehen onespena proposamenak. Hala ere, 2009ra arte ez zaio behin-behineko onespenez izaera aitortzen txostenari, eta ez da izango 2011 arte, halaber, behin betiko onarpena jasotzen duela Hiri Antolamendurako Plan Orokor berriak. Izan ere, Planak PSE-EE eta PP alderrien aldeko botoekin soilik kontatu zuen, garaiko Udal Batzarrean zuten gehiengo baliatuz aurrera atera zutena⁹⁴. Arauetako diskurtsoan ez bezala, idatzi berriari urbanizatzeko lur gehiagoren beharra sortzen da «udalerraren premiei erantzunez». Horretarako, Andoain txertatzen den eskualdea hartzen du kontutan testuak, udalerraren habitatzeko errealia islatzen ez duten datuak aurkeztuz eta hauekiko garapen urbanistikoa garatzea ezinbestekoa dela aldarrikatuz.

⁹⁴ Andoaingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, 2011, 118 or.

"Andoaingo udal barrutia Donostialdea-Behe Bidasoako Eremu Funtzionalaren zati da. Eremu hori honako udalerriek osatzen dute: Andoain, Astigarraga, Donostia, Erreterria, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbil. Udalerri horiek 376 km²-ko azalera dute guztira, eta 386.00 biztanle. Beraz, biztanle dentsitate handiko lurraldea da —1.000 biz/km²— (...)"⁹⁵.

Ikuspegi neoliberalista global beretik, ikusi daiteke nola Udala Andoainen «lo-hiri» izaera beldurrez ikustetik, 1966ko Planean bezala, ezaugarri hau gorai-patzera pasatzen den mende berrirako. *"Andoain aproposa da, berez, biztanleak hartzeko: izan ere, kokaleku, lurralde eta ezaugarri bereziak baititu horretarako"*⁹⁶. Diskurtsoaren itxuraldaketa atzean, higiezinaren praktikak ahalbidetzen dituen kapital metaketak azpimarratu behar dira, hain justu 2007ra egin behar delarik atzera beratu ulertzeko. Izan ere, Estatu mailan hirigintza arloak izugarritzko kapitala mugitzen zuen momentu horretan, testuaren lanketa txertatzen den garaian, alegia. Hain zuzen, hiritartzeko udal hitzarmenek eta politika neoliberalak, higiezinaren enpresekiko duten gertutasuna dela medio, hirigintza praktikak administrazio lokalaren erreserba finantzarioan bilakatu dira maiz, eta kasu askotan, ustelkeria politikorako testuinguruak⁹⁷.

Hain zuzen ere, adreiluaren garai oparo honetan ulertu behar da Plan berriak proposatzen zituen 2.077 etxebizitza berriren eraikuntza. Horretarako, zegoen lur hiritargarriaz gain, 600.000 m² inguru sailkatzen ziren lur urbanizagarri moduan, zeintzuetatik 240.000 m² etxebizitza-parkera bideratuko zen eta 350.000 m² jarduera ekonomikoetara. Hain justu, Andoaingo garapena etxebizitzaren eskaintzan oinarritzen du Planak hein handi batean, horrela udalerriaren «lo-izaera» determinatuz. *"Gainera, ez da ahaztu behar Andoain oso erakargarria dela behin betiko asentamendu bezala bai herriko jendearentzat bai eskualdeko beste herrietatik, Donostialdetik zein Tolosaldeetik datorren jendearentzat, (...)"*⁹⁸. Ez da ahaztu behar, bederen, 2008ko krisia higiezinaren burbuilak leherrarazi zuela, zeinak espekulazio praktikak zituen oinarri. Honen harira, nabarmentzekoa da etxebizitzaren gaineko praktika espekulatiboen jatorria frankismo garaian txertatu dutela hainbat ikerketak. Eta ez hori bakarrik, frankismoan hasi eta egun ere jardun berean diharduten enpresak izango lirake hauek; jabetzako etxebizitzaren kulturaren bitartez, praktika parasitarioen ugaltzea sustatu zutenak. *"Han identificado, sin lugar a dudas, el origen de la especulación urbanística, que se alimenta de la cultura de propiedad de la vivienda, en la actividad de sectores autoritarios del capitalismo español, que apoyaron, y se apoyaron, en Franco, y continúan liderando los negocios inmobiliarios en la etapa democrática"*⁹⁹

95 *IBÍDEM*, 14 or.

96 *IBÍDEM*, 24 or.

97 MESA DEL CASTILLO, Miguel: *op. cit.*, 126 or. XXI. mendeko lehen hamarkadan zehar, higiezinaren enpresek eta politikariek zerikusia zuten ustelkeria kasu nabarmenak kaleratu ziren Estatu mailan; nahiz eta praktika ustel hauek, frankismo garaitik praktikatu diren. Andoainen ere, 25 eta 17 poligonoen urbanizazio prozesuetan, Udaletxearen papera zalantzarria izan zela ikusi da.

98 *Andoaingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra*, 2011, 14 or.

99 CANDELA, Jose: *op. cit.*, 16 or.

4.6.1. Lo-hiria izatera baldintzatutako udalerria

*"Ordutik [1981] hona [2011], biztanle kopurua jaisten ari da etengabe, beherakada hori oso nabarmena izan delarik zenbait garaitan. Egoitza arloko garapen ekimenik ez da izan, etxebizitza berrien eraikuntza etenda geratu da eta lehendik nahiko handia izan arren nolabait degradatuta zegoen herrigunea birgaitzeko ekimenik ez da izan. Ondorioz etxebizitza berriaren bila zebilen jendeak beste udalerrietara jo du eta horrek, jakina, jaiotza-tasaren beherakada zorrotza ekarri du biztanleriaren zahartze nabarmenarekin batera"*¹⁰⁰.

Bada, udalerriko demografia galera funtsezko gertakaria da Planarentzat, izan ere, Andoainen lo-izaera berreste horretan, etxebizitza berria eskaintzeko justifikazioa dago bertan. Hain zuzen, hirigintza prozesuen moteltzeari eta etxebizitza berrien eraikuntza gutxitzeari egokitzen zaio errua, idatziaren egileek ez balekitez bezala, etxebizitza izateko beharrezko osagaia kapitala dela, eta berau, lan-indarraren salmentaz ez besterik eskuratzen duela pertsonen gehiengoak. Zentzu honetan, etxebizitzarako sarrera lanak baldintzatzen duela esan daiteke, zeinari dagoeneko ez zaion ikuspuntu lokal batetik erreparatzen; orain ordea, diskurtso neoliberalaren malgutasunari esker, udalerria espazio global batean kokatzen da, tokiko problematikaren errealitatea lausotuz. *"Biztanleria, hezkuntza eta enplegua bezalako gaietan, eta etxebizitzena edo okupazio maila bezalako beste batzuetan, kontuan hartu behar da Andoain, osotasun moduan ulertu behar dela, hau da, multzo hiritar zabalago moduan alegia; izan ere, harreman zuzena baitu udalerrri mugakideekin, eta batez ere Donostiarekin, Eskualdearen funtsezko gunea den heinean"*.

Zentzu batean etxebizitzaren eraikuntza moteldu bada ere, Arau Subsidiarioak irauin bitartean, egoera ez da Plan Orokor berriak irudikatzen duen modukoa. Izan ere, hurrengo koadroan ikusi daitekeen bezala, etxebizitza eraikuntza izan da Arauek zehaztutako aurreikuspenak gainditu dituen arlo bakarra. Ez da ahaztu behar, bederen, Arauen helburua hiri-ehuna trinkotzea zela, eta etxebizitza-parkearen hazkundea bigarren plano batean aurkitzen zela; hala ere, etxebizitza berriaren aldeko hautua nabarmena da beste behin ere Andoainen.

2011ko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrek eskainitako datuekin osatutako taula:

	Arau Subsidiarioen aurreikuspena	2011ko HAPOn aurretiko egoera
LH-Egoitza erabilerak	769.204 m ² % 39,36	884.423 m ² % 50
LH-Industria erabilerak	806.910 m ² % 41,29	638.207 m ² % 36
LH-Ekipamendua	112.140 m ² % 5,74	85.321 m ² % 5
SO-bideak, trenbidea-	265.800 m ² % 13,60	150.395 m ² % 9
LH+SO Guztira	1.954.054 m ² % 7,22	1.758.310 m ² % 100

LH: Lur hiritarra SO: Sistema orokorrak

¹⁰⁰ Andoaingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, 2011, 15 or.

Txostenak aurkezten duen arazo demografiko honen aurrean, hiritartze praktiken bitartez biztanleriaren ongizatea bermatuko dela defendatzen da idatzian behin eta berriz, zentzu batean hala dena: bide berdeak, espazio publikoen berrekipamendua, higigarritasunean hobekuntza, etab. Baina arlo honek, Arau Subsidiarioen kasuan ikusi den moduan, apenas betetzen du espazio txiki bat etxebizitzaren erakuntza programaren aurrean. *“Gainera, adierazitakoaren ondorioz, kontuan izan behar da lurzoru erabilgarriaren eskaintza urria dela; eta lurzoru hori behar-beharrezkoa da egoitza eta jarduera ekonomikoen garapen berriak ezartzeko, udalerriarren premiei erantzunez”*¹⁰¹. Bada, ezin daiteke norabide hau udalerriarren premien barruan ulertu, izan ere, hiritartzeko lur gehiagoren ustiapena bultzatzeak lurra-
ren gaineko prezioen gorakada dakarrelako; gerora, urbanizatutako eremuaren bizi-kostuaren garestitzean itzultzen dena, udalerriko habitatzea gero eta gehiago kapital-baliabideetara baldintzatuz. Bada, babes ofizialeko etxeak proposatzen badira ere hiri antolamendu honetan, zailtasunez egongo dira etorkizunean hauek babestuak; ikusi besterik ez da XXI. menderako Andoainek duen etxebizitza hutsen kantitatea, zeinak erakusten duen etxebizitzak jasotzen duen babes instituzionala: merkatu produktu batena, alegia.

2011ko HAPOean aurkitzen den taula, urteen arabera —22 urtez— biztanleria, etxebizitza kopurua eta honen okupazioa aztertzen dituena:

Urtea	Biztanleria	Etxeb. kopurua	Etxebizitza okupatua	Okupazioaren %	Etxeb. hutsa	Etxeb. hutsa %
1986	15.961	4.984	4.304	86,98	644	13,02
1991	15.129	4.984	4.335	86,98	649	13,02
1996	14.526	5.110	4.482	87,71	628	12,29
2001	13.814	5.392	4.715	87,44	677	12,56
2005	13.731	5.669	4.957	87,44	712	12,56
2008	14.414	6.629	5.747	86,73	879	13,27

Bada, XXI. mendeko lehen hamarkadan eztanda egin zuen higiezinen burbui-
laren logiken baitan txertatzen dira idatziaren nondik norakoak. Hain zuzen ere, lur hiritargarria handitzeko xedea udalerririk honekiko «duen» premiaren bitartez justifikatzen da, baina finean, premia artifizial horrek gerora lurraren balioa handitu besterik ez du egiten; ez baitu bestelako ekarpen sozialik eskaintzen hirigintza eredu isolatu honek. Bada, ezin daitezke Planean egiten diren aurreikuspenak ulertu ez badira klase kapitalistaren eta langile-klasearen arteko distantzia gero eta gehiago materializatzeko estrategiaren baitan txertatzen. Izan ere, ekipamendu eta irisgarritasun aldetik kadentziak nabari diren eta bizitzako gastuei aurre egiteko lan-eskaintza mekanismo egonkorrik ez duen udalerririk batean, ezin daiteke

101 *IBÍDEM*, 14 or.

etxebizitza berriaren eskaria izan premiarik larriena. Ildo beretik, udalerrriak duen etxebizitza hutsen kantitatea XXI. mende hasierarako guztiz esanguratsua da, hirigintza logikak agerian uzteaz gain, aipatu diren praktika parasitarioen erreprodukzioa direnaren ustea sendotuz: oraindik ere, etxebizitza berri gehiagoren eraikuntza udalerrriaren onurarako aldarrikatzean. Alabaina, Arau Subsidiarioek urbanizazio eredia birpentsatzea proposatzen bazuten, idatzian bederen, 2011ko HAPOak ez ikusiarena egiten du Arauek salatzen zuten gehiegizko aurreikuspen eta hiri-ehunaren problematikarekiko.

Honen harira, hurrengo hiritartze proiektuak azken Plan honen harira jaso zuten behin-behineko onarpena. Bada, kontuan izan behar da momentuko atzeraldi ekonomikoa, zeinaren baitan lehentasuneko tratua jasotzen duten proiektuok, beste beharrian komunak aurrean. Zentzu honetan, bi hirigintza foku bereizi daitezke etorkizuneko Andoainerako: hirigunearen urbanizazio gradualari erreferentzia egiten diona eta intentsitate handiagoko urbanizazio isolatuagoak direnak; betiere antolamendu plan orokor baten barruan aurkezten direnak. Lehenengoaren kasuan, Andoaingo zabalgunean zentratu da jardunaren gehiengoa, izan ere, egungo Zumea, Etxeberrieta eta Karrikako auzoak, etxebizitzaren eraikuntzaren bitartez konektatu dira. Honek eragin du, beste behin, promotoreek etxebizitzaren eraikuntzari lehentasun osoa eskaintzea, beharrezko azpiegiturak bigarren plano batean utziz; premia etxebizitza berriaren eskaintza merkaturatzea baita. Bada Etxeberrieta auzoan kokatzen dira eraiki diren Udalerriko azken bi etxebizitzak, egungo Gaztetxearen ondoan. Baina kontua da, Zabalguneko hiri-ehuna etxebizitzaren eraikuntzaren bitartez ehundu den heinean, ez dela ekipamendu edo azpiegitura publikoen garapenerako interesik sustatu; hau da, ekipamendua behin poligonoak etxebizitzaz betetzean gauzatu edo sustatu da kasurik onenean, nahiz eta habitatzearen praktikan hau jatorrizko beharrezana izan. Alegia, Ori ibai ondortik doan paseoa eta bertan dagoen ekipamendu publikoa, ez da inguru horretako eraikinak sortu ziren arte gauzatu.

Problematika honen adibide bat 2006an eraiki ziren Algodonerako Emakumeen Plazako etxebizitzetan topatu daiteke, Karrika auzoko Aiztondo kalea bukatu eta Etxeberrieta auzoko Martin Ugalde kalea hasten den gunean. Bertan, espaloia nabarmen estutzen da hesitura baten laguntzaz, lokal komertzialerako baimena zuen baina garajeetan bilakatu zen lur-azpiko espazioak sortzen duen metro eta erdiko zabalera duen zulo batekin batera; oinezkoentzat eta bereziki haurrentzat arriskutsua dena. Honen harira, erantzukizuna eskatu zaie Udaletxeari zein Eusko Jaurlaritzari bizilagunen komunitatearen aldetik¹⁰².

102 Idatziaren amaieran bideo bat dago, primeran jasotzen duena zein den espazioaren egoera. Aiurri (2020/10/09).



Espazioaren ikuspegi orokorra gaur egun, oraindik bere garaian kokatutako behin-behineko harresia mantentzen da errepide altueran. Norberaren argazkia (2021/07/29).

4.6.2. *Garatzear dauden hirigintza proiektuak: lurraren gaineko ustiapen neurrigabeak ez du etenik*

Gauzak horrela, beste hirigintza fokua Ama Kandida Etorbidearen inguruan kokatzen da, eta azken urteetako hiritartze programarik biziena da. 2011Ko HAPOak zehazten duen moduan, Ama Kandida Etorbidean aurkitzen diren industria eraikinak —Nafarroa Plazarekin bat egiten duen muinoaren magalean— egoitzengatik aldatu nahi dira, eremua tertziarizazio prozesu batean murgiltzearekin batera; bada, prozesua Bazkardo auzora hedatzea proposatzen du era berean Planak. Izan ere, espaioren alde honetan etxebizitza-parke berri bat sortu nahi den moduan eraikitzen ari dira parean arlo ekonomikoetara bideratutako merkataritza gun e erraldoi bat, eta haren ondoan beste dentsitate txikiagoko etxebizitza-parkea onartu da.

Hain justu, hirigune berri bat aurreikusten da jada urbanizatzen hasi den espazio zabal horretan, jabetzako etxebizitzan eta zerbitzuen eskaintzan oinarrituko den espazio artifizial berri bat. Kontuan hartzekoa da, bai Ama Kandida Etorbideko etxebizitza proiektua, bai parean eraikitzen ari diren industria gunea —eremu bereko etorkizuneko etxebizitzekin batera—, ekimen pribatuetan dutela jatorria; hortaz, ez dutela zertan Udaletxeari azalpenik zor. Txanponaren bestaldean, Zabalguneak higikortasun problematikak izan dituen moduan, ezin da ahaztu Bazkardoko errepide lotuneak urte luzez eragin duen gehiegizko kutsadura akustikoa; azken urteetan gehitu den errepide sare berriak arazoa biziagotu besterik egin ez duela, eta zainaren aurrean inolako neurririk hartu ez dela salatzen da komunitatetik.

Bada, Ama Kandida Etorbidean aurreikusten den urbanizazio proiektua 2011an ikusi zuen argia lehen aldiz. Proiektua ekimen pribatuan oinarritzen da, soilik inizatiba publikoekin koordinatzeko aukera zabaltzen duela. Zentzu honetan, 45.800 m²ko espazio hiritargarria aurreikusten du proiektuak: 7.000 m² erabilera tertziarioentzat eta 38.000 m² etxebizitza eraikuntzarentzat. Egun, 36.058 m²ko azalera du eremuak, zeintzuetatik erdia baino gehiago industria arloko eraikinek okupatzen duten, beste espazioa, etxebizitzek zein Nafarroa Plaza eta Ama Kandida Hiribidearen artean aurkitzen den urbanizatu gabeko lur eremua osatzen dute. Hau zehazten du memoriak proiektuak dituen helburuaren inguruan: “(...) *el objetivo municipal planteado con la clasificación y la calificación de este ámbito, es la sustitución de los usos industriales obsoletos, la creación de una nueva zona residencial y la previsión en la misma de un importante programa de viviendas de protección pública, (...)*”¹⁰³. Bada, aurreikusten diren 346 etxebizitzetatik 100 soilik txertatuko lirateke babes ofizialeko programa batean, proiektuaren memoriaren arabera.



Proiektuaren aurreikuspena egungo eremura aplikatuta eta proposatzen den urbanizatzeko espazioaren muga, gorriz. Iturria online: Plan Especial de Ordenación Urbana del A.I.U.5 “Ama Kandida” Andoain (2021/07/15).

103 *Plan Especial de Ordenación Urbana del A.I.U. 5-Ama Kandida del Plan General de Ordenación Urbana de Andoain*, 2019, 4 or., Andoingo Udaletxearen web orrialdean eskuragarri.

Halaber, aipamen berezia merezi du Ziako erreka ttipiak, zeina Ama Kandida Etorbide osoa zeharkatzen duen Oria ibaian isuri arte haren urak. Izan ere, urbanizazioa garatzeko erreka traba naturala izan liteke, eta horregatik, Gipuzkoako Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak izango lukete azken hitza proiektuarekin aurrera jarraitzeko, txostenaren arabera. Hirigintza praktiken aurrean Ziakok aurkezten duen problematikari aurre egiteko, egun duen estaldura artifiziaia kentzea proposatu da, aire zabaleko ibilbidea proiektatuz Oria ibairantz. Bi ibaien arteko bateratzea Bazkardon kokatzen da, alabaina, Gipuzkoako Ur Partzuergoak erreka gainera esku-hartzea oniritzi duen bitartean, hamarkadaz-hamarkada luzatu den Bazkardoko errepide lotunearen problematikaren harira, momentuz Aldundiaren eta Udalaren arteko bilera batera ailegatu da¹⁰⁴. Hain zuzen ere, Udaletxetik zein Gipuzkoako Ur Partzuergotik Ziakon gauzatu behar den esku-hartzeari lehentasunezko izaera aitortu zaio dagoeneko, "*Ziakoren gaitasun hidraulikoa handitzearekin, Andoaingo eskaera historiko bati erantzuten zaio, eta Ama Kandida eta Bazkardo etorkizuneko hirigintza-garapenak desblokeatzen ditugu*"¹⁰⁵. Beharbada, azken puntu honetan dago premiaren zergatia, 2011tik aurreikusten zen urbanizazioan, alegia.

Zeren eta Bazkardorako ere, urbanizazio prozesu esanguratsu bat aurreikusten zuen 2011ko HAPOak, 526 etxebizitza ingurukoa, etxebizitza eraberritu eta etxebizitza berrien eraikuntzarekin gauzatu zena. Horretarako, lehenik auzoko SAPA Placencia enpresaren lekualdaketa behartua plazaratzen da, industria alorrerako erabilera duen lur hiritargarrian kokatzen dena eta hain justu behin-behineko onarpena duena 2019tik; Andoaingo Udalaren web orrialdean ikusi daitekeen moduan. Aurretik, tirabirak izan ziren hirigintza prozesu honen aurrean, enpresaren eta Udaletxearen arteko 2006ko akordioa guztiz interesatua izan zela salatzeraino. Udaletxetik, akordioak enpresaren deslokalizazioa ekiditeko estrategiari erantzuten ziola esan zen, soilik muinean, etxebizitza multzo berri baten eraikuntza zehazten zela, hiri-antolamendurako Arau Subsidiarioek jasotzen zuten hirigintza mugatua kontuan hartu gabe. Edonola ere, 2011ko HAPOak Udaletxearen hirigintza ikuspuntua jaso eta sustatu zuen, Bazkardorako hiritartze proiektu esanguratsu bat aurreikusiz. Momentuz, badirudi enpresa Leizotz industrialdean dagoen Antzizu ingurura lekualdatuko dela etorkizun batean, bide eman ez beste behin etxebizitzaren eraikuntzari.

104 Aldundiaren eta Udalaren arteko bilera, Bazkardoko lotuneari buruzko azterlanen ondorioak aztertzeko, Aiurri, 2021/07/15, online: <https://aiurri.eus/andoain/1626338666702> (2021/07/15).

105 Hemen Eusko Jaurlaritzak argitaratutako albistea: *URAK Andoaingo Ziako erreka uholdeetatik babesteko proiektuaren erredakzioa lizitatu du*, 2021/02/21, online: euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/albistea/2021/urak-andoaingo-ziako-errekaren-uholdeetatik-babesteko-proiektuaren-erredakzioa-lizitatu-du (2021/07/15).



SAPA enpresaren kokapena irudikatzen duen 2007ko argazkia, alboan Alejandro Calonge etxebizitzak. Iturria, A.U.A., 7531, © Paisajes Españoles (2007).

Proiektu hauekin batera, Agirialai inguruan garatu nahi den urbanizazioa dago, zeina proiektu handiago baten barruan txertatu behar den. Izan ere, Agirialaiko urbanizazioa sustatzen duen Balfer Norte S. L. promotora pribatuak, beste urbanizazio paralelo bat gauzatzen ari da Illaramendi eremuan. Bada, 91.26 m²ko zabalera duen industria gunea urbanizatzeari ekin zaio dagoeneko, eta kontsumo zerbitzuetara bideratuko da berau: hipermerkatuak, jatetxeak; hotela eraikitzea ere proposatu da bertan. Merkataritza gunea bi zatitan banatu nahi da: merkatal gunea izatera bideratu nahi da iparraldeko eremua eta hegoaldekoa, ostalaritza arlora. Eraiki nahi diren etxebizitzak, berriz, egungo Zaharren Egoitza atzealdeko belazean kokatuko lirateke, 43.730 m² zabalerako lur-hiritargarrarian, zeintzuetatik 15.650 m² etxebizitzentzat eta 5.200 m² ekipamendu publikoarentzat bideratu nahi diren, 2019ko proiektuaren memoriari erreparaturaz. Aipamen berezia merezi dute, bederen, lurraren gaineko ustiapen neurrigabe honen eraginez aurretik eraman diren eta udalerriko ondare diren baserriak¹⁰⁶; nolabait, inguruarekiko orekan eta burujabetasun baten oinarrian erreproduzitzen zen bizitza eredua porlanezko habitat artifizialak irentsi duelako, azken honen izaera (des)eraikitzailea berretsiz.

106 Illaramendi baserria, Perikotegi baserria eta Ikutza Berri izan dira proiektu honen harira suntsitutakoak. Hemen prozesu honen harira jasotako erreportajea. LASA, Xabier: *Illaramendiren atzetik, Ikutzaberri baserria eraitsi dute*, Aiurri, 2020/06/14, online: <https://aiurri.eus/andoain/1592117361189> (2021/06/28).



Merkataritza-guneak izango duen zabalera irudikatzen duen planoak; Illarramendi baserria eraitsi aurretiko argazkian. Iturria: online. Urbanización polígono Illarramendi (2021/07/15).



Agirilai ingururako aurreikusita dagoen etxebizitzaren eraikuntzak hartuko lukeen espazioa; ikusi daitekeenez, merkataritza-gunearekin bat egingo luke mendebaldean. Iturria: A.I.U. 45 "Agirilai", Documento 1, Memoria, Balfer Norte, S. L., 2019.

4.7. Andoaingo etxebizitza ikerketak: enpirismoa eta positibismoa agerian

Gauzak honela, Andoaingo etxebizitzaren diagnostikoa egin duten 3 ikerketa aztertu dira azkenik, etxebizitza eskaria ardatz, demografiaren eta etxebizitza parkearen arteko korrelazioa lantzen dutenak. Aukeraketa hau, 2011ko Planaren estrategia aldaketaren harira dator, zeinetan Andoainen «lo-hiri» izaera aldarrikatzen den, horretarako, etxebizitza berriaren eskaintza ahalbidetzen duen esku-hartze urbanistikoaren bitartez jende gehiagoren erakartzea sustatuz. Era berean, ikerketa hauek jabetzako etxebizitzaren aldeko desira orokortua islatzen dute, ulertu ezin daitekeena kultura diziplinatu honen jatorri ideologikoa kontuan hartu gabe. Horrela, hauek dira kronologikoki Udaletxeak eskatuta egin diren etxebizitza ikerketak: 1991-1993 birtartean, «Urbiker» aholkularitza bulego teknikoaren lana dago; honekin batera, «Ikertalde» aholkularitza taldearen 2002ko txostena eta 2017ko ikerketa azkenik. Bada, lehen bi txostenek etxebizitza eskariaren azterketa gauzatzen duten heinean, azkenak Andoaingo etxebizitza hutsaren diagnostikoa egiten du.

Guztiak, aholkularitza enpresek gauzatu dituzte, adierazgarria delarik haue-tan egiten den arazoarekiko gerturatze eta argudiatze deskribatzailea. Higiezinen merkatuaren araberrako ikerketa egiten duten heinean, komenigarria da ikerketa soziodemografikoetan lehenesten den positibismo-enpirikoaren ohitura aipatzea; zeina ideologia politikotik ihesi, objektibotasunaren eta kuantifikazio argumen-tuen atzean defendatzen den. Horrela, gatazkarik gabeko adostasuna bilatzen da metodologia honen bitartez: ematen diren iritziak, neutralak eta adituak dira; eta botere-harremanetan oinarritzen den jakintza, norbanakoaren balio ideologikoen-gatik zeharkatzea ukatzen da. Bada, datu enpirikoak lehenesten badira, ikerketok «jakintza» ondasunean transformatzeko duten erraztasunagatik izango da: institu-zioen lehiakortasun desiren arabera, kontabilizatu eta ebaluatu daitekeen «jakin-tza» sortzen dutelako. *“Se deja de pensar en un problema para pensar en cómo rellenar una propuesta de subvención sobre dicho problema. Esto vuelve superficial la «investigación»: esta consiste en acumular datos, rara vez implica pensar en profundidad sobre un problema, y, desde luego, no implica formular conceptos sobre dicho problema, ni comprometerse políticamente. Esto no ayuda a desarrollar una comprensión más profunda y crítica de la problemática urbana”*¹⁰⁷.

4.7.1. Urbiker (1991-1993)

Urbiker ikerketa taldeak ekin zion 1991an Andoaingo etxebizitza eskariaren analisisa egiteari, 20-64 urte bitarteko 344 pertsona elkarriketatuz. 1993an argita-ratutako datuen arabera, udalerrian etxebizitza eskatzen zutenen artetik: % 51,4 batek, lehendabiziko etxebizitza eskariari egiten dio erreferentzia, zeinetan biko-teak nabarmentzen diren; beste % 30,6 batek, hobekuntza kualitatiboa —ikerke-tan deritzon moduan— dela eta, etxebizitzaz aldatzeko premia sumatzen dute; eta

107 MERRIFIELD, Andy: *op. cit.*, 32-33 orr.

azkenik, badago % 18 bat ez duena intentziorik zuzenean etxebizitza habitatzeko, baizik eta hau etorkizunerako inbertsio moduan hartu. Era berean, eskatzaileen % 93,1 jabetzako etxebizitzaren alde posizionatzen zen bitartean, % 6,9 batek alokairuaren alde egin zuen. Hitz gutxitan azaltzen du idatziak hau, izan ere, alokairuaren alde egiten duenak, erosketari aurre egiteko baliabiderik ez duelako dela zehazten baitu.

Horrela, baliabideen aldetik hiru eskatzaile talde bereizten ditu: baliabide ekonomiko gehien duen taldea, inbertitzeko aukera urrien dutenen antzeko portzentaia irudikatzen duena, eta bi aurrekontuen artean txertatzen den eskatzaileen taldea, gehiengoa osatzen duena. Baina guztiek onartzen zuten bitartean babes ofizialeko etxebizitzaren eskaintza, eskatzaileen % 38,9 batek, behar zuen etxebizitza eskuratzeko ekonomikoki gai ez zirela aditzera ematen dute, nahiz eta jabetzako etxebizitzaren aldeko desira adierazi.

Zentzu honetan, eskatzaileen % 60 momentuan aktiboak diren pertsonak dira, eta beste % 40a etxeko espaziora mugatutako emakumeak, ikasleak eta pentsiodunak osatzen dute. Aktibo dauden pertsonetatik, % 73,3 soldatapeko langile kualifikatuak dira; langile teknikoak % 10a dira; eta % 16ak enpresari eta direktibo-ejekutiboegi egiten die erreferentzia. Kontuan hartuta 1991an Andoaingo biztanleria 15.271 pertsonetakoa zela eta ikerketak 344 pertsonen errealitatea biltzen duela, ildo orokor batetik esan daiteke 90. hamarkadarako jada, jabetzako etxebizitzarekiko lehentasuna norberaren klase-baldintzaz ahaztuta erreproduzitzen zela eta hortaz, zorpetze ekonomikoarekiko praktika normalizatuz.

4.7.2. Ikertalde (2002)

Ikertalderen lehen ikerketa honek, 639 etxebizitza eskari aztertzen ditu. Hauetatik 413, lehen etxebizitzarako sarrera islatzen dute (% 64,4), eta beste 225ak (% 35,4), etxebizitza aldaketa. Bi habitatzeko esperientzia desberdin aurkitzen dira eskaeren artean: lehena, 26 urteren bueltan lehen etxebizitzarako sarrera bilatzen dutenak; eta bigarrena, 40 urte inguruko familia buruak, etxebizitzaz aldatu nahi dutenak. Bada, eskatzaile guztien % 64ak etxebizitza berri bat nahi duen bitartean, % 32,4ari berdina zaio. Halaber, % 90ak jabetzako etxebizitzaren aldeko nahia adierazten du, eta soilik etxebizitzarako sarrera lortzekotan, eskatzaileen % 44,7ak onartuko luke hau alokairuan; betiere, etxebizitzaren etorkizuneko erosketa egiteko aproposa bazaie. Aipagarria da, bederen, etxebizitzaz aldatu nahi dutenak momentuan alokairuan aurkitzen diren gehiengoa direla, eta etorkizuneko jabetzako etxebizitzak alegia, bereganatu beharreko garaikur sinboliko gisa barneratu dutela.

Baliabide ekonomikoaren aldetik, % 60ak indibiduo bakarraren bitartez jasozten ditu diru-sarrerak; % 31,9ak, pertsona bat baino gehiagoren bitartez; eta gero badaude 29 kasu, erantzunik eman ez dutenak. Era berean, kredituen eskaera nahitaezko praktikatzat asimilatzen dute 639 eskatzaileek, hauetatik soilik 12ik mailerik eskatuko ez badu ere. Bada, eskatzaile guztien artean % 67,5ak aurrezki

propioak ditu hasierako ordainketa lausotzeko. Gainera, familiaren laguntza ere azpimarratzen da, seme-alaben etxebizitzarako sarrera diruz laguntzeko prest dauden gurasoak; bada, % 50,5ak laguntza hau izateko aukera aipatzen du. Honekin batera, 17 pertsonen ondasun baten salmenta seinatzen dute kapitala eskuratzeko aukera moduan; bestalde, beste 23 pertsonen etxebizitza kudeatzeko inolako diru-sarrerarik ez dutela adierazten dute.

4.7.3. Ikertalde (2017)

Bada, Andoaingo etxebizitza parkearen % 86 inguru aztertu ondoren, 5.000 etxebizitzatik gora, soilik % 4,1 (207) etxebizitza hutsek osatzen dutela zehazten du ikerketak. Halere, kontuan izan behar da kopuru hau higiezin merkatuan txertatu —kudeatu— daitezken etxeei egiten diola soilik erreferentzia: berez, 310ekoa izango litzateke etxe hutsen kopurua, soilik horietatik 63 habitatu diren etxe berriak direla; 29 berritze integrala behar dutela; eta beste 11, Udaletxe eta eraikitzaileen jabegokoak direla. Oro har, etxebizitza guzti hauen % 95a egoitza moduan erabili da, eta 207 etxe hauetatik, 133 (% 64,5) kudeatu daitezkeen etxebizitzak dira. Zeren eta kudeatu ezin daitezkeen artean, 39 salmentara bideratuta daude; 13 alokairura; eta beste 12 ezin dira momentuan kudeatu, jabeak ospitalean edo zaharren egoitzan daudelako. Aipagarria da etxebizitza guzti hauen artean, soilik jabeen % 11 egongo litzatekeela etorkizunean berau alokairuan jartzeko prest. Jabetzako etxebizitza hutsa kudeatzeko orduan, gehiengo batek salmentaren alde egiten du, oinordetzaren kasuan, honek gauzatzen dituen problematikak seinaltzen dituztela. Halaber, salmentaren bitartez beste etxebizitza erosteko helburua dutenak ere badira.

Azkenik, guztiz esanguratsua da Andoaingo etxebizitza bakoitzeko bizi den pertsona kopuruaren indizea. Bada, lau egoitzatik batean pertsona bakarra bizi da eta. Baina ez udalerrian soilik, Gipuzkoak antzeko ehunekoa biltzen du bakarrik bizi diren pertsonetik; 2016an, 2,4 pertsona zenbatzen dira etxebizitza bakoitzeko Andoainen, eta Gipuzkoan 2,5. Bestalde, Andoainen babes ofizialeko etxebizitzaren kopurua ia EAEkoaren bikoitza da: udalerriko etxebizitza parkearen % 12,5 (800 inguru) osatzen dute, EAEn oro har % 7,5. Izan ere, 2011ko HAPOak Andoainekiko egiten zuen irakurketa globalizatzailearen harira, Andoainen «lo-hiri» determinazioa Gipuzkoako Aldunditik sustatu den bezala sustatu da Eusko Jaurlaritzatik; zeren eta eraikuntzaren alorrean, azkar batean jaso du udalerririk instituzioen onespina, baita dirulaguntzak ere. Hori baita beharbada Andoainen eginkizuna Eusko Jaurlaritzaren estrategia geopolitikoaren barruan.

4.8. Etxebizitza ereduarekiko konformismo jarraitua

Lehen begiradapean, ikerketa hauek problematika onartua daukatela ematen du, habitatzeko xedea izan behar duen etxebizitza merkatu testuinguruan une oro txertatuz. Egia da, etxebizitza eskariaren atzean dagoen ikerketa

soziodemografiko bat egiten dela, eta honetan, arazoak azaleratzen direla. Baina era berean, ikerketa batetik bestera denbora pasatzen ez dela ematen du; finean, etxebizitzarako sarrera ukatua edo mugatua, belaunaldiz belaunaldi erreproduzitzen den baldintza delako. Horregatik, horrelakoen aurrean, ikerketa espezializatu hauen izaera deskribatzaile eta neutroa salatzen da; problematika erreala, egunerokoan zehar sumatzen dutena biztanleek, merkatu interesa duten datu kuantitatiboan oihalen bitartez estaltzen delako. Bada, metodologia honen bitartez, epe laburreko ebazpenak besterik ez dira eskaintzen, eta ez aurre egite horretan, kapitalismoaren izaera ziklikoa medio, baldintzen erreprodukzioa gauzatzeko askatasun osoa du ereduak.

Horrela, etxebizitzarako sarrera bermea norbanakoaren zorpetzearen araberakoa izatea zehazten da, bai ikerketen oniritziz, zein botere-klasearen interesez. Zorpetze prozesu hau, norberaren soldatapeko lanarekiko lotura jarraitua adieraztea ez ezik, gertuko pertsonen zorpetzean ere eragiten du. Adibidez, nahiz eta alokairua zein etxebizitza erosketa prezioak ez egon langileriaaren soldata orokorrekiko akorde, etxebizitzarako sarrera gauzatzen da, beharrezkoa delako; baina trukean, eskura dauden baliabide guztiez gain, norberaren etorkizuneko urteak zorpetzearen bitartez baldintzatuz. Baina ikerketa hauek, ez dute asaldatura sentzaziorik islatzen jendea horrelako praktiketara behartuta dagoela adieraztean; ez da harritzen ere habitagarri dauden etxe hutsen kopuruarekin, eta are gutxiago, eskualdean eta Andoainen etxebizitzako bizi den pertsona kantitate urriarekin; hauen gehiengo handi bat adineko jendeak osatzen badu ere. Alabaina, etxebizitza hutsak merkaturatzeko premia larria islatzen dute, ezinbesteko mekanismo bezala aurkezten dena etxebizitza eskaintzeko; «Etxebide» Eusko Jaurlaritzako programa kasu.

Horrela, neoliberalismo basatiaren testuinguruan, aintzakotzat hartuta hiri-gintzak eragiten duen kapital zirkulazio jarraitua, etxebizitzarako sarrera duina ezak eragiten duen problematika sakonaren onarpena irudikatzen dute ikerketa hauek; ez baita logika —jarraibide diziplinatuak— berdinen barruan jarraitzea besterik proposatzen. Hau da, sortu ditzaken arazo eta buruhauste guztietatik, jabetzako etxebizitza lehenesten jarraitzea ontzat ikustea; hipoteken bitartezko norbanakoaren —edo familiaren— zorpetzeari, kutsu erromantikoa ematea; eta azkenik, hutsik dagoen etxebizitza merkaturatzeko premia sozializatzea. Bada, pertsonen bizitzetara eragiten dien arazoa identifikatuz, higiezin merkatua elikatze dagoen beharraz aldarrikapenak egitera igarotzen da ikerketen diskurtsoa.

Honen aurrean, konformismo orokortu bat besterik ez da sortzen gizartean, ez dagoena oso urrun frankismo garaiko sakrifizio-konformismo dikotomiatik. Eta konformismoaren ideologia, pertsona gutxi batzuk beste guztiekiko duten dominazioa erraztu eta bermatu besterik ez du egiten. Zeren eta ongizate neoliberalak behar dituen baliabideak gero eta urriagoak direnez, errenta sistema konplexuen bitartez arintzen dira baliabideen kudeaketak, bat datozenak konformismoaren ideologiarekin. Bada, egun klase-gatazka kapitalaren eta lanaren arteko erlaziotik

lekualdatu dela dio Maurizio Lazzarato-k¹⁰⁸; ez bada ere gatazka hau gainditu, orain, zordunen eta hartzekodunen arteko botere-harremanak betetzen dute haren lekua. Zentzu honetan, kapitalak norbanakoa «enpresarian» transformatzeko gaitasuna duela defendatzen du Lazzaratok, eta honen bitartez, pertsonen eskubide guztiak —gizartearen aurrean— haien kreditu baliabideen arabera izango direla argudiatzen du. Bada, parasito-hirietako bizitzaren adierazgarriak aipagarriena da zorpetzea, kapital inbertsioaren zentzuan. Hezkuntzarako sarrera, gerora lan kualifikatu baterako sarrera ahalbideratzen duena; osasun zerbitzuetarako sarrera, etxebizitza baterako sarrerarekin batera; guztion funtsezko eskubideak bezala aurkezten diren praktika hauek guztiak, zorpetze pertsonalaren arabera izango direla onartzean, konformismoaren baldintzapean, botere-harremanak erreproduzitzen dira une oro.

5. HABITAT ARTIFIZIALETATIK, HABITATZE ESPAZIOETARA

*"Kapitalak bereizi, murriztu eta sinpletu egiten du. Komuna denak berriz, konplexutu, batu, areagotu eta barneratu egiten du"*¹⁰⁹.

Eguneroko bizitza kolektibo sozialaren ongizate orokortua bilatzen duten jarrera eta esperientziak praktika neutro gisa ulertzea arbuatu behar da. Izan ere, egunerokoa errealtate espazial konkretu bat da, gizakien ekoizpenerako antolatzen den esparru zehatza, alegia. Bada, ezin da egunerokoa subjektu abstraktu, unibertsal eta sexugabe baten ikuspuntutik aztertu; kapitalismoak biltzen duen soldatapekoen eta soldatagabeen arteko bereizketek, arrazagatiko eta sexuagatiko egitura hierarkikoekin batera, eguneroko espazioa arautzen duelako. Ondorioz, desparekotasun hauen arabera, botere-harremanekiko esperientzia desberdinak garatzen dira. Eguneroko bizitzaren erreprodukzioa, adibidez, lan-indarraren erreprodukzioak bere baitan subsumitu du, ordainik gabeko lan gisa eta emakumeek bete beharreko lan gisa eraikiz eta finkatuz: ama eta etxeokandrea rola ukatzean, ez dira langiletzat hartzen, baizik eta «emakume txar gisa». Era berean, ikusten da «pertsonala», neutrotzat hartu daitekeen errealtatea, politikoa izateaz gain, pribatuaren eta politikoaren arteko bereizketa amarru bat dela, horrela, emakumeen ordaindu gabeko lana lausotu, eta «maitasunagatik egiten den lan» gisa aurkezten delako¹¹⁰.

Ildo beretik, frankismoaren diskurtsoak eremu pertsonal hori zeharkatzea zuen helburu, norbanakoaren praktika eta jokaerak arautzeko asmoz, eta diziplina prozesu horretan, etxebizitzak izugarriko sinbolismoa bereganatu zuen. Horrela,

108 Kasu honetan, 2011ko *La fabrique de l'homme endetté: essai sur la condition néolibérale* liburuaren aurkezpen elkarrizketa kontsultatu da, 2013ko ekainak 20an grabatua, online: <https://soundcloud.com/traficantesdesue-os/audio-la-f-brica-del-hombre> (2021/05/05).

109 IRURETAGOIENA, Ula: *Hiria eta bestelako politikak II: Komunitate logika*, Tabakalera, Donostia, 2015, 9 or.

110 FEDERICI, Silvia: *op. cit.*, 246-47 orr.

pribatutasuneranzko bidean sartu eta erreproduzio ikusezinerako espazioan transformatzen da etxebizitza, gerora, garatu den etxebizitza eredu gero eta individualistagoak baldintzaturik, harreman sozial fisikotik pertsonak isolatuz. Zentzu honetan, egungo erreproduzio sistemaren krisiaz hitz egin behar da; erreproduziorako giltzarria den pertsonen arteko aurrez aurreko komunikazioa gutxitzen den heinean. Adibidez, gero eta denbora gutxiago eskaintzen zaio haur eta helduen arteko komunikazioari, eta aldi berean, eguneroko bizipenen ezaugarri nagusiak dira antsietatea, beldurra eta alienazio-sentipena. *“Egoera horretan, eguneroko bizitzak, pertsonen arteko harremanetarako eremu nagusiak, hondoa jo du, hala-beharrez: jende askok bizitzaren eremu horretatik ospa egiten ari da, kudeatzen gaitzegiak eta zailegiak diruditen pertsonen arteko harremani eusteko gai ez direlako”*¹¹¹.

Aldi berean, pertsonen eguneroko bizitzarekiko parte hartzea funtsezkoa da, zeren eta hiri-espazioak kolektiboki eraiki nahi izateak sortzen duen gatazka, kolektiboki kudeatzera behartzen du; ez konponketaren ikuspuntu hutsal batetik, baizik eta gatazka bizileku espaziotzat hartuz. Testuinguru honetan, parte hartzeak herri-tarren dimentsio politikoa berraurkitzean datza, kontzientzia hartzearekin irudikatu daitekeena; eta kolektibitatea norbanako ezberdinek osatzen duten heinean, ahots guztiek parte hartu behar dute inolako bazterketarik gabe. Ezinbestekoa komunaren logikak aplikatzeko, eta era berean, norberaren ahalduntzean barneratzeko.

*“Entendemos la participación como una herramienta de transformación comunitaria que puede utilizarse en procesos urbanísticos con grupos de personas que participan de forma individual o representando a organizaciones sociales y entidades vecinales, con el objetivo de identificar y articular sus necesidades y mejorar la organización de la vida cotidiana”*¹¹².

5.1. Amankomunaren inguruan

*“(...) ezinezkoa dugu gure eguneroko bizitza aldatzea, baldin eta ez baditugu aldatzen haren gertuko instituzioak eta haien egitura osatzen duten sistema politiko eta ekonomikoa. Osterantzean, «egunerokotasuna» eraldatzeko egiten ditugun borrokak erraz onar eta inoren-ganatu daitezke (...)”*¹¹³.

Komunaren paradigma, botere praktika kontra-hegemonikoen barruan txertatzen da, eta erresistentzia zein harreman erlazio berrien sorreraren bitartez,

111 *IBÍDEM*, 254 or.

112 COLLECTIU PUNT 6: *Urbanismo Feminista. Por una transformación radical de los espacios de vida*, Virus Editorial,artzelona, 2019, 136 or.

113 FEDERICI, Silvia: *op. cit.*, 249 or.

burujabetze soziala sustatzen du. Era berean, harreman eredu berrien arabera antolatzen diren erresistentziak dira, pertsonen arteko kooperazio forma berriak erakusten dituenak. Ez hori bakarrik, komunek ikusgarritasuna ematen diote kapitalaren pilaketa gero eta handiagoa ahalbidetzen duten klasearteko hesiei; halaber, pertsona orok bizitza duina izateko, komunak pertsonen arteko harremanei iruditeria kolektiboan ematen dion lehentasuna funtsezkoa da; eta beharrianak, Estatuaren eta merkatuaren logiketarik atasetzea posible dela ulertarazten du; finean, esperientzia kooperatibo demokratizatzaileen multzo batek osatzen du komuna¹¹⁴.

Pribatuaren eta publikoaren dikotomiatik baino haratago doan errealitatea da: alde batetik, kolektiboki eraikitako aberastuaren gaineko kontzientzia hartzea dakarrelako, eta bestetik, ezaugarri desberdinak biltzen dituzten autogobernu espezifikoetan islatzen diren ekimen zehatzak direlako. Bada, egunerokoan harremanek biltzen duten dimentsioak ohartaraztean, komunak antolakuntza eta bizitza komuna pertsoneri datzekion elementuak direla ulertzera eramaten du. *“Ez da soilik ura, hezkuntza, osasuna eta halako baliabide komunak identifikatzea eta kudeatzea. Harreman sozialak dira, elkarri eragiteko loturak ezartzen diren guneak, bizitza duin eta autonomo bat izateko funtsezkoak”*¹¹⁵. Horrela, indibidualaren eta kolektiboaren arteko erlazio berritu gisa aurkezten da komuna; elkartasunean, justizia sozialean, ekologian, eta aniztasunean oinarritzen diren bizimoduak sortzeko asmoz.

Zentzu berean, praxi komunalak gai dira edonolako ondasun material eta inmaterialak kudeatzeko, izan baliabideak, prozesuak edota erabilera jakin bateko ondasun komunak, autoantolakuntza eredu zehatzen bitartez, hauen gaineko erabakia zuzenean komunitateak kudeatzen duelako. Honenbestez, komuna kudeaketa eredu publiko eta pribatuaren arteko alternatibatzat aurkeztu daiteke. Egungo egoeran, areagotzen ari den pobretze orokortua eta eguneroko bizitzaren militarizazioarekin batera, elkarlanean jarduteko beharra aintzakotzat hartu behar da, zeren eta krisiari bakarka aurre egiteak, porrotera darama. *“(…) izan ere, gure bizitza debaluatzen tematzen den gizarte-sistema batean ekonomikoki zein psikologikoki biziraun nahi badugu, aukera bakarra dugu, hots, eguneroko jarduerak borroka kolektiborako eremu bihurtzea”*¹¹⁶. Zentzu honetan, ekonomia ikuspegi batetik, praxi komunak ekonomia sozial eta solidarioen elementuekin antzekotasunak biltzen dituela esan daiteke, azken batean, sistemak kanporatutakoak eta baita kanporatzeko zorian daudenak ere laguntzen dituelako. Baina komunek, ikuspegi globala eta integrala biltzen dutenez, arlo ekonomikoa beste dimentsio bat besterik ez litzateke izango, arlo soziala, ekologikoa, edo politikoa kasu.

114 ATUTXA, Ekhi: Aniztasunetik komunean dugunera: praxi instituitzailea, *Euskal zuzenbide zibil konparatuari buruzko azterketak*, 2019, Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomika Aztertzeako Fundazioa, 2019, 381-402 orr.

115 *IBÍDEM*, 386 or.

116 FEDERICI, Silvia: *op. cit.*, 259 or.

5.2. Praxi komunalak

Kooperatibismo eredu berriek, praxi komunalaren bitartez jarduteaz gain, uko egiten diote sistema kapitalistaren lehiakortasun logiketan parte hartzeari, eta ekonomia sozial zein solidarioen eremuan kokatu ohi dira. Bada, arlo soziala kapitalaren gainetik jartzean; deszentralizatua eta parte hartzailea izan nahi duen kudeaketa ereduak garatzean; instituzioekiko autonomia babestean; eta elkartzarena, erantzukizuna eta birbanaketa bezalako balioak defendatzean, komunaren parte den kooperatibismo ereduaz hitz egiten da. Egun, hainbat sektoreetan jarduten du kooperatibismo honek: finantzan, elikaduran, energian, komunikazioan eta etxebizitzan, adibidez; beti ere, eremu lokalean aplikatzen diren praktikak direlarik, nahiz eta komunaren ikuspegia globala eta integrala izan. Hemen, komunaren praxitik abiatzen diren Euskal Herriko hainbat kooperatibismo proiektu.

- Izarkom Ekonomia sozial eraldatzailean oinarrituta, Euskal Herria osoan telefonia mugikorra, finkoa eta Internet zerbitzuak eskaintzen ditu.
- Goiener Energia bezalako oinarritzko ondasunak sortzeko eta kontsumitzeko elkarlan-proiektua da, burujabetza kontsumo berriztagarri eta arduratsuan oinarritutako ereduaren bitartez eskuratu nahi duena.
- OlatuKoop Ekonomia ekintzailea oinarri, modu eraldatzailean jarduten duten enpresa, erakunde eta kooperatibek osatzen duten sarea da.
- Auzolan Euskal Herriko udalerrietan talde eta proiektu komunalak abian jartzen dituen foroa.
- Ekhi Burujaletza ekonomikoa helburu, moneta-burujaletza berreskuratu nahi duen txanpon soziala.
- Etxekoop Erabilera-lagapenerako etxebizitza-kooperatiba da, etxebizitzaren alokairu zein erosketatik baino haratago doan eta komunitatean bizitzeko helburua duen etxebizitza ereduak sustatzen du.
- Baserritik Baserritarren arteko lankidetzak sustatzea helburu duen proiektua.
- KoopFabrika Ekonomia sozial eraldatzailea eta ekintzaitza soziala sustatzeko programa

5.2.1. Udalgintza eraldatzailea Euskal Herrian

Ildo beretik, azken urtetan Euskal Herrian ekonomia sozial eraldatzaileerako proiektuen (ESE) garapena nabarmena izan da. Hauek erakusten dute eguneroko jardueren erdigunean, posible dela kapitala metatzea ez diren balioak ezartzea. Zentzu honetan, ekonomia sozial eraldatzailea inguru-espaziala eraldatzeko erreminta izan nahi du, komunitatea ehuntzeko eta komunitatearen bizitzeko beharri-zanak asetzerak bideratzen den tokian tokiko ekonomia ereduak. Horrela, proiektu hauek inguruko udalerrietako komunitateetan txertatzen dira, eta herriaren beharizanei erantzutea dute helburu. Alabaina, kontuan izan behar da lurraldean garatu

diren proiektu hauetariko asko, ekimen puntualak izan direla, ekonomia sozial eraldatzailea ezagutarazteko ekitaldiak, alegia. Baina oro har, ekonomia planifikatzeko orduan, udal zein garapen agentzien estrategietan ez dira ESEko proiektuak aintzakotzat hartzen. Bada, orain arteko logika neoliberalen xedea kapitalarentzat erakargarriak diren espazioak transformatzea izan da, bai abantaila fiskalen bitartez zein hirigintza eta azpiegituren bidez.

ESE proiektuek, bizitzaren iraunkortasuna kokatzen dute jardun ekonomikoaren zentroan, lurralde zehatza batekiko praktika orekatuak sortuz. Era berean, komunitatearen beharrianak asetzeko, pertsonen ahalduntzea sustatzen da, horrela, egitasmoaren partaide eta onuradun izatera transformatuz. "(...) tokiko garapena bizitza sostengatzen duten jarduera produktibo zein erreproduktiboak indartzera bideratu behar litzatekeela aldarrikatzen dute, (...) jarduera ekonomikoaren kontrola herritarrek berreskuratzea litzateke funtsa. Bizitzarako beharrezkoak diren jarduerak tokian toki modu autoeratu, kolektibo eta komunitarioan kudeatzea litzateke helburua (...)"¹¹⁷.

Proiektu hauek, udalgintza eraldatzaile delakoaren testuinguruan kokatzen dira, lurraldearekiko estrategia sozioekonomikoen nolakotasunaz hausnartu eta erabakitzeke. Hau da, bizitzarako beharrezkoak diren jarduerak tokian tokiko modu kolektibo eta komunitarioan kudeatzea da udalgintza eraldatzaile honen helburua. Bada, jarduera hau hiru alorren arteko elkarlanean eratzen da: komunitatea, ekonomia sozialeko eragileak eta erakunde publikoak. Horrela, harreman-sare bat izatearekin batera, komunitateak herritarren parte-hartzea irudikatzen du; eragile kooperatiboek, jardueraren kudeaketa eredia islatzen duten bezala; eta publikoak, konglomeratu osoaren izaera unibertsala adierazten du, pertsona ororentzat baliagarri izan behar duen eredia. "*KoopFabrika legelarien bidez azterketa juridikoa egiten ari da, udalen eskura erreminta zehatzak jartzeko, proiektu publiko-kooperatibo-komunitarioak zein izaera juridikoren bidez egituratu daitezkeen jakin dezaten*"¹¹⁸.

Bizitza merkaturatzeko joera jarraitu eta automatikoaren aurrean, komunitatearen ahalduntzea gakoa izatea posible da, logika neoliberalak erreproduzitzeari uzteko erresistentzia kontra-hegemoniko moduan. Baina bizitza modu kooperatibo eta komunitarioan antolatzea ez da ohikoena izan Mendebaldeko gizarte oparoe-tan, zeren eta eredu kapitalistan ez bezala, komunaren filosofia eta praxiak ez du botere-harremanak iraultzea den beste helbururik. Horregatik, Euskal Herrian abiarazitako hamaika praktika kooperatibo eta komunitarioek, hizpide izan nahi dute, nahiz badakiten, horrelako iruditeria transformazioak ez direla berehalakoak, eta hortaz, emaitzak momentuz apalak direla seinalatuz. Dena den, okerra litzateke neoliberalismoaren —ekintza eta emaitza— parametroetatik komunaren praxia balioztatzea, zeren eta bizitzeko bi eredu kontrajarri lirarteke.

117 EIZAGIRRE, Estitxu: Udalgintza Eraldatzailea, *Larrun hilabetekari monografikoa*, 258. zenbakia, 2020, 4-5 orr.

118 *IBÍDEM*, 5 or.

5.2.2. Abaraska, jabetza eta alokairuaz gain etxebizitza izateko eredu bat

Abaraska Etxebizitza Kooperatiboaren lehen hazia 2016an sortu zen, Donostian, etxebizitza ereduari alternatibak planteatu eta nola bizi nahi den irudikatzeko. *"Egungo bizimodu gero eta indibidualistagoan, zahartzaro gero eta bakartiagoan, bestelako etorkizun bat amesteko"*¹¹⁹. Bi urteko formakuntza eta ikerketa lanen ostean, Abaraska proiektuak ez du etxebizitza bat eskuratzea soilik helburu, baizik eta errepika daitekeen eta politika publikoek bere egin beharko luketen eredia sortzea baizik. Bada, proiektuaren indargune nagusietakoak berau osatzen duten pertsonak eta haien arteko harreman-sareak dira; etxebizitza-kooperatibaren helburuen artean, pertsonen beharrezan erdigunean jartzea funtsezkoa delako. *"Biztanleen ehuneko handi bat etxe berean bizi gara gure bizitza osoan. Baina ez ditugu behar berak gure bizitzako garai bakoitzean"*¹²⁰. Alabaina, erabilera-lagapenerako ereduaren bitartez, bizitzako fase bakoitzean pertsonen beharrak eta ahalmenak aldatzen diren heinean, norberaren beharretara egokitzen den etxebizitza izateko aukera ematen du.

Era berean, erabilera-lagapen eredia jabetza kolektiboan oinarritzen da, eta ohiko etxebizitza-kooperatibetan ez bezala, higiezinaren jabetza, kooperatibaren esku mantentze da; zeina kudeaketa asanbleario eta kolektiboen bitartez gestionatzen den. Horrela, etxebizitzaren erabilera-eskubidea sarrera-kuota baten bitartez gauzatzen da, gerora proiektua uztekotan berreskuratu daitekeena, hilabeteroko kanon baten ordainarekin batera. Nahiz eta onartu oraindik ororentzat etxebizitza bermatzen ez duen eredia dela, etxebizitza baten erosketarekin alderatuta, kostuak oso baxuak direla seinalatzen da. Bada, etxebizitzari dagokion erabilera-balioaz kontziente, higiezinaren merkatutik kanpo geratzen da, hau kontsumorako ondasun moduan baliogabetzean eta jabetza pribatuaren logika ukatzean. Behar sozial komunei erantzun kolektiboak ematean, komunitatea sortzen da eta azken hau, funtsezko helburutzat jotzen da. Finean, etxearen inguruan osatzen baitira eguneroko bizitza sostengatzen duten harreman-sareak.

Puntu honetan, funtsezkoa da azpimarratzea komuna oinarri duten eredu kooperatibo hauen praktiken bitartez, eremu pribatura mugatzen diren erreproduktzio praktikak, ikusgarritasuna eskuratzen dutela komunitatearen aurrean. *"Horregatik da hain garrantzitsua gure eguneroko bizitza despribatizatzeke eta erreproduktzio-molde kooperatiboak eratzeko emakumeak —batez ere— egiten ari diren ahalegina"*¹²¹. Bada, Abaraska erabilera-lagapenerako etxebizitza eredu bezala, pertsonen arteko harreman-sarean oinarritzen dena, emakumearen ardura izan den erreproduktzio kolektibizatzea eta ezagutaraztea posible da. Horrela, erreproduktzio-prozesuaren ezaugarri den bakardadea haustearekin batera, elkartasuneko loturak eratzen dira prozesuaren inguruan. Azken batez, hauek gabe bizitza basamortu afektibo bat litzatekeela onartzen du Federick, botere soziala hutsala bihurtzearekin batera.

119 IZAGIRRE, Manex & LAMEDICA, Michela: Nire etxeko patioa ez da partikularra. Abaraska, jabetza pribatua eta alokairuaz gain etxebizitza izateko eredu bat, *Aldiri*, 35. zenbakia, 2018, 31 or.

120 *IBIDEM*, 33 or.

121 FEDERICI, Silvia: *op. cit.*, 260 or.

5.3. Ez dago komunarik komunitaterik gabe

Sistema kapitalistak eragiten duen miseriak klase moduan elkartzen eta paretzen gaituen heinean, komunitatea eguneroko sistemaren hertsaduraren aurkako borrokan ehuntzen da: etxegabetze bat eragoztean, auzoan elkartasunezko elikadura sareak garatzean, hirigintza prozesuen aurrean hausnarketa eta eztabaidak antolatzean, edota krisialdi testuinguru batean, elkar-zaintza sareak eratzean. Arazo amankomun baten aurrean kolektiboki borrokatzeak, pertsonen arteko harreman-sareak ehuntzen ditu, esperientzia kolektiboa oinarri dutenak eta funtsezkoak direnak neoliberalismoaren zatitze logika indibidualistei aurre egiteko. Zentzu honetan, komunaren oinarrian aurkitzen diren pertsonen arteko harremanak sustatzeko, ezinbestekoa da lehenik komunitatea egitea. “(...) *está documentado que los procesos participativos en el urbanismo pueden aumentar la eficiencia y reducir los costos regulatorios de transacción a largo plazo (...). Pero también porque se basan en saberes y conocimientos construidos colectivamente, generan sinergias creativas y desarrollan la capacidad de los agentes implicados para trabajar conjuntamente a escala local en la resolución de problemas colectivos*”¹²².

Bada, udalerrri edo lurralde bateko esperientziaren adierazle nagusia berau habitatzen duten pertsonak dira, batetik hiri-espazioaren egunerokoan beharrezkoa dena hobekien ezagutzen dutelako eta bestetik, inork baino lehen, haiek jasango luketelako edozein transformazio espazialen eragina. Horregatik, parte-hartzea¹²³ funtsezko erreminta da espazio batekiko metatu diren esperientziak bateratzeko eta gerora, edozein hiritartze prozesuren aurrean kontrajartzeko. Baina maiz, instituzio publikoek sustatutako parte-hartze deialdiak izaten dira, udalerrriaren edo instituzioaren araberrako ezaugarriak dituztenak; eta momentuko biztanleriaren parte-hartzea sustatzen badute ere, eztabaida prozesuaren egitura guztiz hierarkikoa —bertikala— suertatzen da, eta hortaz, transformazioa eragiten duten azken erabakien gaineko rol-aktiboa, biztanleei ukatzen zaie. Beraz, ez da ohikoa instituzioek sustatutako parte-hartze prozesu batean, boterea biztanleriaren esku uztea, horregatik, nahitaezkoa da botere-harremanetik at garatzen diren parte-hartze prozesu komunitarioak sustatzea eta defendatzea; aurretik daudenak ezagutzera emanez eta berrientzat sugarra piztuz. “(...) *es cada vez más importante promover procesos de acción comunitaria en los que la comunidad sea quien impulse y lidere desde abajo los proyectos de transformación*”¹²⁴.

122 HEALEY, Patsy, 1997, aipua hemen, COLLECTIU PUNT 6: *op. cit.*, 138 or.

123 Parte-hartze eredu horizontala behar du izan, ekologia eta genero ikuspegiak barneratzen dituen, zeinetan biztanleei, prozesu zein erabakien gaineko ebazpen-boterea aitortu behar zaien. Jarraian, Euskal Herrian garatzen ari diren proiektu komunitario guztietatik bi adibide dokumentatu: lehena Gasteizeko Alde Zaharrean txertatzen diren hiru auzolan proiektu komunitario dira, eta bigarrenak, Bilboko Masustegi auzoko jardun komunitarioari egiten dio erreferentzia. i) ALBAINA, Margareth, ALZOLA, Koldo, *et al.*: Pausoz pauso, auzolanaren bidez nahi dugun auzoa eraikiz, *Aldiri*, 11. zenbakia, 2011, 22-24 orr. ii) ORMAZA, Anartz: Masustegiko auzoa, autoeraikuntza eta elkarlana. Urteetan eraispentaren mehatxupean bizi izan den autoeraikitako komunitatea, *Aldiri*, 20. zenbakia, 2014, 24-29 orr.

124 COLLECTIU PUNT 6: *op. cit.*, 137 or.

5.3.1. Komunitatearen sorrera erabilera-lagapenerako etxebizitza proiektuetan

Abaraska bezalako erabilera-lagapenerako ereduetan, etxebizitzaren kudeaketa eta jabetza kooperatibaren esku geratzen da, helburua etxebizitzak duen erabilera-balioa ematea baita, inposatzen zaion truke-balioagatik ordezkatzeko. Bada jabetza, kolektiboa eta zatiezina izanik, harengandik etekin ekonomikoak eskuratzeko ezinezko suertatzen da. Zentzu batean, etxebizitza merkatu espekulatibotik kanpo imajinatzeko aukera ematen du; bizitzeko modua birpentsatzeko okasioa eskainiz eta horrenbestez, elkartasun balio kolektiboenganako gerturatzeko ahalbidetuz. Bada, bizitzeko egunerokoa birpentsatu daitekeelarik, erabilera-lagapenerako etxebizitza proiektuen muinean berau osatuko duen komunitateren sorkuntza dago, funtsezkoa dena egitasmoaren kudeaketa autogestionaturako; baina era berean, arretaz landu beharreko harremantze prozesu konplexua izango dena.

Ildo beretik, komunitatea sortzeko beharrezkoa den antolakuntza soziala, erronka kolektiboa izatearekin batera, problematiken aurrean, elkartasunean kohesionatutako ezagutza eta harremanak eratzeko erreminta da. Maiz, antolatzeko praktika asanblarioetan du honek jatorria, zeintzuetan komunikazioari, enpatiari edota gatazken kudeaketei arretaz erreparatu behar zaien. Baina egungo kultura neoliberalak, indibidualismo baztertzailan hezten ditu pertsonak, eta ez kolektibotasunean. Horregatik, antolakuntza soziala bera sortzea erronka batean datza, komunitatea osatzen duten kideen artean azaleratu daitezkeen gatazkak lantzea bezala. Zeren eta sortu nahi den harreman-sarea elkartasun balioetan oinarritzen bada ere, dela iritzi aniztasunagatik edota kolektiboaren ildo ideologikoagatik, gatazka bizitzaren berezko alderdia da, eta ondorioz, mekanismoak garatu behar dira berau kolektiboki lantzeko; baita hirugarrenen esku-hartze ekiditeko ere. *"(...) antolakuntza sareak behar dira. Batetik, egitura zurrunagoak, ildo orokorra markatzeko gai direnak, hala nola aldizkako batzar orokorrak. Bestetik, mekanismo arinago eta malguagoak, eguneroko kontuei heltzeko balio dutenak. (...) garrantzitsua da egitura bakoitzean erantzukizuna eta autonomia definitzea, eta erabaki bakoitza zein espaziotan hartuko den zehaztea"*¹²⁵.

Kapitalismoaren habitat automatizatuan ez bezala, eredu honetan etxea eguneroko habitatze praktiken azpiegitura-oinarria da, bizitzea tresna eraldatzailean bilakatzen duena, norberarentzat zein ingurukoentzat; eremu indibidualetik, ongizate kolektibora doan eguneroko praktika moduan ulertuta, alegia. Orduan, komunitatearen sorrerak hiri-espazioa habitatzeko aukera ematen duela onartzen da, batez ere, kontsumoan oinarritzen diren egungo hiriek eskaintzen duten bizimodu gero eta bakartiagoaren aurrean. *"Pertsonen artean elkartasunez funtzionatzeko modua aurkitzea da helburua, auzo edo herri askotan aspaldi zegoena, eta zenbaitetan, gaur egun ere badagoena. Komunitatea hurbiltasun fisiko eta sozialaren emaitza da, leku bateko kide sentitzearen definizioa. Nortasun hori sortzeko prozesuan garrantzi handia dute azaleko harremanek, eskaileretako hizketaldi txikiak kasu"*¹²⁶. Halere, helburua ez da indibidualaren eta komunitarioaren arteko jarrera

125 LACOL & LA CIUTAT INVISIBLE: *Komunitatean Bizi. Erabilera-lagapenerako etxebizitza-kooperatiba*, Argia liburuak, 2020, 62 or.

126 LACOL & LA CIUTAT INVISIBLE: *op. cit.*, 108-109 orr.

dikotomiko hutsala barneratzea, baizik eta espazioen —eta berau osatzen duten pertsonen— araberako jarrera organiko orekatuak garatzea; praktikaren esperientziatik besterik garatu ezin direnak.

Laburbilduz, erabilera-lagapenerako ereduak etxebizitza eskuratzeko prozesuaren alderdi indibidualista baztertzea dute helburu, zeinetan bakoitzak berarentzat eta bere kabuz jarduten duen. Honen aurrean, norbanakoaren rol aktiboa aintzakotzat hartuta eta ingurua zein jendartea eraldatzeko bidean, erronka eta behar sozialei heldu nahi dien ekimen kolektiboa izan nahi du. Honenbestez, proiektuaren helburua ez datza soilik etxebizitza ereduaren aldaketan, baizik eta bizitza egituratzen duen sistemaren —habitat programatua— transformazioan; horretarako ezinbestekoa delarik komunitatea sortzea. Finean, pertsonen ahalduntzetik hasita, inguruarekiko oreka ekologikoan, egunerokoaren habitatzeko osasuntsua ahalbidetzen duten baldintza orearen zaintza eta sustapena izan nahi duen proiektua da.

6. ONDORIOAK

6.1. Jabetza pribatuan oinarritzen den etxebizitza eredia

Etxebizitza eskuratzeko eta kudeatzeko eredia jabetza pribatuan oinarritzen da, alokairu-erosketa dikotomian; baina batez ere, erosketaren praktika gailentzen da. Andoaingo kasuan, etxebizitza baten erosketa, pertsona gazteen edo familia unitateek eskuratu beharreko funtsezko ondasuna da, eta orokorrean berau eskuratzeko baliabide ekonomikoak desorekatuak izan arren, etxebizitza baten erosketa lehenestek, gizartearen onespina biltzearekin batera, neoliberalismoaren ideologia erreproduzitzen du. Hain zuzen, jabetzako etxebizitzaren aldeko hautuak jatorrian interes batzuk defendatzen dituela pentsatzera eramán dezake; izan ere, lehen frankismoan jatorria duen espainiar Estatuan ugaldtu zen jabetzako etxebizitzaren kultura, erregimen frankistaren botere-harremanen inguruan antolatutako, edo beste modu batean esanda, erregimenaren agintaldi diktatoriala bermatzeko eta sustraitzeko mekanismo gisa.

Bada, aztertu den testuinguru zehatz honek, Foucaulten «gertaera» dialektikoari erreferentzia egin diezaiokeela ondorioztatzen da. Menderatzea ahalbidetzen duten botere-harremanen sarea egonkortzeko asmoz, gerraosteko urteetan, frankismoak bloke-hegemoniko bat osatu zuen Estatuarekiko. Posizio horretatik, ideologia-hegemonikoaren araberako diziplinazko irakaskuntza sustatu zuen erregimenak, horretarako ikusi diren hainbat mekanismoren bitartekaritza lanaz. Alegia, irakaskuntza hauetariko bat, etxebizitza jabetza pribatuaren arabera barneratzea izan zen. Honek, etxebizitza pertsonen eta familien aterpe sakratu —kristau— eta pribatua bezala ulertzea ekarri zuen; soziokulturalki nahitaez eskuratu beharreko ondasuna litzatekeena. Baina berdintasun ezan oinarritzen den balioaren araberrako ondasun honek, ordea, urruti geratzen da berezko duen erabilera sozial eta komuna bermatzetik. Horrela, aztertu den etxebizitza ereduaren izaera ideologikoa berretsi da, etxebizitzak berezkozat ez dituen ezaugarri hauek botere interes zehatz batzuei erantzuten diela justifikatuz.

Esan daiteke beraz, jabetzako etxebizitza botere-harremanak iraunarazteko intentzioa biltzen duen dispositiboak dela espainiar Estatuan, eta horregatik, instituitu den eredu honek ez duela bere funtzio sozial praktikoa betetzea helburu. Gaur egun, merkatua botere praktiken irudikapena den honetan, etxebizitza eredu indarkeria objektibora baldintzaturik dago, zeina orokorrean pertsonen zorpetzean itzultzen den; horrela, kapitalismoak nahitaezkoa duen pertsonen lan-indarra estu lotuz. Era berean, erregimen frankistak jabetzako etxebizitza sakralizatzeko zergatia langile-klasearen jatorrizko izaera gatazkatsua lausotzeko zen, klase-gatazka ahantzarazteko hain zuzen. Bada, klase-borroka gainditzeko intentzioa ere aipagarria da zorpetzearen harira; kapitalaren araberrako ongizate artifizialeak ahantzarazi dezakeelako maiz soldatapeko lanarekiko baldintza, neoliberalismoak eratu-tako klase ertainaren identitate «neutroa» kasu.

Martxan dirauen etxebizitza ereduak plazaratzen dituen problematika ugarien aurrean, ezinbestekoa da egoera iraultzea, horretarako, etxebizitzak biltzen duen berezko erabilera komuna eta soziala aldarrikatuz. Agambenek, adibidez, «profanazio» terminoa erabiltzen du dispositiboak arautzen duenari uko egin, eta estaltzen diren berezko erabilera-harremanak bereganatzeko. *“Por ello el problema de la profanación de los dispositivos —es decir, de la restitución al uso común de lo que ha sido capturado y separado en ellos— es cada vez más urgente. Este problema no se dejará plantear correctamente si los que lo asumen no intervienen ni sobre los procesos de la subjetivación ni sobre los dispositivos, (...)”*¹²⁷. Horrela, etxeak berezkozat duen funtzioa bereganatzea litzateke lehen pausua, hau da, orori dagokion habitatzeko espazio duina izatea. Baina prozesu hau kontra-hegemonikoa izan behar du, neoliberalismoaren logiketarik at plazaratzen dena; eta horregatik egiten da funtsezkozat komunaren praxiranzko bidea aldarrikatzea; habitat programatuetako partaidetzaren aurrean, habitatzaren praktika aldarrikatzen den moduan.

6.2. Jabetzako etxebizitza ardatz duen hirigintzak materializatutako hiri-eredu artifiziale

Ikerketaren sarreran defendatzen den moduan, etxebizitzarekiko dagoen problematika estrukturala eta sakona da. Izan ere, zenbat pertsona egongo liriteke haien lan-indarra saltzera baldintzatuta, etxebizitza duin baterako sarrera sozial erreala izango balute? Galdera honen harira, bi erantzun nabarmendu behar dira: bata, etxebizitzarako sarrera eta erabilera kapitalak baldintzatzen dituela guztiz; eta bestea, kapitalismoak ezinbestekozat duela langileriaren lan-indarra ustiatzea sistemaren erreproduktzioa gauzatzeko. Bada, klase kapitalistaren dominazioa trinkotzearen bidez, espainiar Estatuako etxebizitza funtsezko menderatze mekanismoan bihurtu da.

Hain justu, jabetza pribatua bera da era horretako mekanismoa izateko baldintza, historian zehar pertsonen eskubide moduan aurkeztu den ezaugarri guztiz baztertzaila; honetaz gozatu ezin duten subjektuak gizarte-bazterketara daramatzana.

127 AGAMBEN, Giorio: *op. cit.*, 26 or.

Jabetzako etxebizitzaren kultura sustatzeak, helburu zehatz batzuei erantzuten ziela argitu da, irudikatu den bloke-hegemoniko frankista boterean finkatzeko eta errotzeko, adibidez. Bide horretatik, diktadura osteko trantsizioan ideologia frankista bere horretan iraun zuen moduan mantendu da jabetzako etxebizitzaren aldeko hautua gizartean. “(...) *el hecho es que los españoles evidencian una predilección por la propiedad que ha acabado condicionando la vida social y económica del país durante más de cincuenta años, al tiempo que ha mantenido toda una actividad económica fuertemente determinante en el desarrollo económico de España, y con repercusiones notables en la organización y sostén del poder político local*”¹²⁸. Izan ere, etapa frankistaren ondorengo politika neoliberalak ere, hirigintzaren bitartezko lurraren gaineko ustiapena, erreminta erabakigarrian bihurtu dute kapitalaren zirkulazioa momentu oro ahalbidetzeko.

Zentzu honetan, esan daiteke jabetzako etxebizitza sustatzeak hirigintza eredu jakin batzuetara eraman duela espainiar Estatua: etxebizitza berriaren eskaintza zabala izan nahi duen urbanizazio eredu intentsibo eta artifizialera, alegia; zeinak espazio bateko pertsonen habitatazea erraztearen diskurtsupean, etxebizitza-lantokia dikotomiapen habitat programatuak sortzen dituen, zeintzuetan soilik konsumorako askatasuna bermatzen den. Hain justu, habitat hauetan txertatzen dira gerora kontrol gizarteak, menderatze subjektibizazio prozesuei emanak eta botere praktiken muina direnak. “*El control territorial es uno de los principios fundamentales para establecer la soberanía y el poder biopolítico. Este control se realiza en dos planos: el del escenario urbano y el de las subjetividades. (...) En la sociedad capitalista global, el control se ejerce por medios menos visibles pero igualmente eficaces como la construcción del miedo, la obsesión por la seguridad, la vigilancia permanente y la pérdida del espacio público. El urbanismo y la arquitectura actúan como dispositivos tecnopolíticos preparados para facilitar el control de los cuerpos*”¹²⁹. Etxebizitzaren auzira bideratuz, ereduarekiko konformismoa «gorputzen kontrola» irudikatzen du, eta konformismo hau, halaber, aztertu diren diskurtso eta dokumentu instituzionalek sustatzen dutela ikusi da; etxebizitzaren problematika estruktural konplexua berretsiz.

Izan ere, segurtasunaren lelopean ikerketa hau idatzi bitartean hainbat bideozaintza kamera konfiguratu dira Andoaingo hainbat puntutan: Makaldegiko Gurutze Gorrian, Mendiola bidegurutzean eta Zumeako rotondan. Inongo eztabaida publiko zein instituzionalik egin gabe gauzatu da erabakia, eta alkatetzatik, kameraren kokapen geografikoa udalerriko poliziaren interesen arabera egin dela defendatzen da. Hain justu, trafikoa arazoaren harira kokatu omen dira Andoaingo irteera zein sarbideetan kamera hauek, soilik gero, badagoela Txitibar biribilgunean 360 graduko plano hartzen duen kamera, Zumea eta Etxeberrieta auzoen arteko mugan kokatzen dena¹³⁰. Bada, egungo kontrol sozialaren adibide hau ezin baino hobeto dator

128 CANDELA, J.: *op. cit.*, 10-11 orr.

129 MESA, M.: *op. cit.*, 403 or.

130 Udaletxetik hartutako neurri honen harira, sinadura bilketa bati eman zitzaion hasiera bai kameraren problematika bistaratzeko, zein hauek kentzeko eskatzeko; izan ere, ez da inongo informazio argirik eman kameraren ezaugarrien inguruan, ez duten irismenaren inguruan, ez grabatzeko eta irudiak gordetzeko metodologiaren inguruan; ezta ere hauek erabiltzeko eskumena duten «instituzioen» inguruan.

Andoainek jasan duen eraldaketa ulertzeko, izan ere, kamerak izango lirateke kontrol gizarteetara ailegatzeko lehen pausua, aurretik garatutako eta antolatutako habitataz artifizialean hauek estrategikoki txertatzeko aukera dagoen heinean. Honek ez du esan nahi, aurreneko momentutik Andoainek jasan zuen hiritartzearen helburua kontrol-diziplinatua ezartzea zenik, baina bai garatu zen hirigintza ereduaren baitako ezaugarria subjektibotasunaren bitartezko kontrol eta diziplina zela; sasisegurtasun batekiko alienazioan itzultzen dena denboraren poderioz, alegia.

Gauzak horrela, 1956eko Lurraren Legeak etorkizuneko hirigintza praktikak baldintzatu zituen espainiar Estatu osoan eta haren eragin zuzenagatik, Andoainerako proposatu zen lehen hiri-antolamendua 1961eko poligonizazioagatik ordezkatu zen. Izan ere, «desarrollismo» frankistaren testuinguruan, kosta ahala kosta sustatu behar zen herrialdearen garapena, eta 1956eko esku-hartze juridiko honen bitartez, hiritartzeko lurren ustiapena erraztu zen; promotore pribatuen aktibitatea ugaltzarekin batera. Bada, urte gutxiren buruan Andoainek sekulako urbanizazioa jasan zuen, hasiera batean, udalerrian lan egingo zuten pertsonen eskari bati erantzunez. Baina etxebizitzaren eraikuntzarako joera hau, azkar batean bilakatu zen ohiko praktika batean, gehiegizko garapen eta demografia aurreikuspenen aurrean, etxebizitza berriaren eskaintzak udalerriko eskaria gainditu zuelako urte gutxiren buruan; horrela, tokiko higiezinaren merkatu bat sortuz. Hain zuzen ere, hirigintza egoera defasatu honek, 1966eko HAPOa ekarri zuen, Andoain hartzen ari zen lo-hiri izaera ekiditeko asmoz eta aurreikuspenen aurrean zentzuz jokatzeke; bada, udalerriko etxebizitza-parkea 50. hamarkadan 1.000koa zen bitartean, 80. hamarkadarako 5.000 ingurukoa zen; era berean, garaiko lan-eskaintza irudikatzen zuen industria lokalaren garapena, hutsala izan zen.

Ez hori bakarrik, etxebizitza berriaren eskaintza gunean izateko lasterketan, Andoaingo urbanizazioa zentzuzko antolamendurik gabea izan zen. Poligonoak udalerriarekiko isolaturik hiritartzen ziren, etxebizitzak amaitzeari premia osoa eskainiz, eta tokian-tokiko azpiegitura eta ekipamendu publikoa behin eraikina altxata txertatzen zen urbanizazioan. Hirigintza praktika hau, jabetzako etxebizitzaren aldeko hautu kulturalaren erreproduzioaren baitakoa da, zeinetan ezinbestekoa den etxebizitza berrien eskaintza zabal bat egitea, norberaren etxebizitza propioak bizitzako funtsezko osagaia irudikatzen duen heinean. Honen harira, ez da harritzekoa hiri-antolamendu batetik bestera antzekotasun handiko praktikak garatu izana Andoainen. Izan ere, etxebizitzaren eraikuntza lehenetsi da beste edozein hirigintza alorren aurrean, eta are gehiago, HAPOen diskurtsoak momentuan momentuko interesen arabera moldatu direla egiaztatu da; bai eraiki nahi denaren justifikazio instituzionala bezala, zein udalerriko «ongizatearen defentsa» bezalako mezuen bitartez. Bada, diskurtso neoliberal kamaleonikoak duen gaitasunaren bitartez, hirigintza eredu (des)eraikitzaile berdinak dirau XXI. mendean ere.

Alabaina, Arau Subsidiarioak praktika desegoki hau zuzentzeko helburuarekin aurkeztu ziren 80. hamarkadan, udalerriko hirigintza premiazkoak ziren azpiegituren eraikuntzara birbideratu behar zela zehaztuz. Baina AASSak indarrean egon bitartean, etxebizitza-parkea beste ezer baino gehiago hazi zen, Arauetan aurreikusitako etxebizitza hedapena gaindituz; aldiz, azpiegiturretarako aurreikusitako minimoetara

ez zen ailegatu. Hain zuzen ere, XX. mendeko azken berrogei urteetako hirigintzak higikortasun eta irisgarritasun problematika ugari sortu ditu udalerrian XXI. mende hasierarako. Baina problematika lokal honen aurrean, 2004an prestatzeari ekin zitzaion 2011ko HAPOak, Andoainek eskualdearekiko jokatu behar zuen papera zehazten amaituko zuen. Zeren eta indarrean dagoen hiri-antolamendurako plan honetan, berrogeita hamar urte lehenago ekidin nahi zen lo-hiri izaera aldarrikatzen da Andoainerako. Bada, lur-hiritargarri gehiagoren beharra zegoela seinlatu zen, noiz eta higiezin-burbuilak eztanda egin aurretiko testuinguruan. Zentzu batean, ematen du 2008 osteko krisi bortitzak geldotu zuela eraikuntzarekiko joera bizia, hala islatzen baita etxebizitza-parkearen hazkunde urrian; baina azken urteetan sinatu diren proiektuak, beste errealitate bat islatzen dute etorkizun hurbilerako: tertziarizazio prozesu sakona Illaramendi eremuan eraikitzen ari diren merkataritza-gunearen harira, proiektatzen den etxebizitza berriaren eskaintza zabal batekin batera.

Izan ere, aipatu diren parasito-hirien izaera litzateke Andoainek bereganatuko lukeena prozesu honetan zehar, herria habitatzen duten biztanleen eta komunitateen bizitza beharrean, kapitala erdigunean ezartzen duen hiri-eredua. Joera hau, kontsumo hutsalera bideratutako habitata zehaztuko luke: etxebizitza berriaren eskaintzak eta merkataritza-gune handi baten presentziak, adibidez. Hain zuzen ere, parasito-hiriak kontsumorako espazioak dira, hirugarren sektorerako lan-eskaintzak dituen soilik eta non etengabe errenten bitartezko kapital-metaketak erreproduzitzen diren. Horregatik 2011ko HAPOan, Andoain testuinguru geografiko zabal batean kokatzen da, lerroen artean zera irakurriz: Andoainen etorkizuneko papera lo-hiri izatea da, eskualdean lan egiten duen jendea erakartzeko asmoa duena eta horretarako, ez da hiritartzea ez den bestelako garapen mekanismorik sustatu behar. Bada, ereduak ahalbidetzen duen kapitalaren zirkulazioa mantentzearren, Andoainek ez luke kontsumoaz haratago bizitzeko bestelako alternatibarik eskainiko; bai ordea kontrol gizarteetako dispositiboen presentzia ugaldtu eta honen eraginez, hiri-ereduarekiko subjektibotasuna garatu. *"(...) y quizá se deba a que este [el ciudadano] ejecuta punto por punto todo lo que se le dice que haga y deja que sus gestos cotidianos, como su salud, su tiempo libre y sus ocupaciones, su alimentación y sus deseos sean dirigidos y controlados por los dispositivos hasta en los más mínimos detalles"*¹³¹.

Era berean, hirigintzak oinarri duen lurraren gaineko ustiapenak gero eta gehiago garestituko du etorkizunera begira udalerriko bizitza, soilik praktika kapitalistetako partaideak etekinak ateratzen dituztelarik bertatik: espekulazioan oinarritzen den pisuen salerosketa edo pisu turistikoaren alokairua kasu. Alabaina, jabetuen hauek gutxiengo bat osatzen dute desjabetuen aurrean, soilik arazoa, desjabetuek klase kapitalistaren praktikak erreproduzitzeko nahia agertzean datorrela. Hau da, hain justu, frankismoak bilatu zuena jabetzako etxebizitzaren bitartez, langile izaerak jatorrian duen borroka lausotzea, alegia. Bada, neoliberalismoaren eraginez hirigintzak hurrengo paradigma dakar: sortzen diren etekinak edo onurak —etxebizitzak zein ekipamendu publikoa— kontsumitzeko pribatizatzen diren bitartean, galerak edo

131 AGAMBEN, Giorgio: *op. cit.*, 25 or

arazoak sozializatu egiten dira; eta Udaletxearen diskurtsoan, hauek ez dira udalerriaren interesekoak, okupatzen duten espazioa urbanizatu nahi den arte. Adibidez, bizitzaren erabateko garestitzea praktika hauen albo-kalte zuzena da, eta horrekin batera gero eta jende gehiagoren desjabetza prozesua, gutxiengo sozial baten kapital-metaketa gero eta handiagoan itzultzen dena halaber. Hau da, Andoaingo lurra-
ren gaineko ustiapen pribatuak, habitat artifizial (des)eraikitzailea sozializatzea dakar. *“Gizarte bat ezin da existitu, ezin da garatu; gizarte batek ezin du iraun, bertako espazio komunak eta ondasun sozialak babestu eta zainduko ez baditu”*¹³².

Bada, Andoainentzat berresten den lo-hiri izaeraren baitan, biztanleriaren gehiengoa osatzen duen langileria, habitat artifizial honetako partaideak izatera murriztuko lirateke: egun osoa lanean igaro ondoren, kontsumitzeko espazio moduan bizitzen baitute berau; horretarako antolatu baita azken finean espazio horren eskaintza. Partaideak dira, habitatzearen praktika lana-etxea dikotomiatik at plazaratzen delako; uste baita lanera joateko lehen motibazioa etxebizitza zein elikagaien hornidura bermatzea dela, eta ez sinetsarazi nahi den lanarekiko harreman erromantizatua. Horregatik, hurrengo galdera funtsezkoa da udalerriko biztanleen habitatze egoera ulertzeko: zeinek habitatzen du Andoain? Haurrak eta adineko jendea dira hein handi batean bakarrak herria habitatzen. Horregatik, habitatzearen inguruko jakintza eta praktikara hurbiltzea funtsezkoa da, hiritarturiko espazioekiko harremana eta hauekiko dagoen kontsumo eredia birpentsatzeko. Izan ere, ezinbestekoa da habitat programatuen erreprodukzioa goitik behera etetea, hortik gerora biztanleen eta auzo komunitateen araberrako hiri-antolamendu parte-hartzailea garatzeko. Behin praxiarekiko hurbiltasuna garatzean, habitatzearen praktika sustatuko duten espazioak imajinatzea eta materializatzea geratuko litzateke: botere-harremenen erreprodukzioetik kanpo eratzten diren espazio kontra-hegemonikoak.

Honen harira proposatu dira azken atalean kapitalismotik at bizitza garatzeko praktika osasuntsuagoak, zeintzuetan ingurukoekiko berdintasun harreman batean norberaren bizitza erdigunean jartzen den. Hau oinarri, bizitza garatzeko bestelako aukerak badaudela adierazi nahi da, pertsonen arteko zaintza eta elkarlana sustatzen dutenak. Funtssezkoa da hauen inguruan hausnartzea eta eztabaida plazaratzea, izan ere, kapitalismoak ez du erreparorik pertsonengan; eta testuinguru zabalago batean, tokian-tokiko baliabideak agortzen ari direlarik, desjabetuak gero eta gehiago dira, gero eta jabe gutxiago baina aberatsagoen aurrean. Udalgintza eraldatzailearen proposamena, adibidez, hasiera egoki bat litzateke udalerrriaren etorkizunaz hitz egiteko; biztanleria udalerriko administrazioeko partaide bihurtzearen bitartez, subjektu pasiboak aktiboari lekua utziz. Etxebizitza ikerketen kasuan, merkatua ikertzen duten enpresak izanik, ezinezkoa da hauen bitartez etxebizitzaren problematika estrukturala sekula gainditzea. Guzti honen harira, komunaren eta ahalduz kolektiboaren inguruko gogoeta aldarrikatu nahi izan da idatzian, uste baita hori dela momentuan etxebizitzak biltzen duen problematikari aurre egiteko lehen pausua.

Izan ere, oihukatutako aldarrikapenak, borroken bitartez bereganatutako ondasun komunak, borroka sozial oro azken finean, egungo neoliberalismoak moldatu eta instituzionalizazioaren bitartez eslogan eta kanpaina politikoetan

132 ATUTXA, Ekhi: *op. cit.*, 398 or.

erreproduzitzen ditu; boterearen ideologiaren arabeko interesak defendatuz noski. Hau da, «garapen berdea» edo «etxebizitza soziala» bezalako terminoak xurgatu ditu diskurtso hegemonikoak, borroka sozialek bereganatutako errealitate kolektibora egokitzeko, baina funtsean, botere-harreman berberak dihardute praktika hauen baitan. Horregatik, etxebizitza eredu berrien hausnarketa erabakigarria izan liteke kapitalismoaren ziklikotasunarekin apurtzeko, zeren eta neoliberalismoaren diskurtsoa pertsonen habitatzeko errealitatera egokitzen den heinean, botere-harremanekiko baldintzak hor dirau, eta bertan iraungo dute haiekin apurtzen ez den arte.

7. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

7.1. Andoaingo Udal Artxiboa

Estudio de la demanda de vivienda, Urbiker, 1993.

Estudio de demanda de vivienda en Andoain, Ikertalde, 2002.

Estudios sobre la vivienda vacía en Andoain, Ikertalde, 2017.

Estudio Socioeconómico de Andoain, 1989.

Memoria del Plan General de Ordenación Urbana, 1965.

Normas Subsidiarias del Planteamiento Urbanístico de Andoain, 1995.

7.2. Bibliografia

ALBAINA, Margareth, ALZOLA, Koldo, et al.: Pausoz pauso, auzolanaren bidez nahi dugun auzoa eraikiz, *Aldiri*, 11, 2011, 22-24.

AGAMBEN, Giorgio: *Qué es un dispositivo. Seguido de el Amigo y la Iglesia y el Reino*, Adriana Hidalgo, Buenos Aires, 2014.

ATUTXA, Ekhi: Aniztasunetik komunean dugunera: praxi instituitzailea, *Euskal zuzenbide zibil konparatuari buruzko azterketak*, 2019, Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomika Aztertzeko Fundazioa, 2019, 381-402 orr.

BENJAMIN, Walter: *Iluminaciones II. Boudelaire: un poeta en el esplendor del capitalismo*, Taurus, Barcelona, 1998.

CANDELA, José: *La política falangista y la creación de una cultura de propiedad de la vivienda en el primer franquismo, 1939-1959*, Tesis Doctoral, Universidad de Valencia, 2017.

COLLECTIU PUNT 6: *Urbanismo Feminista. Por una transformación radical de los espacios de vida*, Virus Editorial, Bartzelona, 2019.

EIZAGIRRE, Estixu: Udalgintza Eraldatzailea, *Larrun hilabetekari monografikoa*, 258. zenbakia, 2020.

FEDERICI, Silvia: *Mundua berriz liluratuz. Feminismoa eta komunen politika*, Katakak, Iruña, 2019.

FOUCAULT, Michel: *Vigilar y Castigar. Nacimiento de la prisión*, Siglo XXI, Buenos Aires, 2002.

FOUCAULT, Michel: *Microfísica del Poder*, Siglo XXI, Buenos Aires, 2019.

GRAHAM, Stephen: *Cities Under Siege: the new military urbanism*, Verso, Londres, 2011.

- IRURETAGOiena, Ula: *Hiria eta bestelako politikak II: Komunitate logika*, Tabakalera, Donostia, 2015.
- IZAGIRRE, Manex & LAMEDICA, Michela: Nire etxeko patioa ez da partikularra. Abaraska, jabetza pribatua eta alokairuaz gain etxebizitza izateko eredu bat, *Aldiri*, 35, 2018, 24-29.
- LACOL & LA CIUTAT INVISIBLE: *Komunitatean Bizi. Erabilera-lagapenerako etxebizitza-koo-peratiba*, Argia liburuak, 2020.
- LARRINAGA, Carlos: Siglo y Medio de Historia del Urbanismo Contemporáneo en Andoain (1842-2000), *Leyçaur*, 8, Andoain, 2004.
- MERRIFIELD, Andy: *La Nueva Cuestión Urbana*, Katakarak, Iruñea, 2019.
- MESA DEL CASTILLO, Miguel: *Víctimas de un Mapa, Arquitectura y Resistencia en el tiempo de la Cultura Flexible*, Tesis Doctoral Universidad de Alicante, 2012.
- ORMAZA, Anartz: Masustegiko auzoa, autoeraikuntza eta elkarlana. Urteetan eraispenaren mehatxupean bizi izan den autoeraikitako komunitatea, *Aldiri*, 20, 2014, 24-29.
- URRUTIA, Peio: Doce Mil Tres: apuntes para el final de una década (Andoain, 1966-1970), *Leyçaur*, 11, 2010.
- ŽIŽEK, Slavoj: *Sobre la Violencia. Seis reflexiones marginales*, Paidós, Buenos Aires, 2009.

7.3. Interneteko baliabideak

- Aldundiaren eta Udalaren arteko bilera, Bazkardoko lotuneari buruzko azterlanen ondorioak aztertzeko*, Aiurri, 2021/07/15, online: <https://aiurri.eus/andoain/1626338666702> (2021/07/15).
- Andoaingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra*, 2011, online: <https://www.andoain.eus/documents/131314/218446/ADokumentuaMemoria.pdf> (2021/05/19)
- BAUTISTA, José: *Las puertas giratorias de Iberdrola*, La Marea, 2018/05/17 (azken eguneratzea 2020/10/01), online: <https://www.yoibextigo.lamarea.com/informe/iberdrola/quienes-son/puertas-giratorias-iberdrola> (2021/07/20)
- FOUCAULT, Michel: El juego de Michel Foucault, *Revista Diwan*, 2, 171-202, online: <https://filadd.com/doc/20-foucault-caps-el-juego-de-michel-foucault-pdf> (2021/04/06)
- GRUPPI, Luciano: *El concepto de Hegemonía en Gramsci*, 1978, online: <http://www.gramsci.org.ar/GRAMSCIOLOGIAS/gruppi-heg-gramsci.htm> (2021/05/12)
- LASA, Xabier: *Illarramendiren atzetik, Ikutzaberri baserria eraitsi dute*, Aiurri, 2020/06/14, online: <https://aiurri.eus/andoain/1592117361189> (2021/06/28).
- LASA, Xabier: *Urteak joan urtea etorri, konponbiderik ematen ez zaion arazoa dago Karrikan*, Aiurri, 2020/10/09, online: <https://aiurri.eus/andoain/1602223127718> (2021/06/28)
- LAZZARATO, Maurizio: *La fabrique de l'homme endetté: essai sur la condition néolibérale* liburuaren aurkezpen elkarrizketa (2013/06/20), online: <https://soundcloud.com/traficantesdesue-os/audio-la-f-brica-del-hombre> (2021/05/05).
- Plan Especial de Ordenación Urbana del A.I.U. 5-Ama Kandida del Plan General de Ordenación Urbana de Andoain*, 2019, online: PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA DEL A.I.U. 5 - A.M.A. KANDIDA DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE ANDOAIN (2021/07/15)
- URAK *Andoaingo Ziako erreka-errekaren uholdeetatik babesteko proiektuaren erredakzioa lizitatu du*, 2021/02/21, online: euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/albiste/2021/urak-andoaingo-ziako-errekaren-uholdeetatik-babesteko-proiektuaren-erredakzioa-lizitatu-du/ (2021/07/15).